Erref. kodea: LAF-211-131

Izenburua: Piarres Lafittek Gure Herrian argitaratutako artikulu bilduma - I

NUN ZER

	Année.Nº	P.
Harpeko haurra	1926.5	1
LEON apezak itzuli duen Jesu-Kristoren Imitazioneaz	1928.2	7
Eskualzale suhar bat : Martin LANDERRECHE apeza	1930.1	15
Itsas-aldetik	1930.2	19
Julien HEGUY apeza	1930.4	21
Azkainen : Jean ELISSALDE apeza eskualzain	1930.6	31
Zahar eta berri	1933.5	33
Araudia	1933.6	39
Lan eskasa	1934.2	43
Afrikanoaren leloa	1934.2	50
Badea ederragorik !	1935.3	52
Deia	1935.6	55
Atxikitzeko orena	1938.1	57
Ene kaiolan bi xori	1938.1	60
Kobla eta otoitza	1950.2	62
Paulo ZAMARRIPA apez zena	1950.6	68
Arroltzeak	1951.1	71
Toki eta tegi	1951.5	76
AZCUE	1952.3	79
Auzi bat datxikola	1952.5	85
Orratza	1955.2	89
Milla euskal olerki eder	1955.3	110
Eskual-hitzak nola ikas	1962.5	114
LAFITTE-n ihardespena	1963.6	121
Manuel LECUONA eskualzale	1967.3	129



L'ABBÉ L. LÉON

VICAIRE

Piarrech aspaldiko adiskide-minari
milesker bihotzetik eta fainko maiteak
urthe on osagarri gero-ta hobearekin.
Agian hik erran bezala gertatuko

SAINT-JEAN-DE-LUZ

HARPEKO HAURRA

Miarritzeko itsas-hegian, aro ederrarekin, horra bortz andere handi, uhain urdin jauztarieri beha : irria errex, mihia zalu, gogoa beti solas berri-gose.

— Zuhaitz musker haren itzalpean, zer nexka pollita, bere ile kuskuilatuekin !...

— Zuk errazu ! Kontesari johan zaioke holako haur karan batekin ibiltzea...

— Uste nuke ! eta anjeretzen ari da gaixoa. Aurten ere Lurderat izanak dira. Heren-egun itzuliak omen, ama-alabak.

— Eztu alaba gero haur hori, dio atxo maitagarri batek.

— Eza ?

— Ez, ez ! Bazinakite nola ukana duen !... Luzexkoa hargatik ipuia...

— Eztu muntarik horrek. Errazkigutzu oro, hasten zaio galdez andere gazte batek lehia handian.

Eta andere xaharrak aipatu buruti-buru gertakari guzia. Zuek ere jakin nahi zinukete beharbada ? Huna beraz...

... Duela zonbait urte Pabeko ostatu baterat etorri zitzaien emazte gazte bat, beltxez jauntzia, arras akitua iduri, esku batez lau-bortz urte... arte hortako neska erne erne bat zeramala, bertze eskuan aldiz larru-xaku hori bat. Soinekoetako errauts arinak salatzen urrundik zirela heldu ama-alaba horiek.

— Lurdeko ostatuak jendez galkatuak dira, erran zuen arrotzak, hatsa bezalako mintzo ahal batean. Aiseago kausituko nuela nun koka, hunat jin niz.

Etxeko-andereak laster ezagutu zuen emaztea etzela aberatsenetarik ; bainan ihardetsi zion ahalik eztikinena.

— Ederki hola. Lagunduko zaituzte gela pollit batera. Leihoa baratzeari buruz izanen duzue. Nexka jostatuko da xori batzueri so...

Zure izena hemen ezar, otoi !

Emaztefioak, punttakoa harturik, halako neke batekin, zirrimarraka zituen hitz hauk : " Mme Vve Etchegoyen, Saint-Jean-de-Luz "
ger xukatu bekokian zarion izexka eta galdegin :

— Salda xorta bat ekarraraziko dautazu goiti haurrarentzat ?...

— Bai, segurki... Eta zu ? Etzira afalduko ?

— Ez, ez, gaur hatsedena, pausua behar dut. Leheregina niz. Hobekituko niz, bai...

Goiti orduko, sehi bat etorri zitzaien nexkaren janariarekin eta hor utzi zituen : zerbait beha bazuten dei egiteko.

Oren erdi baten buruan ostatuko etxeko andereak zer ikusten du ? Haurra zangoen punttan gelarik lekorean emekifio ibilki, norbeit atxeman beharrez.

— Zer ari zira, haurra ?

— Ama lo jarririk, Mayik ez nahi iratzarri : Mayi ttipiegi : bera ezin erauntz, oherat ezin igan. Zuk nahi lagundu Mayi ?

Berehala, beldurturik, badoa anderea haurraren eratzaterat. Gelarat-eta, oihu bat izurtzen zaio Zigailuan Mme Etchegoienek begitarte gogor eta zuri batekin iduri du hila. Lasterka atxeterrerat. Ondikoz ! Deus ezta egitekorik. Herioak jo du. Gorputza ospitalerat ehorztetako ekartzen dute, haurra umezurtzen Seroretarat... Gaixo Mayi nigarrez zendako eztuten amarekin uzten.

Donibanerat gaztiatzen dute zer agitu den eta ihardesten deiete berehala : " Berri berritan delako emaztea etorria da hunat. Ez diogu ez ahiderik, ez adixkiderik ezagutzen. Haren paperetan ikus..."

Hilaren larru-xakuan diru puxka bat aurkitzen dute, titulu zenbait ere eta itsasturu-nausi baten iduria — senarrarena naski. Hau han urrun hila, nik uste ; emaztea Eskual-Herrirat itzuli eta hain dohakabeki... zendu.

Haurrak berriz fitsik ez jakin.

— Ama, ama nahi dut ! Horra daukan guzia.

— Baietz, haurra, ikusiko duzula ! dio Serorak, eztiki besarkatzen duelarik.

Eta bertzeak oihu eta oihu :

— Ama, ama, ereman nezazu amaren ganat !

— Eztitake, maitea, zerurat joana duzu...

— Zerurat ! Ama Birjinarekin, Jesus-haurrarekin, aingeruekin ? dio nexkak be-betan ematurik.

— Bai ! bai ! zoin ontsa ahal den hantxet !

Mayi bere buru ttipian gogoetatia :

— Urrun dea, zerua, he ?

— Urrunsko ?

— Enindezakezu aratsalde huntan harat lagun ?

— Ez, aratsalde huntan ez ! dio Serorak irriño batekin. Geroxago, prestu egoiten bazira eta otoitzak egiten baditutzu, segurki.

Mayi gau hartan laster lokartu eta aingeruekin amets egin.

Bainan biharamunean hau zuen bakarrik : amaren ganat behar zuela, zangoak zalu zituela, nolazpeit helduko zela...

Hain xuxen, lagun handi batekin igortzen du Serorak baratzerat, josta dadien loren erdian. Hortik etxe handi batzu eta bideak ageri ziren. Mayik laster ezagutzen garalako bidea.

Bere zain daukan laguna zare bat beterik ilarrez eta bertze belarrez jotian zaio, berehala jiten dela, hor berean egoiteko... Ba, bainan zaintzalea joan orduko, huna nexka iheskari garalat buruz. Eta hura harat laster heldu gero !

Bazen gara hortan jaun-anderez leherra eta, aise iragan zen billetik gabe hainbertze jenderen artean. Lehen treina ondorat eta, burdin-bidetako langile lehiatu batek altxatu zuen "bagon" batetarat eta klisk-klask atea hetsi. Berehala treina abiatu.

Barne hortan baziren jadanik apez bat eta lau andere.

— Norat zoazi hola bakarrik, haurra ?

— Amaren bila...

— Norat bila ?

— Zerurat, andre.

Orok irri ihardeste laño hortaz eta apezak erran :

— Dudarik gabe, Lurderat badoa. Lurderat bazoazi ?

— Bai, zerurat, ama birjina eta ama ere hantxet.

— Maitea, berehala harat gira, Lurderat.

— O bai, dio bertze norbaitek. Egiazki Lurde zeru bat dela.

— Harat ari niz ba, dio haurrak

— Nola dute izena zure aitamek ?

— Aitarik eztut geiago... Ni Mayi... Eta amari "amatto" erraiten diot. Lurden, haurra jausterat lagundu zuten eta estearen aretik iragan zen eta jendetzeari jarraiki ttapa-ttapa ahal bezala. Akitua zen, bainan bazoan ororí beha, ama aurkituko zuenetz ! Salgieri buruz harritua zagoen beti ! Eta dirdireria hoietaz erraiten zuen bere baitan :

— Zeruko gauza batzu izan behar dira hauk oro.

Emeki-emeki zubi handi batetarat heldu zen. Liluraturik gelditu zen gaixoa. Eliza xuri baten aitzinean bazen proosione edo ibildone miresgarri bat inguruka ari. Apez bat iguzki saindua eskuan bazterrak benedikatzen ari. Zer nahi apez, zer nahi jaun-andere, oro otoitzez !

— Oi haatik zer gauza ederra den zerua ! eta hor dago eskuak juntaturik...

Ez liteke errex erraitea zonbat orduz gelditu zen hola.

Gero aitzina egin zuen, harroka izigarri batzuen oinetan aurkitu baitzen hortik laster. Eta ama ez oraino aurkitu. Bet-betan altxatzen ditu begiak eta hantxet harpe batean haina xuri gerriko urdin-dun bat

agertzen zaio ederrik. Berehala ezagutzen du :

— Ori ! Ama Birjina !

Urbiltzen zaio, emeki-emeki. Beilariak sorkan zagotzin bainan halere.

— Haatik ondo-ondorat joan behar nitzaio, dio haurrak bere buruarekin. Harek bihurtuko daut ama, nehork egitekotz.

Burdin-zerrakua zabalik zen.

Erromerilariak bata bertzearen ondotik taiik gabe heldu ziren. Andre dena Mariak oinak ezarri zituen harri beltzaren ikusterat eta hari musu emaiterat. Oste izigarri horrek gaixo Mayi lehertzer. Orduan neskak harroka xilofio bat hautemaiten du eta harat biltzen da, zeruko Amari ele egiteko tenor onaren goait.

Aratsean, beilari guziak joan zirenean, burdin-zerrakua hesterat zoalarik ate-zaina, bere gordetegitik huna non ilkitzen den Mayi, bainan sahetsean entzun zuen oihu batek izitu zuen handizki... Oi ikusi zuen gizon zahar bat, dabantal xuri bat soinean, buruan xano bat eta hura tortxoen atazaile...

— Heia bada, haurra, zendako etzira amarekin joan ?

— Ezpaitut kausitu, Jauna, dio ilunki haurrak. Hunat haren bila etorria niz zerurat... bainan eztut oraino ikusi... Ama Birjinak erranen daut bai nun den.

Xaharrak laster asmatu zuen, bazitekela hor ondiko izigarri zerbait :

— Gaixoa ! komenturat eremanen zitut. Gure fraidek lagunduko zituzte amaren aurkitzen.

Mayi beha zagon, beldurrik gabe, jaun horren hitzeri, noiz eta ere nigar xotin batzu jin baitzaizkon beharrirat. Itzultzen da. Zerrakutik bertzaldeko harri baten gainean beltx handian emana bazen belaunikaturik andere gazte eder bat, nexkari so.

Andere horrek seme bakar bat, hain maite zuen semea, galdu-berria

zuen. Etsiturik zagon, urte baten barne bere senar jaun kontea eta bere ume gaixoa Jainkoak harturik.

Eta ordu huntan iduri zitzaion Jainkoak igortzen ziola ordain maitagarri bat. Bere aldetik, Mayi bizpahirur aldiz itzuli hari buruz. Zer gertatu zitzaien bihotzean, eztakigu. Bet-betan lasterka biltzen da Anderearen ganat, oihu egiten diolarik :

— Ama !

... Gaineratekoak asmatzen ditutzue. Kontesak beretzat hartu zuen haurra, harpeko haurra. Eta urteka bihurtzen dira Lurderat, beren eskerren bihurtzeko Ama Birjinari, eman diotelakotz ama etsituari alaba maite bat, ume-xurtx gaixoari ama bat.

PIARRES LAFITTE.

GURE HERRIA
1926
Nº 5. Mai
pp; 273-278

LEON jaun apezak

itzuli duen

" Jesu-Kristoren Imitationeaz "

jaun kexu bati bi hitz

Jaun maitea, Imitazioneaz igorri dautazun hitzak ezin harrituago nauka : " Jakintsunek, zer nahi kalapita erabilirik, nork egin duen ere erran ez dezaketen liburu bati zendako lot, eskuaralat itzuli beharrez ? "

Egia ! Ehun eta zonbait izen, noiz bata, noiz bertzea, atera dituzte lehenago, ez egilearen egiazkoa zoin zitaken. Egungo egunean, dudarik ez dagoke, bereziki Vacandard eta berrikiagotan Pohl jauneri esker : Imitazionearen egilea da Thomas Hemerken. Latinez " a Kempis " erraiten ohi diote, Kempen delako herrixkan sortu zelakotz 1379-an. Jakitatez eta otoitzez gaitza, san Agostinen ordeneko kalonje eta fraile, liburu eder frango asmaturik eta Jainkoaren fagore handi zonbait gozaturik, 92 urtetan bozkarioz zendu zen saindu bat bezala. Jainkoak duela bere lorian !

Bainan horiek oro eta bertze xehetasun hainitz ez balituzte ere argitarat eman, zure galdeari ihardesteko, hau aski nautzuke galdatzea : " Uste duzu bada lan baten egilearen ondotik labilkela nehor, lan horrek ez balu bertzek ez duten onik ? "

Hau badu hasteko Imitazioneak : lurreko lau bazterrak jo dituela aspaldion, mintzaire gehienak ederki edo ahal bezala jauntzirik ; jauregietan bezanbat maite dutela etxola-xokoetan ; ez katolikoak bakarrik, bainan protestant andana, Mahome-tar asko, sineste-gabeak ere badituela irakurle eta goresle.

Nundik heldu zaio holako arrakasta ? Liburu bat delakotz argia eta goxoz orratua.

Argitzen gitu : gogo-bihotzetan alha ditugun eta aitortu nahi ez ginituzken asmu-xedeak, diren bezain beltz, itsutsi ala huts, aurdikitzen dauzku aitzinerat.

Oi argi ikaragarria, zoin apal giren eta sorjes salatzen duena ! Etsitzerat ginderamazke argi horrek, lagun ez balu nehork ezin erranezko goxo bat. Liburua ezen hain eztiki, hain maiteki ari zaiku, non eskutik bezala, Jesusen ganat baikitu biltzen, indar eta argi guzien iturbururat. Guhau berak ez gitu deusetako on uzten ; graziarekin aldiz, aingeruak bainoago ere bagauzka, Jainkoaren iduriko.

Nork ez du maite, gezurra bazterretan nagusi delarik, egia emaiten diona eta biziko hersturen erdian esku ?

Eskual-Herrian ere, Jaun maitea, baditugu gure itzalak eta minak. Etsaia ez dugu lo. Debruak ez duela eskuararik egundaino ikai ahal izan ? Guk haatik baitakigu haren erdara txarra, gure buruaren saltzeko aski. Imitazioneak baduke beraz gurekilako lotkia. Zuhauk irakur-azu otoi ! ea irakurri-ondoan hanbat gutietsiko duzun...

Aspaldi huntan ohartu zaizko, bertzenaz ere, gure arbasoak aipu dugun liburuari.

Mendiz haraindiko berri ez dakit. Hunaindian egin lan guziak ez ditut ezagutzen. Bainan huna bakar zonbait, on baitukezu izan direla bederen jakitea.

ARAMBILLAGUE jaun apezak lauzpabortz aldiz agertarazi zuen Imitazionea. Orléans-eko liburutegi nagusian ba omen da 1684-eko in-12 bat.

S. POUVREAU-k, mende hortan berean, eskuaraz ezarri dauzku Richelieu kardinalearen Doctrine Chrétienne delakoa (1656), Philotea (1662), Gudu izpirituala eta bertze lan hainitzen artetik Imitazionea.

CHOURIO Azkaindarrak 1720-ean argitarat eman zuen lehen aldikotz geroztik hain usu agertu den liburu ederra. Azken ager-aldia

1825-ekoa du naski idatzi horrek.

MAISTER 1757-an ber lanean ari izana da ziberotarrentzat.

INCHAUSPE jaun apezak bertze Imitazione ziberotar bat egin zuen 1883-an, erlisionearen ixtorio guzia (alabainan laburzki) ondotik eratxikitzen ziola.

DUVOISIN, izan dugun eskualtzale eta langile handiena ere, sail horri lotu zaio eta harena dugu Pauen agertu 1896-eko Imitazionea.

Horiek orok, jaun maitea, erakusten dautzute garbiki Leon jaun apezak aitzinekoak badituela — ez nor-nahi — eta ez duela urrats alferrik egiten, bere lan berria argitaratzen badu.

Badakit, berrikeria guziak hastio ditutzu : hastio pertsu berriak, hastio pilota-joko berriak, hastio oraiko idazlarien eskuara : beihalakoak baizik ez maite. Beharbada barka zinezoke gazte bati, liburu zahar bat arra-ager baleza ; bertzerik ez...

Otoi, jauna, zaude sumindu eta eritu gabe lan berria irakurri artio. Bururen-buru iragan-eta, aitzinekoeri nagusi dela aitor behartuko zaitzu.

Hasteko barnagotik lotzen zaio Leon apeza latinari. Hortan aitzinekoek ez dukete hobenik, ezin ezagutu eta on egin baitituzte, heiek, geroztikako jakintsunen iker-ekin ederrak. Iduri zait bizkitartean nere adixkideak ez zukela gal, Mgr Puyol-ek Imitazioneaz moldatu hamar liburu gotorrak eskuratu balitu. Hizkuntza zonbait badira alabainan ezin ontsa har ditezkenak errotik jakin gabe hamabortz-garren mendeko mistiken latin berezia. Halere den bezala, gure eskuara liburuak onez ez diote zorrik ardurako Imitazione frantseseri.

Mintzairez ere bere aitzinekoeri jaun dago. Eskuara garbiago du. Ez otoi lotsa, gizon maitea, Berehala gogorat heldu zaitzu eskuara zaindu nahiz hiltzen daukutenen eskuara garbi-garbi-garbia. Holakoekin ez du Leon apezak ikustekorik deus. Errege, bake, loria,

mundu, aingeru eta bertze latinetikako hitzak trankilki derabiltza, bakaldun, gentza, aintza, ludi, gotzon eta holako hitz arrotz edo arrotztu batzuen ondotik ibili gabe. Gizonki artzekotz, ez ote du behar liburu-egileak irakurle gehienen elekuntza hartu ? eta ametsetako eskuara ametsetako lukainkarekin utzi ?

Galdatzen badautazu nola den bada hain garbi Imitazione berria, herriz-herriko eskuara hain nahasia delarik, ihardetsiko dautzut, egileak ez duela edo-zoin hitz itsurat onesten, eskuara ezinbertzez baizik ez duela uzton eta hitz erdarak, bertzerik ez izanez, erabilirik ere, esku-aldunki derabilzkela.

Irakur-azu Chourio. Harrituko zira zoin errexki eta beharrik gabe josten diozkan lapurtarrari española, frantsesa, latina bai eta kaskoina.

Irakur Inchauspé. Hau ere nahas-mahas ari zaiku, nahiz ez den Chourio bezain tuluntuntun eta ziberotar bizi zaloinaren elea han-hemenka ditaken pollikienik ageri den.

Irakur Duvoisin. A ! hunek hitzak badakizki, zokoz zoko bildurik edo berak asmaturik. Hau erdararen etsai gorria dugu. Bainan, bainan, (ahapetik mintzo niz gero !) maizegi eskuararekilakorik batere ez duten ateraldiak baditu : " Zoinaz ikusia izan baitzen " eta holako.

Léon adixkideak aldiz hitzkuntza nahi du hautatu Chouriok eta Inchauspek baino ehunetan ohartukiago eta Inchauspe bezain arne izan, alderat baterrerat utziz Duvoisin-ek zerabiltzan latin-itzulika dorpeak.

Hola nahi eta hola egin du.

Haren eskuara arras gure herri bazterretakoa da, laborariek sortua, lur lanetako egina eta emeki-emeki bertze asko zeretarak hedatua. Horra nundik metaka aurki ditazken haren Imitazionean hulako ahopaldiak :

— Gure bekatuek iraulirik gauzkate.

— Zure burua ez sobera erein.

— Zure arima uzten baduzu erdi larre...
— Jainkoa baitan landaturik.
— Jainkoak ezkituela opor utziko.
— Lur huntako zerek, zerbait buztan tzar badakarte.
— Koropilatua naukaten jaidura tzarrak.
— Gizona oilarkatzen delarik.
— Jendeen jorratzea.

Han-hemenka etxen edo plazan entzuten diren solas arrunt bainan pollit batzu ere badira :

— Ez duzu behar gogoa zirikatu.
— Bertzek erranetan ez bazinu sudurra sartzen...
— Itzul eta mitzul nahigaberik ez du nagiak...
— Oro punperat heldu zaizkonean...

Horiek eta holakoek herritar egite bat gaitza emaiten diote mintzaiari. Aintzinetik ez badaki irakurleak, ezin ezagut dezake erdaratik eskuralatuak ditezkela hor dituen lerroak, den gutieneko latin-usain edo kinoa osoki delakotz orotan itoa, urtua, galdua. Eskualdun bati gogoratu, eskualdun batek egintzat edukiko ditu.

Thomas Hemerkenek itsutuki maite bide zuen ditxoa : bere liburuetan ahurtaraka erein du beti. Leon jaunak, hazpandar zirtolari bai eta neurtitzlari gisa, gogotik eginen zuen dena ditxo zitaken lan bat. Eginen ? Zer mintzo niz ? Hasia ere zuen eta lehen zatia ikustearekin hitz dautzut atsegin hartu dutala, hain baitira ditxoak ederki, garbiki, beroki heldu. Zuhau bezalako ditxolari bipil batek ere Irulegiko arnoa bezain kartsuki hurrupa lezazke. Bainan orotan apezak azken hitza bere. Irakurlea bildu behar bidean josta beldurrez, egileak debalde utzi ditu edergailu horiek, hazitako bakar zonbait baizik ez begiratuz, zuhur-hitz gisa :

— Zirimola itzal eta aro ederra itzul.
— Norat haize, harat aise.
— Norat ixurki, harat errexki.
— Jesus gabe zoin ziren agor eta idor.

— Oi gizonaren loria, zoin laster eroria !

— Guziak erorkor, bainan sinets zu baino ahulagorik ez dela nehor.

Holako ateraldi pollitak Axular, Mendiburu, Arbelbidek segurik berenduko zituzten.

Lerro-lerro lertzunak bezala nere erasiak emana gatik, badut uste, jauna, deus guti erraiten dautzutan, osoki bil zezazkenik. Hobe zinuke Imitazionea bera irakur baziniro.

Oraino argitaratzekoa baita, huna zuretzat atera diotan zatiño bat. Leon apezak barkatuko ahal daut ohointza hori :

NIGAR EGITEKO DUGULA

Egizu nigar eta auhen, gorputzeko atseginetarat hain ixuri zirelakotz oraino eta munduari hain josia ; zure azturak hain guti direlakotz heziak ; gutizia likitsez hain zirelakotz betea ; zure gogo-bihotzen zaintzerat hain ezazol ; mila amets ergelek hain ardura lilluratu ; kanpoko gauzetarat hain barreiakor ; barneko bildutasunerat hain hurri ; irri egiterat eta jostatzerat hain zalu, nigar egiterat eta urrikitzerat hain uzkur ; ezazoltzerat eta gurikerialat hain lehiatsu ; gorputzaren nekatzerat eta arimaren kartsutzerat hain nagi ; berrien ikasteko eta ezdeuskeria batzuen ikusteko hain begi-luze ; ahalge eta laido jasaiteko hain izipera ; ontasun hainitzen biltzerat hain aztaparkari ; emaiteko hain zikoitz ; atxikitzeko hain tinki ; solasetan hain arin ; ixilik egoiteari hain bihurri ; zure bizi-moldean hain harro ; zure urratsetan hain bazter-nahaste ; jan edanetan hain sabelkoi ; Jainkoaren hitzaren entzuteko hain elkor ; lanaren uzterat hain lerrakor ; lan egiterat hain mutiri, kondera perttolietarat hain atzarri ; gau-beila sainduetan hain logale ; hok noiz bururatuko diren hain kexu dirauteno ; otoitzetik gogoa hain urrun ; meza emaitean hain xoriburu ; eliza-otoitzetan hain epel ; komuniatzean hain agor ; inguruetarat gogoa hain zeiharkor ; hain bakan zure baitan osoki

bildua ; hain laster odola jauzia ; lagunari zimiko egiterat hain trebe ; gaizkiari ohartzeko hain begi-zorrotz ; larderian hain garratz ; atseginetan hain airos ; atsegabetan hain bihots gabe ; xede onen hartzerat hain erne eta hauien betetzeko hain uzkur. (I m. IV, 7 n.2).

Zati hori eman dautzut erakutsi nahiz Imitazione berriaren egileak zoin ontsa dakien bere mintzaire joria nola erna, nola bil, hitz beharrenez, laburrenez, begikoenez bertzeak bazterrerat utziz.

Bihotzen atzemaiten ere badaki :

Ai zoroa ! luzaz bizitze a zertako asma, egun baten segurtamena ez duzularik ? Zonbatak ez dira enganatu eta gutien ustean hil !

Zoin ardura ez duzu entzun holakoa ezpataz hil dela, halakoa ito, bertze batek erori-ta duela lepoa hautsi ; hau jatean hil, hura josteta ari zelarik, bat erre, bertzea izurriak ereman, bertze bat ohoinek garbitu eta hola guziak hiltzen eta gizonaren bizia itzalaren par iragaiten.

Aita Larregain zenak bertzerik erranen ote zaukun, arima zolaraino jotzen zuen oihu sainduekin ?

Predikari inarroslea maite badugu ere Eskualdunek, laket zaiku biziki, goratik arizan ondoan, apaletik has dadin ezti-eztia. Beha huni :

Zoriona noiz duket, Jauna, zure kausitzeko bakar bakarrik eta nere bihots guziaren zuri zabaltzeko, nahikari dutan bezala zutaz gozatzeko ? Hemendik harat nehork ez nuela gutiesten, ez nahasten, ez bilatzen, zoriona noiz duket xoilki niri mintzatzeko eta ni zuri, adiskideek elgarri mintzatzeko eta elgarrekin jateko ohi duten bezala ?

Oi hitzaldi hunen goxoa ! Aingeruek ba, bertze nehork ez duke

hain solas laño bezain karsurik.

Beraz, adixkidea, Leon jaun apezak lan eder eta ona egin dauku. Alde batetik, geia gorenetarik du, bortz mende hautan izan diren lurreko eta bereziki Eskual-Herriko jakintsuenek handietsia. Bertzetik eskuarak irabaztea duke, liburua hain artazki moldatua delarik.

Funtsean holako zerbait behar zen ba izan, Etchepare eta Lacombe jaunak dauzkan Eskualzaleen Biltzarrak bortz ehun libera eman diozkanaz geroz garrait-sari.

Jaun maitea, luzegi bazaizkitzu lerro hauk, barka, Agian ihardetsiko dautazu — labur bada labur — zuk ere nahi zinukela lehen-bai-lehen ager dadin Jesu-Kristoren Imitazionea. Jainkoaren ospearentzat, arimen eta eskuararen onetan.

Bihotzez esku.

P. LAFITTE.

GURE HERRIA
1928
Nº 2. Mars-Avr.
pp. 105-112.

Eskualtzale suhar bat

Martin LANDERRECHE apeza.

Joan den urtarrileko biltzarrean, eskual-zainak beren betiko jakintsun-laneri jarraiki nahiak ziren. Zorigaitza uste gabetarik heldu baita ordean ! Huna non lagun bat, apez xahar bat, bet-betan alditxartzen zaioten. Lehenbiziko artak emaiten diozkate. Gero zer egin ? Eri handi, beribilez etxerat ereman behar.

Horra nola egun batez, Azkue jaun apezak eta Lacombe jaunak lagundurik, Espainiatik Ezpeletarat itzuli behartu zitzaion, hemen aipatu gogo dugun Landerreche jaun apezari.

Etxerat orduko, oheratu zen. Betikotz oheratu, ezen lau egunen buruan, urtarrilaren hogoi-ta-hamarrean haren arima zeru-alde hegaldatu zen, azken otoitz kartsu batek berekin eztiki zeramala. Hain xuxen, meza saindua emaiten ohi zuen tenorean pausatu da.

Jainkoak duela bere lorian !

Martin Landerreche Amoroztarra zen, 1846-eko uztailaren 26-an sortua. Aitetamak arras gisakoak zituen eta haurrak erran ziotelarik apezteko xedea bazukeela, gogotik onartu zuten. Bere eskola guziak bata bertzearen ondotik egin, eta 1869-ko maiatzaren 22-an apeztua zen ; hogoi-ta-hiru urtetan gazte zela, Larresororat igorri zuten : lau urtez haurrekilakoa egin zuen, jakitate eta atzartasun handi batekin. 1870-eko gerla-ondoan Maulerateko bidea harturik, han bi urteren heina bikario egon zen. Ziberotarren mintzai ederrarekin ezagutzak egiteko doia. Hortik jo Aitzitzerat, erretor gisa. Bere osagarri ttipiaren araberakoa zuen herria. Bizkitartean, hedadura zabaleko apeza zelarik, iduritu zitzaion, hain azkar ez izanik ere, hor baino lan eta ongi geiago eginen zukeela, eremu handixago batean: 1880-an Oarre galdatu zuen eta ardietsi. Ondikotz, bularrak ez ontzatzen eta, hatsak noiz-nahi huts-egiten baitzion, 1889-an

erretorgoa betikotz utzi behar izan zuen.

Horrek ez du erran nahi tiro eman ziola lanari. Ez, beti lanaren adixkide izan da Martin Landerreche apeza eta, neholere ahal bazuen, gogotik lagunduko zituen bere erretor ezagunak. Hemezortzi urte hautan Ezpeletan zagon eta denek badakite nola ari izan den gerla-denboran, oro hitz-altxagarri, oro laguntza, bai elizan, bai elizatik kanpo. Geroztik ere ez da alferrik egon.

Bainan gazte-gaztea zelarik oraino, zerbaitek hartu zion bihotza, bai eta betikotz hartu : eskuarak.

Eskuara-irakurle gaitza zen, eta atxemaiten ahal zituen liburu guziak, astiki eta jakituz iraganen zituen. Nago haatik ez dioten on baino kalte geiago egin irakurtze horiek : alabainan gure liburu zahar geienak erdaratik itzuliak dira ; eta nola eskuarak ez baititu behar bezala erraiten, eskualduneri gogoratu gauzak baizik, liburu liburu horietako eskuarak moldegaitz emaiten du ; norbaitek bortxaz eta indarka jauntzi luken soineko hertsia iduri du. Hanbat gaixtoago mintzaire hori erabiltzen duenarentzat.

Eskolarik hoberena, jende xehearekin eleketa artzea.

Hori ere bazakien Landerreche apezak. Bera frango jendekina eta, goxo zitzaion bertzekilakatzea, gogoa barrandan zagokiolarik, noiz zer hitzkuntza berri agertuko zen bertzen solasetan. Ihiztari dohatua! Zerbaiti ohartu orduko, hartua zuen, eta hainitz urteren buruan ere ez zitzaion ahantziko. Halakoa zen gizona ; atxikitzen, oro barnarik hartzen. Josteta eta irriz maite zuen eta polliki igorriko zion edozoini bere gisako pikoa edo zirtoa ; bainan botaren araberako errefera emaiten ziotena bada, ai orduan ixil-ixila suminduko zitzaion bihotza eta ez berehalakoan sendatuko, hain baitzuen minbera. Haatik bere hitzetan, bere baitako zauria deblauki ostikatuko zuen, begitarte on eginen, bai eta behar orduan eskukaldi bat ona emanen, norbaiten laguntzeko. Hots ! Ebanjeliotik ari zen.

Dena den, liburuetarik bezala jenden ezpainetarik ere eskuara

jori bat bildu zuen.

Lehenik garait-sarietan agertu zen Landerreche jaunaren jakitatea, neurtitzetan ala bertzela. Berak argitarazi Aphurka delako liburuxka batean, irakur ditzazkegu "Eskuararen alde" egin zituen lerroak ; heieri esker 1901-eko d'Abbadie d'Arrast zenak utzi prima ereman zuen ; hor berean atxeman ditazke "1900-ean Azkaingo bestetan garait-saria ereman zuten neurtitzak". Badute kar eta badute gozo !

Eskualtzaleen Biltzarreko lehenbiziko lagunetarik zen, beti suhar, beti akulatzale. Laket zuen bilkuretan bere lanttoen irakurtzea eta betiereko idazlari edo segretario izendatu zuten. Azken urte hautan Elissalde eta Moulier bi jaun apezak ordain zituen.

Revue Internationale des Etudes Basques delakoan noizean behin Eskualtzaleen Biltzarreko berriak emaiten zituen, gerla aitzin. Althabek bildu hitzkuntza berexi andana bat ere agertarazi zuen : geiagokorik ez dut uste.

Duela hamar urte hamabi jaun elgarretarat bildu ziren, behar zutela zerbait egin eskuararen begiratzeko. Euskalzainak hartu zuten izena eta geroztik maiz eta ardura elgar ikusten dute, zer nahi lan deramatela. Bilkura hoietarat jarraikienetarik zen Landerreche apeza eta erran dugu hatsarrean nola azken egunetaraino lanean ari nahi izan zuen.

Euskera delako agerkarian aipatu zituzten behin Eskualzain guzien lanak ala... lan-gaiak. Bazioten Landerreche jaunak argitaratu gogo zuela gramatika berri bat eta hargatik lankide sartu zitzaiotela. Damurik ez baita gramatika hori agertu. Aphurka delakoak dauzkan huts larriak, beharbada hartan xuxenduko zituen.

Euskera-n ez dugu uste zuhur-hitz bakar batzuez bertzerik eman duen.

Haren lanik ederrena, Fedearen Hedameneko Urtekaria. Bi ilabetetarik agerrarazten zuen. Sail gaitzari lotu zitzaion. Erdarazko "Annales de la Propagation de la Foi" hitzez-hitz nahi zituen eskuaralat itzuli. Ezinezko balentria hori ! Eskuarak alabainan, erdararen pleguak har-arazi nahi balinbadiozkate, bere gozoa galtzen du ; makur ere badoake, bere ohiko bidetarik zeiharkatuz geroz.

Halere eskerrak zor diozkagu denek Landerreche jaun apez langile zenari, iraupenekin jarraiki zaion sail nekearen gatik. Eskual-Herriak ohoreak egin diozka handizki ehortz egunean ; bainan segur gira sari ederrenak Jainko maiteak dauzkola betiereko zorionean, bere sinesteak eta bere eskuara hain suharki zaindu dituelakotz.

P. LAFITTE.

GURE HERRIA
1930
Nº 1 Janv. Févr.
pp. 69-72

Itsas-aldetik

Itsasoko haizea, haize nahasia !
Marifielen berri tzar ekarle nausia,
Higuin bezala diat hire garrasia :
Maiz hire gatik diat bihotza hautsia.
Egun nitzaik bakarrik barkatzen hasia,
Berri on bat hi ganik baitut ikasia...

Gaua zuian oraino goizaren haiduru,
Ni ametsetan ari, oro mirakulu...
Hi leihorat etorri oihu eta oihu !
Atzarririk jarri nuk, erne bezain kexu :
— Haize itsu gaixtoa, nor daukuk hondatu ?
Noren begiak dituk gaur behar bustitu ?

Fago adarretarik mintzo batek niri :
— Uhainen asarrea lo zagok, Bettiri :
Oro jabaldu dituk, ekaitza erori...
Bozkarioz zoatzik ehun itsasturi...
Ifernua duk xoilki asaldatzen ari :
Etsai bat sortu zaiok Satan zaharrari !

Donibanen lehoin bat, zeruko lehoin bat,
Agertu berri dela gaztiatzen deat :
Abiatzekoa duk harat eta hunat,
Debruak kendu nahiz herritik aldebat.
Ifernuko lehoina doala morturat,
Asarrez, orrobiaz, nigar egiterat.

— Haize eleketari, haize mihi-lazo !
Erradak bada nortaz hizan hola mintzo.
— Donibanen lehoina, hauzo diat hauzo.
Imitazione bat sortu baita atzo,
Hari Eskual-Herriak, otoi, batzar gozo
Eta ongi-etorri laster egin bezo.

P. ITHURRALDE.

GURE HERRIA
1930
Nº 2. Mars-Avr.
pp. 138-139.

Julien Héguy

apeza

Eskual-Herriak bere apez kartsu eta argituenetarik bat galdurik, harritzeko da egiazki, nola bazterrak ixilik egon diren, zor zitzaion bezala goretsi gabe. Doi-doia dute aipatu.

Baditake, Saint-Pierre jaun apezpiku eskualdun berriaren omenak halako bozkario saindua ixuri duen bihotzetan, non zauri minenak ere goxatu baitiozkate, hersturak jorik zaudeneri. Baditake bertzalde halako bat zaioten zonbaiti, hain gaizki eta bidegabeki erabilia izan den gizon baten aipatzea, beldurrez-eta beihalako gezur izigarriak berriz pizt eta hegaldaraz, batere beharrik gabe.

Guk ixilaraziko ditugu ixtant bat gure alegrantzia eta herabeak oro, eta, gure ahal xumeen arabera, emanen diogu " Yulian apezari " hartze duken aipamen berezia.

º º

" Yulian apeza " erraiten zioten jendek. Izena bakarrik. Deiturarik ez diote emaiten arras bere dauzkaten jaun maite argitueri. Bizi denik ez aipatzeko, orroit lehenagoko Eugena mirikuaz edo Michel apezaz.

Beraz Yulian apeza Ayherreko seme zen, Kitolisteian sortua 1860-ko urriaren hamekan, eta Hargindeian altxatua. Haurretik hartze gaitzekoa agertu zen, apezgorako deia aditu eta latin puxka bat jaun erretorarekin ikasirik, hamalau urtetan sartu zen Larresoroko semenarioan. Ikasgai guzieri jarri zen eta handik bortz urteren buruan Baionako semenarioan zen. Han zuen bildu elizako zeremonien gustu berezia eta xedea hartu, azken hats-piruraino arimen onari ohartzeko. 1885-eko uztailaren 12-an apeztu zuten eta buruilaren 19-an, Santa-Grazi-rat bikario igorri : berehala adixkidetu zitzaizkon jendeak. Bainan hala beharturik, jaun apezpikuak

Ainhoko bikario izendatu zuen, 1889-an, eta handik hamar ilabeteren buruan, Uztaritzeko bikario, Iriart erretor famatuaren denboran. Bi urte baizik ez egona gatik, ez ditake erran nolako erroak egin zituen herri hortan Yulian apez zenak : adin batetako jendek aipu dituzte oraino haren bihots gozo bezain arraia, haren karra, haren predikatzeko jeinu miresgarria. Gero Santa-Grazirat itzuli zen, erretor gisa, hain maite izan zuen herri zabalerat. Bainan, 1903-ko maiatzean Beskoitzerateko galdea zuen : han egon izan da hogoi urte zer nahi lan eta ongi eginez. Asko neke edo laidok eriturik, atera behartu zitzaion hain luzaz artatu herritik, eta sendotu ondoan, 1924-eko otsailean Arrokiagako erretor izendatu zuten. Aurten du Jainko maiteak bereganatu ekainaren lauan, bihotz-erdiraturik baigaude, holako gizon bat, holako apez bat, holako eskualtzale bat galdurik.

ꝏ

Gizona kanpoz etzen ederra. Gaztain hoberenak ere karloa ba. Gizon tipi, torroil, buru handi bat zen, begitarte gixen arrunt bat, ezpainak lodi zauzkana, eta begiak han nunbait urin xilo batzuetan gordeak. Beharrik arima eder batek argitzen baitzion begia behako bizi batez, bai eta irri on batek ezpain hegala loratzen !

Boza gaitza zuen, hain bat karmina, bainan sarkorra, hunkigarria eta urrunerat heltzen. Erran daukute, Hazparneko Kalbarioan predikatzen ari zen batez, karrika behera-dino ezagun zirela haren oihu kartsuak, mafrundi zelarik hain xuxen egun hartan. Hala-hala Sant-Andreko elizan hura mintzo-eta, behin ba omen dute Panecau zubitik aditu. Hori, egia erran, handia zaiku ; bainan nehork ez diro uka haren bozaren indar ikaragarria.

Gizon torroila zela, traka ederra zuen halere ; urratsa zalu, gorputza xut-xuta, zelaian zabilano. Patarretan aldiz laster akitzen, izerdia zurrustan jauzten zitzaiola : orduan trikatuko zen ixtant bat, alegia bazterren ederrari so. Azken urte hautan haatik, urrikixago bazabilken, zain-hanturak bi zangoak pilarturik

baitzauzkion.

Holako gorputz batek hazkurri nasaia nahi zuela, erran gabea. Duela hogoi bat urte gaitzeko mahain-gizona omen zen Yulian apeza. Norapait gomitatua zelarik, etxetik joan gabe ontsa janen zuen, erranez : " Zuhurki ar giten : hango jendeak ez ditugu sobera harritu behar ! " Arras bixkotxekoa izana gatik, etzen moko mehe, aho xuri hetarik. Denak on zitzaizkon eta askariak nola afariak arin-arinak nahiago zituen.

Behar ere. Bertzenaz nola bururatuko zituen bere lan guziak ? Hura bezalako langile guti bazterretan. Liburuen erdian eta luma eskuan ereman du bere mendea, jakitate biltzen eta eraiten, latinez, frantsesez eta eskuaraz berdin trebe zelarik. Buregoa zuen bere lantegia, elizatik landa. Ikusi izan dute askotan bortz, sei, zazpi orenez bere lanari jarraikia, tente, kadiratik kantitu gabe.

Bainan heldu zitzaiona bada adixkide bat haikatzerat, berehala harekilako zen, den gutieneko zinkurinarik gabe ; eta hain zen orduan alegera, non hainitzek (gaizki ezagutzen zuten hoietarik) uste izan eta zorigaitzez erran ere baitute, pesta zuela gain-gainetik maite eta etxetik jalgitzea.

Musde Juanxuto, katedraleko erretor zenarekin adixkide handi zen. Egun batez jin zitzaion Beskoitzerat bazkariz eta egoki bortz orenak artio. Gomita atetik ilki orduko, horra Yulian apeza bere buregorat joaki? Han jarri zen biharamunean oren bat artio, lau-etan hogoi paia zauzkan " Rapport de liturgie " bat zarra zarra bururatzen zuela. Eia etzen lanean arizan !

Behin baino gehiagotan gertatu zaio hola karraskan artzea. Ezta harritzeko lan horien ondotik, gogoa harrotu nahi bazuen ere, eta lagunekin hain alegera, irrikoi eta jostakina bazen.

Lurdeko ostatu batean kausitu zen behin Beskoitar multxo batekin. Mutila heldu zaiote azpil batean zortzi arroltze ekartzen dituela. Yulian apezak azpila hartzen dio, bere aitzinean ezartzen eta nola mutila hor baitzagon azpilaren aiduru, bertzeri eremaiteko, jaun

erretorak behatzen dio eta laño-laño galdegiten, den gutieneko irririk erakutsi gabe : " Eta hauieri eztiozute deusik ekartzen ? " Gizonaren harritzea ! Zer ! apez horrek berak zortzi arroltze segidan janen ziozkala ! Laster ohartu zen — eta horrek bihotza arindu zion — izigarriko jale hori arroltze gose baino irri goseago zela !

Bertze aldi batez hala hala beilaz joanik bere herritarrekin, ostatu batetarat jo zuen. Zerbitzariak odolgiak ekartzen diozkate. Oisus ! zer odolgi meheak ! eta puxkak zoin labur ! Jaun erretorak erraiten dio neskatoari : " Errazu, andre, ez bide duzue aurten xerri baten erdia baizik hil ! " Hango irriak !

Ba, bainan batzuetan irriak on baino kalte gehiago dakarke. Bihots minberak badira eta den gutieneko trufak zaurtzen, sumintzen, erhotzen ditu. Nago ez ote zituenetz gure apez gaixoak han hemenka xorrotxegi bere ahopaldiak. Dena dela, denek eztiozkate denak barkatu. Itsuski mendekatu ere zaizko, ordu deitoragarria jin delarik. Bainan bego. Jainkoak oro badazki.

Jitez bizia zen Heguy jaun apeza ; odolak aise irakitzen zion eta hasarrea jauzten. Orduan bazterrak ixilik zauden. Bizkitartean etzagon bere hartan gure gizona. Bere baitaratu-eta, bere hobena aitortuko zuen zen bezala eta berriz adixkidetuko.

Adorazione batez, naski, Mgr Diharce bikario jeneralak apezkiku jauntzian eman zuen meza nausia Beskoitzen. Jaun erretorak nahi zion erran — ohore baitzitzaion — zonbat gizon ziren hurbildu meza hartan mahain saindurat. Herriko bi apezgaien gain utzi zuen kondatzeko lana. Zorigaitzez mahain sainduaren eta hauien artean ziren landatuak jaun kalonje eta bertze apez andana bat. Eta haurrak haur ! gure apezgaiek ez izan bekokiarik aski jaun horien aldararazteko eta kondurik ez hartu. Hortan meza bururatu. Oro sankristiarat-eta, huna gure erretora konduaren galdez mutiko dohakabeeri. Hauiek, etzitakeela deus ikus ! Ai, zer zafraldia ! Zer oihuak ! Meza emailea bera harritua zagon eta nahi zuen

apazegatu. — Bainan ixtorioa etzen hortan fini : jendeak etxerat bezain laster, han zen Yulian apeza mutikoxka horien ganat barkamendu galdatzerat joana. Sankristian baino segurkiago ez ote ziren orduan begiak bustitu !

Hortik ezagun da nolako bihotz aberatsa zuen. Aberatsa eta artatsua. Orduan Uztaritzeko bikario zen. Herriko andere bati seme bat mirikuntza eskoletarat joan beharra zitzaion. Mirikugaia gisakoenetarik zen, bainan gaztea, eta orok dakitena, gaztea harrotzen hasten delarik, zer nahi pellokeriaren egiteko aiher da. Ama grinatua zagon beraz mutikoak nola eginen zuen Baionatik hiri handirako bidea. Hain xuxen jaun bikarioa Baionako garan gertatu eta ikusi zuen mirikugaia jaun on eta prestu batekin abian. Uztaritzerat orduko, aratseko bederatziak baitzitazkeen, horra apeza Anderearen etxerat joaki. Atea jo.

— Jesus ! jaun bikarioa ! Tenore huntan ?

— Bai, andre. Zure semea treinean ikusi dut. X... dakizun jaunarekin egin beharra du piaia. Pentsatu dut atsegin zinukeela horren jakiteaz, eta berehala jin nizaitzu erraitera, gaua hobeki iragan dezazun...

Tapa-tapa itzuli zen etxerat, bainan Andereak hogoi-ta-hamar urteren buruan ez du oraino ahantzia orduko bikarioaren urrats hunkigarri hori. Baginuke bertzerik ere kondatzeko. Luzegi loake ordean.

Orok badakitz zoin jendekina zen. Maite zuen hauzoko apezkideak jin zakizkion ikusterat eta bazkariterat. Batzarre hoberena egiten zioten orori. Deus etzitzaion sobera heientzat : zituenak eta menturaz etzituenak ere emaiten zituen deblauki. Gehiago dena, laido bat bezala zitzaion, apez bat Beskoitzetik edo Arrokiagatik iragaitean haren ganat sar-atera bederen ez bazen agertzen.

Adixkideri zoin atxikia zen ez ditake erran : ordu lazgarri batzuez lagun, arras bereak uste zituen zonbaitek utzixea zuten, hoztu zitzaizkon, urrundu ere bat edo bertze. Ixil-ixila jasan zituen

hoztasun horiek, auhen bat, hitz minkor bat atera gabe. Behakoak zuen bakarrik salatzen bihotzeko gau ilun deitoragarria. Eta egiak argitu zuenean, beihalako adixkideak berriz hurbildu zitzaizkolarik, nehoiz nehork deus egin ez balio bezala, orori egin zioten itzal gabeko bere ongi-etorririk goxoena.

º º º

Nun aberastu eta azkartu zitzaion bada bihotza ? Jainkoa baitan. Oroz gainetik apeza zen Heguy jaun ona. Bazaukan Jainkoaren ohoratzeko eta arimen salbatzeko egina zela.

Eliza ama sainduak eztu nahi nork bere gisa ohora dezan zeruetako Nausia : bitxikeria asko asma lezakete zonbaitek, erlisioneari on baino kalte gehiago egin lezaketenak ; eta, deus makurrik ez asmaturik, ere, ezin adi ginezake elgar girixtinoek, hori bera makur handia bailitake. Horra zergatik liturgia erraiten dioten jakitate berezi bat finkatua duten. Apezek ikasi behar dutela, erran gabea. Haatik gutiak dira liturgia hortako zoko moko guziak ezagutzen dituztenak. Denek alabainan eztute hartze bera, ez eta gostu bera.

Heguy apezak biak bazituen : hartzea eta gostua. Harismendy jaun apez jakintsunarekin zoin lehenka ari ziren, Erromako liburu berriak bildu eta irakurri beharrez.

1910-ean Jaun apezpikuak galdegin zion Beskoitzeko erretorari, " Bulletin Religieux " delako aztekarian ager zitzan zonbait xehetasun, bertze apezen argitzeko. Huna eman dituen erakaspenen aurkibidea :

1910 : la rénovation des Stes Espèces, le vin de messe, le temps de la Septuagésime, les relevailles, la "Rose d'or", le temps de la Passion, la Semaine-sainte, les "Agnus Dei", le Conopée, le mois de Marie, la purification du ciboire, les processions du Saint-Sacrement, les funérailles, le drap mortuaire,

le "Subvenite", la première messe d'un nouveau prêtre, l'absoute, la distribution de la sainte communion.

1911 eta 1912 : La communion des religieuses cloîtrées et du clergé, l'oraison "Fidelium", la lumière électrique dans les églises, le triduum eucharistique, la messe d'enterrement, la messe votive du Sacré-Coeur, la messe de mariage.

Horien guzien berri hain ontsa zakienaz geroz, ezta harritzeko elizan urrats guziak ederki egitea nahi bazuen ere. Zerbait huts norbaitek egiten zuena bada, ai orduan kexu zen kexu gure gizona : oihu bat gaitza adiaraziko zuen, ba eta sunka bat berdin emanen huts-egileari ! Herriko jenderi etzitzaioten sobera gaitzitzen, bazakitelakotz Jainkoaren ganako kar berezi batek zerabilala.

Bertzalde arimak salbatu nahi zituen. Hortako behar zituen lehenik ezagutu. Herri batetarat-eta, urte bat gabe, bazazkikeen horko ahaidetasun guziak. Ikusiko zuten, bere liburua eskuan, etxez-etxe ibilki, izenak eta adinak galdez. Geroztik, xehetasun horiek bazakitzan etxeko zoin nahik bezain ontsa, eta ez bakarrik etxean zirenenak, bainan etxetik urrun zabiltzanenak ere ; haren gogoan eta orroit-menean finkatuak zauden liburuan bezain ximenki. Askotan jendeak harritzen zituen, ziolarik : " Zuek baduzue osaba bat edo kusi bat, Pette edo Gaaxina, Ameriketan, zuek Bordalen, zuek Parisen. Hoinbertze urte ditu. Batitaren eta Madelenaren artekoa da." Eta holako.

— Jauna, zuk oro badazkitzu, beraz ?

Izen eta gaineratekoen jakitea bada zerbait, bainan behar baitzaiote jenden gora-behereri jarraiki ! Heguy apezak ororen berriak galdatzen zituen, orroituz haatik zer aipatu behar zen eta zer ixildu, huts edo samurgo zerbait bazelarik etxetan. Behar orduan lañoki emandn zion edo-zoini konseilu on bat, zonbait eta zonbait ederki baliatu baitira.

Gazteria zuen berøziki maite : usu bere ganat biltzen zuen,

bihotzeko berriñoak ikertzen zituen pollikiño eta norberari erakusten nola ibil xuxen eta garbi.

Bertze gauza guzieri ere ohartua zagon. Ez dutea behin plaza erdian ikusi eskuaren bizkar-behera emaiten gizon gazte bati :

— Hor duzuia bederen abituia ?

— Ah ! Jauna, barda atorra aldatzean kendu eta, etxen utzia dut!

— Hori gaizki...

Harekin etzen eskapurik !

Hortako zuten gaztek ere hanbat goresten : hortako zitzaizkon hain luzaz atzikiak. Santa Grazitik Beskoitzerat eta Beskoitzetik Arrokiagarat joan zaizkon ikusterat urteren buruan. Duela bi urte, hogoi-ta hamar bat bazituen elgarrekin jinak : zorigaitzez huts egin zuten.

Buruz-buruan jendeak argitzen zituen segurki, familietan ere bai, bainan predikuak zituen bere argi-bide handienak. Izkiribuz apaintzen zituen gutiz gehienak, ginarriz joritzen zituelarik eta eskuara garbiz edertzen. Irakaspen hainitz, lore guti, haren hitzaldietan. Diharassary handiaren eite gehiago zuen Arbelbiden baino. Bizkitartean inarrosten zituen bihotzak, berari bihotzetik ateratzen baitzaizkon solas guziak eta bozak ere ezin ederkiago laguntzen baitzuen. Latinak dio : " Si vis alios flere, flendum est ipsi tibi". Nahi baduk nigarra jauz-arazi, hihaurek nigar egizak lehenik... Hori behin baino gehiagotan ikusi izan dute Beskoitzeko elizan, aditzaileak eta predikaria hipaka.

Irri egin-arazten ere zuen noizean behin. Abendoko azken igande batez, ezkontzez zuen solasa eta huna nola zen mintzo :

— " Giristino maiteak, aurten ezkontzak herri huntan hiru lerro-lerro. Zer ari zauzku bada gure gizon gazteak ? Ba, funtsean, ez naiz estonatzen eta arrazoin dute. Arras ergelean ditugu neskak, karakoilak bezala etxe guzia soinean ! "

Arras aipatua zen predikari gisa. Eskual-Herriko eliza gehienetan entzun dute. Hamabortz urte Santa-Grazin bikario eta erretor izanik, berak zion Xuberoko herri guzietan predikatu zuela, batean salbu.

Argia, gauza beharra girixtinoentzat. Bainan, eginbidea ezagutuz geroz, haren betetzeko indarra behar baita ! Sakramenduak graziaren iturri aberatsak izanki-eta, hetarat jarraikarazten zituen arimak. Huna hitz-hitz adixkide batek igortzen dauzkun bi lerro : " Liburuak garbi eta klar uzten zituen beti eta haren ondoko edo segidako ertorek diote ez dutela geroztik gizonez komunionea segitua ikusi nola baitzen haren denboran, bereziki Beskoitzen." Lerro horien irakurlek asko gogoeta egin dezakete. Hau segurik ba : holako arima biltzale batek behar zuela egiazko apez kartsua izan.

º º

Eskualdun suhar bat ere zen. Eskuara errotik ezagutzen zuen eta jakintsuneri argi hainitz eman diote behar orduan, hala nola Azkue jaun apez aipatuari ba eta orotan ezagutua den Gavel jaun onari. Horra zergatik Eskualzaindiak lagunkide izendatu zuen.

Lerro hauien egileak esker bereziak zor diozka. Artikuluetan huts bat edo bertze atxemaiten ziolarik, Arrokiagako erretor maiteak igortzen zion hori ontsalaz hola erran behar zitakeela, eta holako. Irakasle hoberik eta lañoagorik izan ote da nehun ?

Etzuen irakusten bakarrik. Lanean ari zen. Kazeta andana bat irakurtzen zituen zokoz-zoko, berrixka eta bitxikeria keta. Aurkitu arau eskuaraz ezartzen zituen, gehienetan iratxikitzen ziotelarik han-hemenka biper eta gatz. Noizetik noizerat holako sailari lotzea, josteta ditake. Bainan aste guziez jarraikitzea bertzerik da. Gaixo Heguy, zonbat aldiz ez ditu Eskualdunaren edo berdin Almanakaren irakurleak jostatu, bera etzelarik batere josta gura, ez eta irri gose ! Haren hutsa ez dute aise beteko...

Gure Herri-rat aurten ginuen bildu eta loriatuak ginauden lagun balios bat eskuraturik. Zorigaitzez ametsa bezala histu zaiku bi ilabeteren loria !

Ez duguia bada engoitik sekulan irakurriko zendu gaixoaren lerro aldi goxorik ? Ez etsi, otoi, adixkideak ! Yulian apezak bazuen egina Maiatzeko liburu eder bat. Ez dugu galtzerat utziko. Hegalak emanen diozkagu egun batez, Eskual-Herriko lau bazterretarat joan dadin, arimen salbagarri eta bihotzen xoragarri.

ººº

Orai milesker, Heguy jaun handi eta maiteaz mintzatu zaizkiguneri. Gizon bat zen gutik ontsa ezagut zezaketena. Atseginekin hartu ditugu alde ala ez alde erran dauzkutenak oro eta hemen ezarri, denek ikusteko gisan nolako gizon, apez eta eskualdun goresgarria zen, Jainkoa baitan itzali zaikun lankide eta adixkidea.

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1930
Nº 4. Juil-Août
pp. 312-321.

AZKAINEN

Errana dugu jadanik nola bozkariatu gituen Elissalde jaun apez adixkidea eskualzain izendatua izan delako berriak.

Hamabi eskualzainek beren biltzarrak Bilbaon egiten ohi dituzte. Bainan ikustatez nahi izan dute beren lankide berria haren sort-herrian, Azkainen, errezebitu.

Hazilaren hogoi-ta zazpian eskola girixtinoko barne zabala heien eskuko emana izan zen. Harat bildu da, aroa ez zelarik bizkitartean hanbatekoa, jende frango.

Aratseko seiak irian haste. Azkue jaun apez jakintsun handia zen ororen buru. Haren inguruan ikus zitazken Azkaineko jaun erretora eta jaun auzapeza, bai eta eskualzainak beren xingola berezíekin.

Behatzale etorri zitzaizkun mendiz haraindiko eskualari andana bat, hala nola M. de Urquijo, Ormaechea, Jaureguy eta bertze asko. Elissalde jaun apezaren aita xaharra ere hor zen, beti bezain erne, semearen ohorez hain bat hunkitua. Harekin batean bertze ahaideak eta Azkaineko adixkideak. M. Léon, Baionako lycée-an irakasle den jakintsuna bere andrearekin jina zen.

Hiru Uztariztar ere ezagutu ditugu : Louis Dassance, Eskualzaleen Biltzarreko jaun buruzagia, Goyenetche jaun miriku aipatua eta Lafitte Gure Herria-ko jaun apez idazlaria.

Elissalde jaun apeza da lehenik mintzatu. Agur egin diote hasteko bere lagun berrieri eta aitzina joan da bere solasari. Nahi izan du irakutsi nolako langile suharra zen Landerreche jaun apez zena eta zer lan gaitzak bururaturik zendu den ; gero laburzki aipatu dauzku berak eginikako ikertze batzu, xori izen eta landare izenen ondotik nola dabilan beti usnaka. Xori eta hegaztinen izenak Gure Herriak argitaratu zituen duela zonbait urte. Badut uste

lore eta landarenak ere hemen ezarriko dituen egun batez ; ez zaiku batere dolutuko : Azkainen eman dauzkun izen eder eta bitxiek ja atsegin handia egin baitaukute. Azken zatian eskualzain berriak berriz ere eskuara goretsi du eta erran nolako karrarekin lotzen zaion eskuararen begiratzeko eginbide nekos bezain maiteari.

Orai Lacombe jaunaren aldi. Huni zoakon alabainan " ongi etorri " egitea. Hunaindiko eskualzale batek ez ote zuen behar ohore hori ?

Erran dauku lehenik Eskualzainek nahi izan dutela lapurtar garbi bat hautatu eta ez ditakela izan Elissalde jauna baino Azkaindarragorik, aita amak biak azkaindarrak izanki-eta. Gero jaun horren bizitzea eta lan ederrak aipatu dauzku eta behar bezala handietsi. Landare izenez bi hitz atera ditu berak ere : Lakoizketa, Althabe, Larreko jaunek hainitz bildu izan dituztela ; Elissaldek heien uzta behar duela oraino joritu ; gero bilatu beharko dela zoin diren izenik zaharrenak, zoin diren latin xaharretik heldu, zoin bertze erdaretarik ; hots, lan gaitza dagokiola eskualzain berriari, lotu zaion sailaren bururatzeko ; bainan gaztea beti gazte eta kantu zaharrak diona, neke guzien artetik ere :

Gaztetasunak bainerabila
Airian ainara bezala.

Berriz ere egin dio Lacombe jaun onak ororen izenean ahalik eta ongi etorririk goxoena eta eskualzain medela eman dio lepotik.

Denek orduan Elissalde jaun apezari beren dohesmen eta zorionak eskaini diozkate eta guk hemen bihotzaren erditik erreberritzen diozkagu Gure Herria-ren izenean.

P. ITHURRALDE.

GURE HERRIA
1930
Nº 6. Nov.-Déc.
pp. 517-518.

Zahar eta berri

Huna buruilaren 14-eko Eskualtzaleen bilkura-egunean P. Lafitte apezak Luhosoko elizan eman duen hitzaldia.

Adixkide maiteak, gure biltzarra bazterretan hedatzen ari dela diote. Hastapeneko eskualtzaleri lagun gazte hainitz heldu omen zaizkote alde guzietarik, azkar eta kartsu. Hobe segurki, ezen mende huntako hersturetan bere haur guzien beharra badu Eskual-herriak. Bainan jitez hain alderdikariak gira oro, non hainbertze gizonen arteko batasunaren hausterat errexki baginauzke : zaharrek lehengo egitekoez espantu : denboran hau, hori eta hura, denak eder ; gaztek gauza berrientzat baizik eskerrik ez ; zaharrek gazteak arinegi kausitzen, gaztek zaharrak uzkurregi...

Eztapada itsusi horiek behin betikotz suntsitu behar dira, eta nehork ez ahal du arrotz atxemanen erlisioneari galdegiten badiozkagu auzi horren xuritzeko argiak.

Jesusek hitz batez bi aldekoak elgarretaratzen ditu, diolarik : " Doctus in regno coelorum similis est homini patrifamilias qui profert de thesauro nova et vetera (Matth. XIII, 52). Zeruko erresumaren jakitatea duenak, iduri du bere kutxako ontasun zahar eta berriak baliatzen dituen etxeko jauna." Nova et vetera, zahar eta berri, denak !

Beraz ikus dezagun zergatik eta nola eskuz-esku ibili behar giren zahar-gazteak oro, lehengo eta oraiko egitate txarrak bazterrerar utziz, lehengo eta oraiko urrats oneri jarraikiz, gure Eskual-Herri maitearen onetan.

♀ ♀

Gazteak zonbait aldiz kexatzen dira, burasoek erraiten diotelarik: " Haurra, gure xaharrek hala egiten baitzuten, guk ere berdin behar diagu. " Harriturik daude zertako behar diren arbasoen ondotik ibili, hatzez-hatz, bi begiak hetsirik eta ezin sinets dezakete zahartzeak berak den gutieneko usaiarik ontzen ahal duela. Arrazoin dute. Zahartzea ez da aski, ontzeko. Bainan iduri bazaiote usaia xaharrak ustegabetarik sortu direla, osoki makur dabiltza.

Gure aiten aitek bazakiten zer ari ziren : abenda edo arraza baten zuhurtzia, arraza hartako adimendu gehienen bilduma bezala da : aitasoren jakitatea, aitak biltzen, semeak joritzen, semetxiak emendatzen ; ororen artean bana-bertze ba ahal zaizko bide onari ohartu. Bai, utzi dauzkuten usaia gehienak, onak zirelakotz, utzi dituzte bizitzerat : usaia horiek onez xahartu dira, eta ez xaharrez ontu. Adina, oneziaren seinalea baizik ez dute. Horra zergatik atxiki behar diotegun xaharreri begirune edo errespetu handi batekin.

Arbasoek erakutsi daukute bereziki herriaren, mintzaiaren eta Jainkoaren maitasuna.

Eskual-herria ez dute mihiz, bainan egitez maitatu ; ez dute handia zelakotz maitatu, bainan ba berena zutelakotz ; eta maitez handitu nahi izan dute. Duela hogoi-ta-hiru mende Eskual-herria Kalahorra-ondoko eskualde ttipi bat zen : Nafar-hego aldearen jabe zen bakarrik. Bainan Eskualdunak ez zauzken beren muga hertsietan : emeki-emeki Nafar guzia beretu zuten, Alaba irabazi, Gipuzkoa eta Bizkaia mendu eta, bertze lurretan nausi egoiteko, Erromanoak, Gotarrak, Moroak garraitu behar izan zituzten. Gero, seigarren eta zazpigarren mendetan hunat jautsi ziren Garaziko mendietarik eta Garaziko mendietarik eta Frantzia behere hau guzia hartu, Bordale-raino. Zer Eskual-herri ederra zitakeen orduan. Ebreo ibaietik Garona-rainoko eremu zabala ! Nahi eta ez, orroitzapen handi horiek gogoratzean, Zaldubi zenaren bi neurtitz eder hauk heldu zaizkit ezpainetarat :

Oi gure arbasoak, ez otoi, ez beira,
Zein goratik garen gu jautsiak behera !

Ai, Jaunak, arrotzen eskuetarik gure lur eta etxaldeen begiratzeko, gure aitzinekoen karraren laurdena ere baginu, zerbait bagintezke... Zoin bihotz-erdiragarri den ordean egungo eguneko hainbertze gizonen nagitasun eta ezaxolkeria !!!

Jesus, arats-apal batez, mendixka batetik beha zagon Jerusalem hiriari eta nigarrez hasi zen, baitzakien herri-nausi ederra batasun eskasez etsaien meneko ororiko zela. Eta asperen batekin erran zuen : " Jerusalem, Jerusalem, zonbat aldiz nahi izan ditut zure haurrak elgarretarat bildu, oilo-amak bere xito aldea hegalpean hartzen duen bezala, eta zuk ez duzu nahi izan !" Zer bihotz-mina Jesusentzat ! Zer erakaspena eskualdunentzat ! Bai, elgar adi dezagun guziek eta ororen artean gure sort-herria guretzat atxik.

Gure arbasoek erakutsi daukute eskuararen maitatzen. Ez dute hura ere begiratu bakarrik, bainan bertzetarat hedatu ere bai. Bazakiten nun-nahi agertzeko on zela, eta beharxko izana gatik bere baitan aberasteko gaiak bazauzkala ihaurri... Jaunak, zuek ere maite duzue eskuara, zuen egin-ahalak egin nahi ditutzue etxean, eskoletan, karriketan haren atxikitzeko. Bide onean bazabiltzate.

Jesu-Kristo gure jaunak bere sort-herriko hizkuntzaz bertzerik ez du nehoiz erabili : haren denboran baziren segurki mintzaire handi ospetsuak, hala-nola latina eta greka. Gizoneri gogoratu liburu ederrenak bi hizkuntza hoitan eginak ziren. Nahi badu ba, bainan Nazareth-eko arameanoa aski zitzaion Jesusi eta mintzaire xume horren bidez Jainkoak nahi izan ditu salatu hogoi mende huntan mundua derabilaten irakaspen salbagarriak. Beraz, gure eskuara ez balitz ere den bezain mintzai goxo, erne, harrigarria — erresuma gehienetako jakintsunak ondotik baidabilzko — halere, gurea delakotz, behar ginuke zaindu, Jesusek berea begiratzen zuen bezala.

Arbasoek erakutsi daukute Jainkoaren maitasuna. Eskualdun fededun ! Ez dakigu xuxen noiz sartu zen fedea eskualdunen artean, ez eta hain aise utzi ote zuten beren lehenagoko erlisionea. Dena den, girixtinotu baziren, girixtinotu ; saindu handiak eman

dituzte Eliza ama sainduari eta nehoiz ez dira sineste gabeak edo sineste makurrak gure eskualdetan nausitu ahal izan. Orroit nola gure arbasoek Moroak ohildu zituzten Tolosako nabasetan ; orroit nola hamaseigarren mendean gogor egin zioten Higenaut ausarteri ; orroit azken berrogoi urte huntan nola Elizari gaixtagin batzuek egin zauriak artatu eta osatu diozkaten, apezgaitegiak eraikiz, obra on guzieri esku emanez. Moltsaraino eta odolaraino doan sinestea, sineste zin eta garbia !

Bai, atxik ditzagun gure ohidura sainduak eta Matatias xaharrak hiltzean bere semeri egin zituen agintzak gure alde beteko dira : Mementote operum patrum quoe fecerunt in generationibus suis et accipietis gloriam magnam et nomen œternum (1º Machab. 2-51). Ez ahantz arbasoek eginikako lanak eta ukanen duzue lurrean ospe handia eta zeruan betiereko izena.

º º º

Bainan ohidura guziak ez dira, hurbiltzekorik ere, zuhurtziaren umeak. Gure aitzinekoek beren itzalak bazituzten, gure gisa, eta itzal horiek ez dituzte beti berekin lurperat ereman. Herexak gelditzen zaizkigu bai odolean, bai usaia xahar batzuetan. Izpiritu sainduak pollikí erraiten dauku : " Aitek ontu gabeko mahatsa jan zuten, eta haurreri haginak hoskildu." Hala-hala ohidura batzu jakin-eskasak eta alferkeriak sortu dituzte : dela basa-sineste, dela basa-mirikuntza, eta ez da harritzeko han-hemenda gazteak asperturik ere, aitak tresna edo onkailu berririk ez nahiz, etxeko lan-moldea beti xuhur, beti gibel-aire ikusten dutenean...

Aitzinamenduaren alde agertu behar da eskualdun girixtinoa, eta gauza berriek ez dute batere izitu behar. Ez du horrek erran nahi berrikeriak oro onhartzekoak direla. Ez, hainitz badira hutsalak, dena axal, dena dirdir eta itxura, barnean deus onik gabekoak. Holakoen beharrik ez dugu. Alegiazko aitzinamendua liteke heien onestea.

Guk egiazkoa nahi dugu eta erlisioneak gitu hortarat hertsatzen. Ebanjelioaren arabera, ez ditugu neholaz gure indar eta ahalak larre joaiterat utzi behar ; beti handituz eta jorituz joan behar zaizku eta hanbat gaixto nor bederarentzat bere talenduak ez baditu baliarazten. Ez da zeruan sartuko.

Beraz erna gaiten, gazteak ! Ez egon uzkur eta mutur jakitateak emaiten dituen errextasuneri ; erreberri, gora eta aberats dezagun gure eskualdeaa; lur langileari ekar dezogun zorion gehiago ; etxeko-jaunek elgar lagun eta elgar susta dezatela ; hots ! oldez eta moldez, beti xenda berean ibiltzeko orde, abia giten aitzinamenduko erregebide zabalean. Eta zuek bereziki, Eskual-ikasle maiteak, emazue gogotik zuen lanari : egun batez gutarteko buruzagi beharrak, zatozkigute eskoletarik, gogoa argi, nahikundea azkar, bihotza bero, zuen eskuetan Eskual-herria beti aitzina joan dadin etorkizun dohatsu bati buruz.

Bainan kasu ! Kanpotikako aitzinamenduak ez dauku berak zorion handirik ekarriko. Jakitate, indar, diru, horiek oro badira zerbait ; bainan ontasun horiek nola erabiltzen ditugun, hortan da gure zorionaren goiti-beheiti guzia. Zuzenkontra baliatzen badira, zoin dohakabe bazterrak : oro ahalge, ohointza, hiltze, eritasun eta gerla ! Zuzenki baderabilzate, zoin dohatsu ! Bila dezagun bada lehenik bihotzeko zuzentasuna. Izan giten girixtino zintzo eta argituak. Bai, argituak ! gure bertze jakitateen heinerat bederen hel-araz dezagun gure erlisionearen jakitatea. Bertzenaz nola nahi duzue gure haurreko katixima izpi harek begitarterik ere izan dezan hogoi edo berrogoi urtez bildu dituzkegun bertze irakaspenen aitzinean ! Girixtino-urratsak begiratuko ditugula halere, baditake ; nork erran ordean nolako sineste ahularekin ! Bainan girixtino aitzinatuak balinbagira, argituak eta sakramendueri jarraikiak, ai ez dugu orduan zeren izi. Jainkoa gurekin eta Izpiritu sainduak lagunkuko gitu zuzentasunean bazter guzien erreberritzen. Emitte Spiritum tuum et creabuntur, et renovabis

faciem terræ.

ººº

Jaunak, badut aski erranik. Ikusten duzue nola aspaldiko ohidurak eta oraiko urrats berriak elgarrekin joaiten ahal diren, zahar-gazteen arteko deus berexkunderik gabe. Behar ere. Bertzenaz zer bilaka litake denak bat girelako errankizuna ?

Bai bat gira, ez bakarrik herriko eta herriz kanpoko eskualdun guziak, bainan gisa berean hobirat aitzinatu gituztenak eta gu. Eta lur gaixo hau, bere azken itzulia eginik, betikotz geldituko delarik, agian Eskualdunak oro bat eta dohatsu aurkituko gira, edertasun beti zahar eta beti berria den Jainkoaren aitzinean.

P. LAFITTE.

GURE HERRIA
1933
Nº 5. Sept-Oct.
pp. 397-402.

ARAUDIA

Irakurle zonbaitek xehetasunak galdegin dituzte mendiz bertzaldeko estatuto edo araudiaz. Gogotik emaiten ditugu. Barkatu, laburregi kausitzen badituzte edo... luzegi. Denen gostukoa nork egin ?

HASTAPENAK.

Bidasoz haraindiko gure anaiak osoki zapalduak ziren eta kasik etsituak 1876-eko nahasmenduaz geroz. Deusetako kalipurik ez. Canovas del Castillo-k egunetik egunerat biltzen ari zituen eta emeki-emeki espaiioltzen. Halere eskuarari eta Eskual-herriko ixtorio xaharrari atxikitzen ziotenak bazirenn; bainan politikaz etzen aipamenik ere, salbu Arana Goyri-ren adixkide bakar batzuen artean, salbu ere Donostiako bilkura ederrean (1893) Eskualdunek atera zituzten oihu saminak.

Horra bada nun 1905-ean Liga-foral delako batasun bat biltzen duten, Eskual-herriko zuzenen alde : Gascue, Olazabal eta Valdespina-ko markisa agertu ziren buruzagi.

Heien asmu eta xedeak hedatu ziren eta hamabi urteren buruan (1917) Bizkaia, Alaba eta Gipuzkoako hiru Diputazionek Espainiako erregeari galde bat igorri zioten, baizik-eta Eskualdunek nahi zituztela beren zuzen xaharrak parte bederen kobratu. Galde horren sustatzale eta zurkaizle izan ziren lau gizon famatu : Zabala, Chalbaud, Senante eta Pradera. Agintza ederrak ukan zituzten, bertzerik ez.

Bainan agintzek gizona gosetzen omen dute. Handik seigarren urtean, Primo de Ribera buru zelarik, beren galdea berritu zuten araudi edo estatuto bat eskaintzen zutelarik, erran nahi baita hautsi-mautsi bat. Alabainan bazakiten lehenagoko zuzen ber-berak

nehundik ere etzituztela onhartaraziko. Primok etzuen den gutieneko libertaterik utzi nahi izan. Hori 1923-an zen.

Primo erori, errege ihes joan, errepublika jarri. Berehala abertzalek nahi izan zuten baliatu nahasmenduaz eta lauek bat egin : 1931-an berean ezin heldu baitziren, 1932-an bozkatu ziren lau eskualdeak ; bainan Nafartarrek araudiaren kontra egin zuten, laurdenaz bertze guziek. Zer atsegabea !

Aurten Nafarra bere gisa utzirik, bertze hiru aurkintzek jo dute berriz bozetarat : parado ona zuten : Madrillen funtsezko gobernurik ez, eta bazterrak frango gauza itsusiz asexeak.

BOZAK EMAITERAKOAN

Madrilleko jaunek deliberatu zuten, araudiaren ardiestekotz, beharko zirela ehunetarik 66 boza. Lan gaitza, hoinbertzeren biltzea ! Beharrik bi urte hautan bazterrak harrotu baitzituzten abertzalek, dena bilkura, dena hitzaldi, dena kaseta. Azkenean, heien etsaiak ere, tradizionalista moltxo bat salbu, guti edo aski berotuak ziren estatutoaren alde.

Ezta segur harritzeko, ikus-eta zer on dakarken antolamendu horrek. Bertzeak bertze, Eskualdunen arteko batasuna osatzen du hiru herrialdetan ; gizon gaztek Eskual-herrian berean dukete soldadogoa ; eskola eta auzitegietan eskuara haizu erdara bezain ontsa ; ikaskuntza Españolen aztaparretarik kendua ; zerga gutiago pagatu behar ; erlisioneak esku gehiago izaki...

Abertzaleen alderdia (parti nationaliste) eta Abertzale-ekintza (action nationaliste) ororen buru jarri dira, nahiz azken hunek ixilik dauzkan Elizaren zuzenak. Hemezortzi jaun izendatu dituzte herriek, araudi hortaz arta hartzeko. Hemezortziek deliberatu zuten jende guziak bildu behar zituztela eta boz-eman arte nehori etziotela ez laidorik ez eta pikorik ere eginen. Mitin-ak debekatu zituzten beren aldekoeri, holako bilkurek nahi-eta-ez kontrakoak sumintzen dituztelakotz : berek hautatu paperekin argitu nahi izan

dituzte boz-emaileak eta berek berexi hizlariak baizik ez dira radio-z ez bertzela mintzatu. Denak izariz eta zuhurki kudeatu dituzte.

Zozialistak, errepublikanoak eta alfonsistak zinkulinarik gabe etorri dira araudia-ren alde, ez segur bertzeak bezain kartsuki, bainan halere ; Tradizionalistak dena estakuru ziren, fueroak har edo utz direla eta hautsi-mautsiak ez duela deusik balio, bereziki erlisionearentzat. La Constancia delako egunkariaren aburua zen eta haren kideko zonbaitek agerki bat hedatu zuten, baizik-eta Jose Antonio Aguirre eta haren aldekoak girixtino saldu eta arnegatuak zirela. Bertzalde dei egin zuten Madrillerat, otoi gobernuak bozak luza zitzan eta berant zitzan.

Bainan kenka txar hoitan buruzagiek ez dute durduzarik izan eta laguntzaileak ere jin zaizkote gutienik ustean : Azaña-k onetsi du araudia eta errepublikanoen duda-mudak ondarra-itzali dira ; Tradizionalistak, elgar ezin adituz, bi alde eman dira : Perez Arregi eta Elorza-k araudia goraki handietsi dute ; Apezpikutegiak jakin-arazi du Aguirre nor-nahi bezain girixtino zintzoa zela eta abertzaletasunak ez duela erlisionearen kontrakorik deus ; azkenean Gobernuak berak ezagutu du nor ziren luzamen galdatzaileak eta antzara ferratzerat igorri ditu.

BOZKATZEA.

Erran ditake traba edo eragozpen guziak kenduak zirela hazilaren bortzeko.

Jendea xinaurria bezala bazoan egun hartan boz-emaiterat : goizean goiz Jaun apezpikua bere eginbide horren betetzerat joan zen Gazteiz-eko herriko-etxerat eta berria bazter guzietarat hedatu zen zonbait orenik barne ; gero jakin zuten Urquijo jauna araudiaren alde bozkatu zela bere andrearekin : harrigarriko berria hau ere, jaun hori tradizionalisten deputatu-ondoa izaki, eta haren andrea Olazabal aitzindari karlista zenaren alaba, Uste izaiteko da asko

jende sustatu dituela urrats horrek.

Zer nahi den, Madrilletik, Barzelonetik, Valladolidetik baziren boz-emaileak trumilka etorriak. Bidaia luzea zuten, bainan eginbidea zer-nahi baino handiagoa zaukaten.

Halaber Eskual-herrian langile dauden Katalandar eta Galaztarrek sor-lekutik bazituzten aholku beroak, otoi boz-eman zezaten libertatearen alde ; ezen eskualdek elgar lagundu eta gogortu behar dute, gobernuaren aztaparretarik begiratzeko...

Eta herri guzietan, gazte ala zahar, jaun handi ala jende xehe, gizon ala emazte, apez ala serora.... boz-emaileak boz-emaileri jarraikitzen ziren autarki-biltokietan : ikustekoak omen ziren agure eta atxo maiteak, beren ilobasoek ahal bezain polliki besotik zeramatzatela ; ehun eta hiru urteko emaztekiño bat ere izan da boz-emaiten Euzkadiren alde. Etzena bada hunkigarri ?

Bertzalde nola ez aipa bederen abertzaleen karra ! Beribilez badute zonbait itzuli eginik igande hartan ! Urrungo jendeen bila, erien bila bazoazin pirrikitan : bat etxetik har, boz-emaiterat ereman, berriz etxerat ekar eta jo aitzina bertze baten laguntzerat.

Gauerdi irian jakin zuten Eskualdunak Eskual-herrian nausi zirela eta bozkario handi bat hedatu zen bazter guzietarat : ehunetarik 66 behar-eta, 80 boza bazituztela zioten eta baldituak ziren arrotzak bezala Tradizionalistak ere. Frantzian egunkariek gorde zituzten artoski xifre horiek, bai eta zonbaitek ttipitu ; hainbertzetaraino ttipitu, nun dudan baitzauden estatutoa onhartua zen ala etzen.

Ondoko ortzegunean gobernuak berak hauxe aitortu zuen : 490.157 bozemailetarik, 411.756 alde agetu zirela, 14.196 kontra, gaineratekoek etzutela bozik eman. Beraz ehunetarik 84 bozetarat heldu izan dira, araudiaren aldekoak : gainez-gain ereman dute partida.

Gure zorionak orori : agian hain hastapen ederrari araberako ondorio goxoak jarikiren zaizko, Eskual-herriaren onetan.

GURE HERRIA. 1933. P. LAFITTE.
nº 6. Nov.-Déc. / pp. 481-485.

Lan eskasa

Egungo egunean mundua ateka gaixtoan dugu. Azken ilabete hautako gertakari izigarriek erakutsi daukute ez ditakela nehoren baitan fida geiago : jaun edo andere handi bati eskua emaiten diogularik, ez dakigu batere, ohoin handi bati, gizon hitzale bati ez ote diogun ahurra tinkatzen. Gaizkia oihan zokoetarik jauregi ospatsuenetaraino hedatu da, ezin erranezko hatsean.

Bainan, nahiz-eta odol-ixurtzeak eta diru-ebasteak eta bertzelako itsuskeriak oro gauza zikin eta ikaragarriek diren, — berezi gobernu batek, gaztigatu orde, estaltzen edo ixiltzen dituelarik, berak egin balitu bezala, — iduri zaiku badela halere bazterretan makur handiagorik.

Bai, heda ditzagun begiak lurreko lau izkinetarat : zer ikusiko dugu ? Hogoi-ta-hamar miliun gizon lanik gabe... erran nahi baita, heien etxekoekin batean, ehun miliun jende segurik gosearen beha !

º º

Ai ontsa baginaki zer den lanik gabeko gizona, harritzak gintezke !

Laneko gogoa ba, osasuna ona, beso-zangoak azkar, behar-bada ere esku-aire jeinutsua... eta, halarik ere, deus egin gabe egon behar hil baten pare !

Zer ahalge samina, sendimendu izpi bat daukan langile ohiarentzat ! Eta hila bezain guti dela erraitean, ez dugu aski erraiten : langabea hila baino areago da.

Hilen girelarik, zilo batean aurdikiko gituzte ahalik lasterrena, eta hortan kito ! Ehorzteko gastuak egin, eta gure zendu gaixoak

ez zaizku gehiago fitsik gostatzen... Langabea aldiz ez da itzaltzen : hor dago langileen artean, ororen bizkar, oroi aiher, etxekoen poxelu, auzoen nardagarri.

Hilak ez zaizku beren hobietarik ateratzen. Langabea aldiz arima herratua bezala badabila ezker eta eskuin, bere buruaz ahalgetua, eta luzara herra ere pizten balitzaio bihotzean, nor harri ?

Aspaldiko errana da " alfer egoiteak ez duela ez gogoeta onik, ez xede garbirik emaiten ", eta bertzalde " goseak ez duela legerik ". Zer gertatuko da, gosea eta alfer egoitea elgarren lagun badabiltza ? Norat edo zertarat derakarkete gizon lanik gabekoa ? Dohakabe horiek egun batez elgar aditzen balute, zer gudulari-aldea egin lezaketena !

Ikusi dira lehenago holako armadak Europa bazter guzietan. Hamabigarren mendean Eskualdunak ere baziren, lanik ez izanez jo harat, jo hunat, bazabiltzanak, bidez-bide, hemen elizetako urre eta zilarrak ebats, han jauregiak erre, hor berriz bidelanteri sakelak mia... Segur gauza pollita zen !

Badakigu nahaskeria horiek ez luketela nehorentzat ondorio onik : badakigu guk, makur berri batek ez duela nehundik ere makur xaharra xuxentzen ahal... Bainan behar gorrian daudenek egiten dutea hoibertze gogoeta ? Eta, etsituan etsitu, edozoin aldakuntza ez ote dute entseatu nahiko, berdin orai baino makurrago ez direla ateratzen ahal, zer nahi gisaz ?

Horra bada ateka ilun eta gaitz-bide ikaragarria ! Anartean gauzak erdi-ontsa johan balire ! Bainan jadanik izitzeko ere bada. Bresil-ean kafea hain nasaia dute, non treinetako ikatz gisa baiterabilate ; herri-alde batzuetan ogia hanbatetaraino soberatua dute, non erretzen baitute edo alkool bilakarazten ; Holandan berriz xerri-kumeak ezin salduz milaka ito dituzte, joan den neguan, itsasoan barna... Eta jatekoak hola xahutzen, funditzen eta suntsitzen diren tenorean, zer ikasten dugu ? Munduko lau

bazterretan jende goseak miliunka badirela. Nola aipa azken ilabete hauietako nahigabe gorriak ? Nola konda Rusiako, Xinako, Indeko hersturak, bihotzean halako bat senditu gabe ? Hango karriketan gizon batzu ateratzen dira karsoil, mehe, idor, eihartuak, larrua hezurrari datxikola, begiak dilindan, ahulez herrestan ibilki, pilda zerbait bizkarretik, alegia bezti : bizitzeko ondar-entseguak eginak dituzte ; zakurrak jan, garratoineri lotu, zonbaitek beren haurrak ito, eta orai lur jaten, sabela nolazpait behar dutela bete...

Latz batek hartzen zitu, xehetasun horiek irakurtzean. Alta bada gosetea oraino hasten da hedatzen. Nork daki nolako eremu handiak irabaziko dituen, ez badute lana hobeki zatikatzen ?

ººº

Nun da makur handi hauien iturburua ? Askok erranen dautzute : tresneria. Erran horrek kanore puxka bat baduela, ez dugu ukatuko. Frogak ihaurri dira bazterretan.

Bretaniako eskualde batean, laborariek negukari gasna atxikitzeko untzi bereziak egiten zituzten : taula bat har, xerrendaka eman, zur-xerrenda horiek eskuz molda, lot eta hets, bazeramatzaten beren arastiri luzeak, sos kotsua irabazten zutelarik. Bainan horra nun norbaitek tresna berri bat asmatzen duen. Atxemarta horri esker langile bakar batek hiruetan hogoien lana egin dezake... Zer makurra Bretaniako laborari frangorentzat lanbesa horren aurkitzea !

Berdin gertatu da burego batzuetan. Lehen idazle edo izkiribatzaile andana bat behar zen konduen atxikitzeko. Orai aldiz mekanikak badira konduak ateratzen eta edukitzen dituztenak. Mutil gutiagorekin antola ditazke beraz lantegi handienetako nausiak.

Gauza bera laborantza alha den eremu nasaietan ; ogia berak epaiten eta azaukatzen duen mekanika batek, lehen sei gizonek egiten zutena orai langile bakar batekin egiten ahal du. Xuberotar

batek erraiten zuen polliki : " Tresna berri horiek lana besoari ebasten zeiozie."

Hersatzen gituen gaitza, nola behar dugu sendatu ? Behar direia mekanikak purruskatu eta urean barna igorri ? Behar duguia brabana erdoiltzerat utzi eta gure xaharren golde bakuna berriz hartu ? Eletrika kendu eta lehenagoko arrexina piztu ? Beribilak eta burdin-bideak suntsitu, pottoka edo astokumeen ohoretan ?

Ez, guk, eskualdun gaztek, ez dugu holakorik onesten. Egia den bezala erraiteko, tresneriak ez du oraiko makurretan hobenik. Aizkora eta ganibeta, lanbesa izigarriak dira gaixtaginen eta haur xumeen eskuetan. Hori aski dea munduko ganibet eta aizkoren gaitzesteko eta ezeztatzeko ? Ez eiki : jendeak ontu behar dira eta haurreri erakutsi nola zuhurki derabilzketen tresna xorrotx horiek. Hemen ere berdin : mekanika berriek makur gaitzak egin ditzazkete, ez balinbadira zuhurki erabiltzen. Lanaren errexteko, langileen laguntzeko dira, eta ez gizonaren gosetzeko. Izaitez lan-eskasa eta gosetea ekarri badaukute, gizonek dute hobena. Ez da hor den gutieneko dudarik.

ººº

Langile batzuek erranen daukute :

— Bai, gure nausiek dute falta. Hain diru-goseak dira, non beti gehiago saldu nahiz ari baitira eta langile gutiagorekin lana egin nahiz : alabainan gastuak ttipiago, prezioak apalago, saltzea errexago, eta irabazia joriago. Hortan da oraiko herstura guzien gakoa : tresna gizonaren ordain jarri dute, merkeago zela ; eta huna nun giren orai, langile ohiak, saltsaren erdian !...

Ihardetsiko diotegu :

— Baditake beren konzientzia ez duten nausi guziek zeru zola bezain urdin. Bainan ez ahal dute denek kedarra bezain beltza... Zer nahi den, arrunt itsutua ez den batek gurekin batean ezagutu beharko du, egungo egunean nausia bere sehia bezain hunkitua eta

zaurtua dela. Segur langile hainitz bada lanik gabe ; ez ahantz haatik nausi hainitzek ere beren lantegiak zerratu behar izan dituztela.

— Zertako bada ?

— Langile zonbaitek, beti gehiago irabazi nahiz, nausiak hertsatu dituzte mekaniken erosterat : langile gutiago izanez, gehiago pagatzen ahal ; bainan habat gaixtoago bazterrerat utzientzat ! Mekanikeri esker, lana frango egin dute lantegi guziek, saltzen ahal zen baino gehiago zonbaitek. Ezin salduz, edo merkexegi saldu beharrez, zonbat nausi ez dira zorrez josiak gelditu, etzitzazketelarik beren egitekoak aitzina joan-araz... Alta baratuz geroz, ez da deus hobekitzen : alabainan lan-eskasak ez du langilea erosterat erakartzen ; xuhurki bizitzen usatzen da, nahi eta ez ; eta galderik ez izanez, lana lantegietan xuhurtzen da, nausia eta langilea, biak petzero daudelarik. Zer ezinbertzea !

Orduan nausiak adituko dituzu sinkulinaz :

— Gure etsaia, jendearen lotseria ! Bazterrak beldurtuak ditugu, herabetuak. Ez dute gehiago deusik erosi nahi, beharrenik zaizkotenez bertzalde. Sos begiratzen hasiak dira, zikoitz zeken batzu bezala ; eta, dirua ez balinbada kurritzen, herriko bizia gelditzen da ; ezen dirua gorputzeko odolari pareka ditake. Beraz hobendun handia, erosle alfer berekoia !

Ateraldi horri bi hitzez ihardets dakioke :

— Oixtion erran dugu nola langilea xuhurtzerat behartu den eta nausia ere bai. Badenean, <u>bunbun</u> ! ez denean, <u>tuntun</u> ! Erraguzue bada nun diren langileak, nausiez eta langilez landa ! Nik aitor dut ez dakidala. Alabainan arrandadunek beren diru ona nausi batzuen egitekoetan daukate eta, nausi hori gobernua izanik ere, bertze guziak bezala, helde gaixtoak hunkiturik daude.

º
º º

Irakurlea aise ohartu da, nola batek bertzearen gain emaiten duten oraiko makur izigarrien hobena. Egia erran, denek behar dugu " ene faltaz " errepikatu : nausiek sosa maitegi izan dute, arrandadunek ere bai, eta langilek beren jornalak beti goiti-arazi beharrez egin dute aski entsegu. Barka dakiokete ororri, ez baitzuten somatzen ere norat ari ziren. Bainan orai iguzkia baino argiago dugu eginbidea. Denek behar diogu tinkaldiño bat eman, urrearen alderat ginuen atxiki-menduari. Bai nausiek, bai langilek irabazi gutiagorekin egin behar dute eta laneko atea zabaldu lan gabe daudeneri.

Segur tresna berriek lana errexten dute eta lastertzen ; bainan errextasun hori ororen onetan izan dadila. Ez da zuzen hogoi-ta-hamar miliun gizon bertzen gain egon diten, deusik egin gabe. Ez da zuzen zonbaitek tira ahala lan ukan dezaten, haurrak eta emaztekiak indarrez goiti ar diten lantegi batzuetan, hoinbertze gizon azkarreri " amoina" egiteko. Batzu, lanak leherturik, zeruari birauka eta laidoka, etzutela bada holakorik hartze ! Bertzeak aldiz, besoak dilindan eta sabela huts, ez litezkela bada lanari aiher ! Batzuek eskas, bertzek soberakin.

Gauzen berdintzeko, buru bero batzuek nausieri oldartu nahi litzaizkiokete, ustez-eta nausiak kenduz geroz, denak ederki badoazkela : heien arabera jaunen eta mutilen arteko hisiatik heldu dira makur guziak ; bi etsaietarik bat suntsi baladi, bakea segurtatua omen litake... Ez zaiote gogoratzen beti beharko dela norbait buru eta, nor nahi izanik ere, gaura saldu beharko dela langileen pagatzekotz, eta gauzen prezioak langileen soldatarekin goiti eta beheiti ariko direla. Beraz egiazko sendagailua bertze nunbait dateke.

Suntsitu orde, zergatik ez hurbil elgarretarat etsai direlako bi alderdiak ?

Ontsalarik nausiak batasun berezi batzuetan bildu behar litezke, eta hala-hala langileak beren aldetik : hor iker lezakete batzuek

eta bertzek, nola beren lana eta irabazia zatikatzen ahal lituzketen, langabe gaixoeri leku poxi bat egiteko.

Gure ustez, nausiek eta langilek nehoren arartekotasunik gabe behar lukete elgar aditu, gauza hori buruz ; eta gain-gainetik artamenda ginezokete gobernuaren aztaparretarik begiratzea. Gobernuaren eginbide bakarra, bakearen segurtatzea, eta ez ororen ordain jartzea. Ikus beza eia herritar guziak zuzenbideari jarraikiak diren, hertsa ditzala zeiharka dabiltzanak oro, bainan hortan geldi. Egiteko huntan ere, bego antolamendua nausi-langileen gain ; elgarrekin hitzartzen badute, utz ditzala beren gisa ; bainan ez badute amor eman nahi ez batzuek ez bertzek, orduan auzitegien aldi... Beharbada otsoaren beldurrak lagunduko ditu elgar aditzen...

ΩΩΩ

Eskaintzen dugun sendagailua kiretsa dela, ez dugu ukatzen. Erremedio gehienak halakoak dira. Bainan gaitz bat hedatzen ari delarik, ez ote da behar nolazpait geldiarazi, jende sendoen onetan ?

Goazen bada aitzina gure bideari. Nor gure xokoan ar giten lan eskasaren gutitzen. Lan gabe daudenen laguntzea eder da, eginbide handia ere dugu. Bainan laguntza horrek gaitzaren ondorio garratzak arintzen baditu ere, gaitza bera ez du den gutienik sendatzen.

Orok hartu behar luketen xedea : nor berari zerbait gostarik ere lanaren zatikatzea.

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1934
Nº 2. Mars-Avr.
pp. 97-103.

Afrikanoaren leloa

Iguzki saminaren erresuman,
Airea xuko, lurra kiskaildurik..:
Errauts itogarri batek harturik,
Behar duguia azken hatsa eman ?

Nun dira Pirenetako mendixka
Bizkar ferde, artaldez beteak ?
Nun dira pentzen erdian bakarka
Dagozin etxe eskualdun maiteak ?

Zerua hemen argi eta su da :
Ederra dela nork uka lezake ?
Hantxet aldiz, dena hedoi, dena ke,
Pariseko zeruari ez beha...

Oi Eskual-herriko zeru eztiak
Zoin polliki distirakatzen duen !
Ez derauzkigu ez, harek, begiak
Neholaz erreko, ez goibelduren !

Leihor idorrak bihotzak idortzen ;
Odol irakinak herra hazten du :
Beltz-xuriek, kristau, pagano, judu,
Moroek hain guti elgar maitatzen !

Nun dugu sort-herriko goxo hura ?
Mintzaire xahar, ohidura xahar,
Sineste xahar horiek, nun dira ?
Ez dituguia berriz miretsi behar ?

Afrikan gauden Eskualdun guziak,
Bil gaiten kartsuki elgarretara !
Kanta dezagun, gauden alegera :
Lur hunek ez gitu arrunt heziak...

Ez eta sekulan ere heziko !...
Ezen, itsasoa ur-hustu artean,
Ez dugu aiten odola salduko
Ez bizian, ez hiltzean !

PATTIN-BEN-AGUERRE.

GURE HERRIA
1934
Nº 2. Mars-Avr.
pp. 105-106

Badea ederragorik !

(Imitation de rythmes modernes)

Lurraren gainean deus ederragorik badea,
lokartzera doan haurraren otoitz hegalduna baino ?

Egun guzia, jar eta xuti, xuti eta kurri,
lanean eta jostetan arizana da, sutsua.

Orai lo galdez, uzkurrik dago, ahitua,
betespala argi gordinaren etsai.

Ikastetxeko lotegian oheak lerro-lerro,
xori bezenbat ohantze xuri.

Pettanek berea, bi begiak hetsirik,
demendreneko dudarik gabe kausitu du.

Ibaiak bere erreka, hagaztinak kantua
aurkitzen ohi duten bezain aise...

Eta bere mihise arinen artean
bozik sartu da, gure eskolier ttipia !

Zoin goxo, eguneko nekeen ohiltzeko,
ohe labur, hertsi, guria !

Lurraren gainean deus ederragorik badea,
lokartzera doan haurraren otoitz hegalduna baino ?

Haur zain dagon apez gazteak
eletrik-argia behin histu du, gero hil...

Gaua belztuz, bazterrak ixilago,
bihotza ohean pil-pil-pil, bakarrago...

Oi, ume bakarraren bihotz ilun hustua,
zerk ote du be har bezala beteko ?

"Zato, Jesu, urrun-azu gauetako Inguma,
ilunbetako etsai itsusia.

Zeruko Ama ona, zoazi gure etxerat
eta musu emozu amari...

Zuk, aingeru begiralea, aitari emozu,
lepotik hartzen duzula tintinka ;

Eta gero Mayi arrebari, eta gero
Kiki ateko xakur beltx maiteari..."

Lurraren gainean deus ederragorik badea,
lokartzera doan haurraren otoitz hegalduna baino ?

Haur zain dagon apez gaztea
harat-hunat ixil-ixil badabil !

Iragaitean haurren hatsak entzuten ditu
erasian ari ari ezti-eztia.

Bizi hoik oro Jainko Jaunari
oraitik diozka eskaintzen :

"Jauna, zuk otoi denak zuretzat
begira zaitzu betikotz."

Eta ume gaixoek ametsetarik
mundua kurritzen duten artean,

Apezak ere bere ametsa derabil
hor dituen arima guzientzat :

Hau miriku, hori lege-gizon, hura soldado,
bertze hau apez edo apezpiku...

Pettan beti erdi-lotarik
zeruko bizitzaleekin eleka...

Lurraren gainean deus ederragorik badea,
lokartzera doan haurraren otoitz hegalduna baino ?

Zoin dohatsu Jainko maitea,
haur pollit horri begira !

Gaixo muttikoa ! nola dituen orai
gogoeta guziak nahasten !

Pilota Kiki-ri aurdiki behar, eta...
Zeruko Amari aurdikitzen ;

Aingeru ona otoiztu nahi, eta...
etxeko gatua gogoan...

Orai denak joaiten zaizko...
urtzo xuria, errazu norat joaiten ziren zu ?

Haren aho ttipi garbiak
ez dezake ja deus erran...

Bainan haurrak hasi otoitz kartsua
ez da nehoiz geldituko :

Haren baitan den Jainko atzarria
ametsen artetik jarraikiren zaio...

Lurraren gainean deus ederragorik badea,
lokartzera doan haurraren otoitz hegalduna baino ?

P.L. 16-IX-33

GURE HERRIA
1935
Nº 3. Mai-Juin
pp. 212-214.

DEIA

(Rythmes modernes)

Ehun jakintsunek
ezagutu dute
zer alor gaitza den
gure mintzaire joria ;
ehun koblakarik
goretsi dauzkute
haren ontasunak,
goretsi haren loria...
Guk ere miletan
oihukatu dugu
nehun ez duela
gure eskuarak parerik :
zer nahi zuhamu
eta belar sendo
atera ditazke
lur berri gizen hartarik.

Bainan lur berriak
deus ez du emanen,
baratzezain on bat
ez bazaio laster jiten ;
nolaz hura gabe
nahi zinukete
lapar-elorriak
errotikan suntsi diten ?
Noiz agertuko da
gure lur onaren
eta haren zuñgai
aberatsen lantzailea ?
Noiz agertuko da
aterako zaiku
haiduru gauzkion
iguzki argitzailea ?

Zure beha gaude :
otoi, erradazu,
nun zauden herabe,
zoko batean gorderik...
Ah ! zer lan ederrak
egiten ditutzun
emeki-emeki
Eskualdun jenden ixilik.
Luma zorrozturik,
gogomena sutan,
bihotza oro kar
Atera zaite mundura...
Eta ixur-azu
liburu batean,
Jaunak eman dautzun
zentzu-argi-gaindidura.

Nehork neholere
ezin erran duen
egia zahar bat,
zuk har-azu girtainetik :
lore bat bezala
eskual-baratzean

berriz landa-zazu,
haz dadin eskual-gozotik...
Emozu iguzki,
ur eta ongailu :
landare gaztea
hola laster gotor bedi !
Bai, zabal dadila,
ostoz eta fruituz
mukurru-beterik,
lirain, azkar eta handi.

Jendaki guziak
bekaizti ditela
zure lan ederraz
orai eta beti ere...
Bai, ikus bezate
zerbait bagirela
Eskualdun zaharrak
jakitatez, gurez-gure ;
ikus, gai girela
bertzek bezain ontsa
zerbait asmatzeko,
nehoren zurkaitzik gabe...

Ikus, engoitikan
joan nahi dugula
geroari buruz,
guhauren argien jabe...

Bainan ez zitela
luzazegi gorde,
hauspeko pindarren
molde herabetsura...
Hautsa bazterturik,
har-azu emeki
hego amultsuak
derautzun ferekadura :
pitz zite kartsuki,
argi sort-herria,
harri erdaldunak
zure dirdira ederraz...
Menderen mendetan
zure herritarrak
mintzatuko dira
zurekin sortu izarraz...

P. ITHURRALDE.

GURE HERRIA
1935
Nº 6. Nov.-Déc.
pp. 503-504.

Atzikitzeko orena

Bazterrak kexu, herriak elgarri aiher, beren buruak ezin mana eta auzoeri mendekatu nahi, horra nolako hersturan den gure mendea.

Askok uste dute makur guzien hobendun gehiena batasun eskasa dela ; eta, batasuna gero-ta-hertsiago egin nahiz, jendeak oro nahi lituzkete berdindu, denak hein bererat jauts-arazi, denak uztarkide eman, iduri-eta lege berekin, ohidura berekin, mintzaire berarekin, harrigarriko batasunerat bilduko dituzten.

Zer erhokeria !

Batasuna bihotzetik jinen da, jitekotz ; eta jendek elgarrentzat erakutsiko duten errespetua izanen da, izaitekotz, bihotzen egiazko lokarria.

Erresumek ez dukete onik, beren eskualdeak ez badituzte diren bezalakotzat ezagutu nahi. Bretaniari oldar balakio Pariseko gobernua, haren mintzairea erdeinatuz, haren jauntzi eta ohidurak bertzelakatu beharrez, zer begitarte lukete Bretonek bertze Frantses ausart hoien eretzerat ? Batasuna hain ontsa begiratua eta segurtatua ote litake ? " Bi jenden arteko bizitze ona ez du bataren apaltzeak asentatzen, are gutiago haren suntsitzeak."

Azken hitz hoik Proudhon zenaren adixkide batenak dira, beraz ezkertiar batenak. Huna orai Aita sainduak jazko epailaren 14-ean errana : " Elizaren soailuak, zeru-gainak bezala, lur guzia estaltzen baitu, bada haren gerizapean jendaki eta mintzaire bezanbat herri ; bada aski leku, bai nork berak, bai odol-bereko jendek Jainko-egilearen ganik ukan dohain berezien alhatzeko ; Eliza-amaren bihotza hain da handi eta zabal, non hobeki ikusten baitu, bakotxari doazkon ontasun bereziak gotortuz, eta Jainkoaren nahia gisa hortan eginez, desberdintasun horrek emaiten duen aberastasuna, ezen-ez makur-bidea." Aita sainduak alemanez igorri

zioten hitz hori Alemaneri ; erdaraz itzuli behar baginu, erran ginezake : " Sous la coupole de l'Eglise, qui, comme le firmament, recouvre la terre entière, il y a une patrie pour tous les peuples et pour toutes les langues, il y a place pour le développement de toutes les qualités particulières concédées par le Dieu créateur, tant aux individus qu'aux communautés ethniques. Le coeur maternel de l'Eglise est assez grand et assez large pour voir, dans l'épanoussement, voulu de Dieu, de ces caractères et de ces dons propres à chacun, la richesse de la variété plus que le péril des divergences."

Beraz Elizaren kontra ari dira, eskuararen kontra eta eskualdungoaren kontra errabiatuak direnak oro : beren politika fedea baino barnago sar-arazten dute, eta eskualdunak balinbadira, uko egiten diote bai beren gorputzeko okolari, bai beren arimako biziari. Saldu batzu dira. Bertzerik ez.

Hemen, agerkari huntan, ez dugu ez gure burua, ez gure herria, ez gure gogoa saldu nahi.

Ez diogu nehori bere politikaren berri galdegiten. Gure xede bakarra da egiazko eskualdun guzien biltzea eta heiekin lanean artzea, Jainkoak eman dauzkun mintzaire eta ohidura ederren alde.

Egungo egunean mendiz-bertzaldeko agerkari gehienak suntsituak dira. Gure anaiak elgarretarik urrunduak daude orainokoan. Hemen ez ditugu ez batzu, ez bertzeak nehoiz ere laidostatu. Heien elgarretaratzerat hertsatu gira behin baino gehiagotan. Aldi huntan ere baketzerat eta lanerat deitzen ditugu oro. Ala Yakintza-n ari zirenak, ala R.I.E.V. delakoan ari zirenak, etor ditela gure ganat. Hala-hala Eskualzaindiko edo Akademiako jaunak bil ditela gure aldamenera. Segur gure aterbeak ez du jauregi baten begitarterik ; bainan etxola xumea ere on zaio bidekariari, uri-elementak ari direnean.

" Gure Herria " eskualdungoaren azken aterbea da, eta Eskualdun

egiazko guzien junta-leku bakarra. Orok eginbide garratza dugu, haren atxikitzea, laguntzea eta joritzea. Ordu itsusi eta gogorrak ditugu, hala da. Gure ahalak ere ahal bezalakoak dira, labur eta xuhur ; bainan gure lankideak eta irakurtzaleak, loakartu eta lolotu orde, ernatzen eta atzartzen balinbazaizku, egun ederrik ikusiko dugu oraino ! Ahurrean bezala daukagun su-azi gaixoa pindarretan piztuko zaiku e ta berriz ere argi bezain bero agertuko da munduan, eskualdun garbien gar saindu miresgarria !

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1938
Nº 1. Janv.-Fév.
pp. 3-5.

Ene kaiolan bi xori

Ene kaiolan bi xori,
Biak betan kantuz ari...

Kaiola guziek bi xori :
Ez baditutzu aditzen, elkorra zaude orori !
Bi xori kaiolan egoki :
Ez baditutzu ikusten, itsua zira osoki !

Bata herbail, bertzea on :
Gizona baitan bi gizon...

Kaiola guziek xori bat,
Lurreko parabisuaz nigarretan orroitua ;
Kaiola guziek bertze bat,
Aingeru-kantu ederrez arrunt gogoetatua.

Bi xorifloek bi amets :
Bihi-amets, zeru-amets...

Kaiola guziek xori bat,
Iguzkiari huxtuka, egun berria sor dadin !
Kaiola guziek bertze bat,
Ilargiari huxtuka, ilun-egarriarekin !

Bi xoriek beren deia :
Bizi- ala hil-nahia...

Kaiola guziek xori bat,
Anaiaren adixkide izan nahi laitekena.
Kaiola guziek bertze bat,
Bere anaiaz halaber etsimenduan dagona !

Kaiolan edozoin xorik
Ez egon nahi bakarrik !

Kaiola guziek bi xori,
Biak ihes joan beharrak beren presondegiari !
Gizon guziek bi gizon :
Biak elgarrekin eta bat bertzea gabe ez on !

Ene kaiolan bi xori :
Jainkoa beha bieri...

P. ITHURRALDE

GURE HERRIA
1938
Nº 1. Janv.-Fév.
pp. 24-25.

Kobla eta otoitza

Donibane-Garazi-ko elizan, bertsularien egunean emana izan den hitzaldia. 1950-eko apirilaren 16-an.

Aldi huntan Donibane-Garazirat jin gira bertsularien egun eder hunen iragaiterat. Ez zitaken herri gisagorik hauta, Baxenabarreko hiri-nausia baino. Ez dea bada Baxenabarre eskual-herrietan izan den bertsulariz aberatsena ? Segur gehienak herabe dira biltzar handietarat ausartatzeko ; nahiago dute lagunen artean eta etxekoz-etxe ko beren jeinua agertu. Bizkitartean liburu handi baten bete baginuke nortaz zer konda, Baxenabarrek hazi koblariak oro aipatu behar baginitu, hala nola Luzaideko Arrosagarai, Bidarriko Nabarro eta Otxalde, Donibaneko Barbier aneiak, Ezterenzubi-ko Etchamendi, Irulegiko Etcharren, Eiheralarreko Larramendi, Behorlegiko Zubiat, Bankako Chantxo, Apezena eta Erramuzpe, Luhosoko Larralde, Baigorriko Ibarrart, Elgart, Etchegaray, Lasarra, eta bertzeak bertze, egun hemen direnak aipatzen ez ditugularik.

Bainan ez zitaken ere eliza hau baino gisagorik hauta. Ez dea, alabainan, eliza huntan erretor-nausi egona, duela lau-ehun urte, Bernat Detchepare, izenez ezagutzen dugun koblaririk zaharrena ? Sortzez Sarrasketako seme eta aitoren seme "infançon" hetarik izaki-eta, gazte-denbora frango harroki eman ondoan, urrikitu zen eta berant-aire apeztu, Eiheralarreko erretor izan baitzen, hunat izendatu baino lehen. Haren bertsu harrigarriak gelditu zaizku menderen-mende, liburutan ezarri zituelakotz, eta mirakuluz bezala gure ganadino iraun baitu liburu balios horrek.

Eliza huntan, geroztik ere izan dire jaun erretor eta bikario

bipilak. Nola ahantz Bécas, Bidart eta Bidegain koblakariak ? Nola ez gorets Belzaguy, Blazy eta Aphezteguy eskualzale famatuak ? Eta nahiz ez nukeen hemen denik aipatu nahi, ez dut nehundik ixiltzen ahal, oraiko apez suharrek ere badutela, Donibanen, kar eta nahikari, gure ohidura zahar on guzien alde.

Horiek hola, jende minkor batzu ba omen dabiltza hor eta hemen oro sinkulina, apezek ez dutenetz bada arimen salbatzen aski lan, bertsularien sustatzen eta berak kobla ontzen ari izan gabe ! Kobla josteta huts zaiote, eta ez dute buruari emaiten ahal, nola apez serios batek libertimendu hoitan denbora galtzen ahal duen, eta are gutiago nola prediku alkitik libertimendu hoien goresterat atrebitzen ahal den.

Girixtino maitea, erran gogo dautzuet zertako apezak hain atxikiak gitzaizkon koblakarien obra ederrari. Gero jujatuko gitutzue.

º º º

Guk ez daukagu kobla josteta-huts ez eta libertimendu alfer. Koblaren izen garbia merexi duen bertsuak gizonaren gogoa berenaz altxatzen du. Ez du, hasteko, gogoeta edo asmu gora eta pollitik baizik ekartzen ; hitzak ere ez ditu nola-nahikoak onhartzen : arruntak, zikinak, itsusiak baztertzen ditu ; eta egokienak hautatu ondoan, huna non neurturik baderamazkin urrats berezi batean, musika-aire batek koketatzen dituela...

Koblak badu beraz barnean ginarri sanoa, eta gainetik jauntzi muntto, izarian moldatua. Arimaz ala gorputzez, igandetako soinekoa derabila.

Tarn-eko departamenduan ikusi ditut, duela hamar bat urte, igande hits eta bihotz erdiragarriak nehor guti elizetan, bainan zer-nahi jende alorretan, gizonek bizarra luze, haur-emaztek pilda zariotela... Itxura horrek berak emaiten zuen erakusterat zer errespetu laburra zuketen beren buruentzat. Asteak behar du

bere igandea ; gizonari baitezpadako zaio astelegunetako ildotik astean behin jalgitzea. Hala-hala bertsularirik ez luken mintzaire bat, iganderik gabeko aste ilun bat litake !

Eliza ama sainduak ez du gizona herrestan ikusi nahi ; ez zaio iduri gizon truskil edo moldegaitz batetarik girixtino plantako bat egiten ahal duela. Gizona gorago, izpiritutsuago, norbait-ago, eta saindu-errexago ere daukagu : alabainan zer da saindu izaitea, Jainkoaren graziarekin bat izaitea baizik ? Grazia ez da hobeki baizik ohatzen, ahokatzen eta lotzen, apaindurik eta berregindurik heldu zaion jiteari ! Graziak gu baitan xertoak bezala behar du hartu. Bainan nola xerta gaztaina haitzari edo gerezia pikoari ? Xotxa ez balinbada arbolaren zur berekoa edo bederen ahaide hurbila, ez du hartzeko perilik ! Grazia halaber xerta-errexago, jadanik goiti abiatua den arimaren baitan ! Eta guk apezek sustatu behar eta sustatzen ere ditugu, gizona lurretik goraxago ezartzen duten lan edo berdin libertimendu guziak.

Kobla hetarik da, edo hetarik ditake. Gehiago erran behar dugu : ez da deus ere munduan otoitzaren hoinbertze eite duenik !

Otoitz-egileak, ontsa heltzeko, behar du gogoa bildurik gelditu, nehorat amesketa barreatu gabe, bere egiteko sainduari konpaitua.

Beha orai bertsulariaren begitarteari, kobla baten emaiterat doalarik : begia argitzen zaio, ikara bat jauzten, zainak tinkatzen, kopeta zimurtzen : bere gogo-indar guzien beharretan da, bixtan den bezala, hoinbertze eginbide izaki-eta denak betan betetzeko : asma zer erran, kobla-buruetako ditxoak bila, hitzak aireak manatu neurrian hauta, eta kanta atertzeko eperik gabe. Hori da hori gogoa bildurik artzea !

Otoitz-egileak behar dio ere Jainkoaren graziari paratu bere arima, marifielak bela aizeari bezala. Grazia horri huts egiten badio, edo ez balioz, edo ez axolaturik, otoitz maingu eta ahul batekin dagoke.

Bertsulariak ere bere gisako grazia badu : bere baitan noiztenka indar berezi bat sendi dezake, berak uste baino edo nahi baino goitiago altxarazten duena : su bat edo olde boteretsu bat emaiten dio, edariak bezala gogoa xorroxten eta mihia zalointzen duelarik, bainan edariak ez duen neurri goxo batekin, eta koblariak ateratzen dauzkitzu ondoan bera ere harriturik daukaten bertsu miresgarri batzu !

Otoitz-egileak nahi badu funski jarraiki bere eginbideari, ez du bere bizia bi alde egin behar : bata Jainkoarekilako, bertzea beretako. Bere gau-egunetako urrats guzien gozoaz behar du hazi bere otoitza, eta ordainez bere otoitzaren gozoaz orratu bere lan eta egitekoak oro.

Berdin ginioke egiazko koblakariaz : norbaitek lehen aditu kantu batzuetarikako bertsuak guti edo asko antolaturik emaiten baditu, deus bere baitarikako sendimendurik gabe, ez eni exran funtsezko koblakaria dela : izaitekotz, bertsu-ofiziale abila ! Zinezko bertsulariaren ahotik ez dira kobla zahar erdi-markestuak ateratzen : bihotza, odola, arima dira mintzo ; eta bizi-mamitik jalgitzen direlakotz, hortako gituzte hain usu erroetaraino inarosten eta noizean behin hunkitzen ere nigarretaraino !

Otoitz-egilea ez da bere buruaz orroitua egon behar, bere baitarikako otoitz bereziena egiten duelarik ere. Otoitza arbola eder baten pare dago xutik, erroak gure jitearen zolan finkatuak, zeruko airea hats-emaile, eta adarrak ahalik urrenena zazpi bazterretarat hedatua, munduko gizon haurride guzieri emaiteko zerbait itzal eta fruitu !

Gauza bera erranen dugu bertsulariaz : dena bertzena da bere izaitez : kasu egin behar du jujeri, ea zer ekei eman dioten, hari jarraikitzeko eta ahalaz heieri ontsa kausitzeko ; kasu egin behar du koblatzale lagunari, botaren errefera ezin eman bailezake bertzenaz ; kasu egin behar du populu jaunari, haren heintsuan eta mentsuan egoiteko gisa. Baditakea karitate ederragorik !

Bainan dugun aitort badela bazterretan hainitz basa-otoitz : gaizki eginak, gogoa munbait, Jainkoaz orroitu gabe, edo protsimo laguna ahantzirik !

Hala-hala bada zorigaitzez hainitz basa-koblakari : badute ba adimendu zerbait, boza ere ausarki, ba eta ditxo edo dobladuren atxemaiteko dohain hura ere ; bainan horra... bihotza ximur, idor eta flux ; barneko hats saindu haren orde, nahiago edariaren xixta bortitz hura ; eta aditzaileak ontzen eta goratzen lagundu behar lituzketelarik, heien gogoak biziki behera atxikitzen, non ez dituzten errautsean herrestatzen edo ixtilean desohoratzen !

Jainkoak begira gaitzala oro bai basa-otoitzetik bai basa-koblakari izaitetik ! Lan gaixtoa, debruaren lana, egin ginezake, graziarena egiten ahal ginukelarik.

ΩΩ

Erranen daukute menturaz : " Bainan, jauna, Eskual-herrian, koblakariak, zonbat dira ? Berrogoi bat, munduko gorena ! Eta berrogoi gizonentzat, basa-koblakariak barne, badaukazuia hoinbertze haro ? " — Ihardetsiko diotet : " Ez balitz ere arima bat baizik salbatzeko, ez ginuke mesprexatu behar. Bainan, hauxe jakizue, girixtino maiteak : denak koblakari girela guti edo aski, koblak laket zaizkun ber ; ez balu gure arimak hegalik, nola aira litake bertsularien ondotik ? Ez baginu gure baitan bertsuen heineko hedadurarik, nehundik ere ez ginitzazke ez goza, ez konpreni ! Bertsularien dei bera daukagu bihotzean !

Bai, Jainkoak elgarrekiloko egin gaitu, koblatzale eta aditzale. Eta aditzaleak hainitz egin dezake bai bertsulariaren onetan, bai haren kaltetan : bertsularia goiti susta dezakete aditzalek, ateraldi ederrak emaiten dituelarik, bozkario handia erakusten badute ; bainan, zorigaitzez, ondarra errekarat lerraraz lezakete, harrokeriak eta zantzailkeriak esku-zartaka goretsiz !

Gauden beraz denak gure eginbidean, eta atxik gora koblakarien

ohidura zaharra !

Oixtion erran baitugu, otoitzak eta koblak badutela elgarren eite, ez da harritzeko maiz elgarrekin baitabiltza eskuz-esku, elgarren lagun eta elgarren sustatzale !

Beha elizako otoitzeri : zonbat psalmo, himno eta kantika, oro pertsu ! Hamazazpigarren mendean, Etcheberri, Harizmendi, d'Argaignarats eta Gazteluzar batzuek elizako liburuak koblaz egiten ohi zituzten..., bertsuek errespetu gehiago daukatelakotz dudarik gabe Jainko maiteari buruz eta gizonaren gogoa ere funskiago beretzen dutelakotz.

Ordainez ohargarri da, mundu zabaleko poeta edo koblakari famatuenak nola otoitzean aurkitu duten beren hats edo jeinu-iturburu nausia ! Lehenagoko koblakari handienak ez ote ziren testament zaharreko profeta sainduak ? Eta geroztik ere bila zazue, (zonbait frantses baizik ez aipatzeko), non hazi diren Corneille, Racine, Péguy eta Claudel batzu..., eta aitor behartuko zaitzue otoitzak jeinua ez diotela ez trabatu ez murriztu, bainan loretu eta aberastu.

Beihalakoak ziona : " Ez zaio arrainari igerika erakasten, ez eta zeruko aingeruari kantuz ! "

Pierre LAFITTE

1950-eko jorrailaren 16-an.
apirilaren

GURE HERRIA
1950
Nº 2. Mars-Avr.
pp. 65-70.

Paulo Zamarripa
apez zena

Zamarripa jaun apeza hazaroan itzali da. Haren izena lehen aldikotz irakurria gimuen Jean Etchepare jaun miriku zenaren Burxkak deitu liburuan. Kapitulu bat bada : Eskualdun pestak Baigorrin 1905-ean ". Bertzeak bertze, aipu ditu lumako zoin gehiagoan irabazle atera zirenak. Lehen zen Joanes Garaztarra. Bainan huna bigarrenaz zer dion :

"... Beha, beha nor doan taulen gainerat bigarren garait sari untz'erdiaren eskuratzera : español apez-gai gazte bat, ja sotana jauntzia, Bizkaiatik etorria egun gutarterat, dituela bi urte Donapaleon bertze guzier nausitu zen hura bera, Pablo de Zammaripa y Uraga. Badoa lañoki, batere gupidarik gabe, jendeak eskuz joka eskerrak bihurtzen daizkolarik... Bihotzminekin aitortu behar dut jaun gazte haren lanaz ez dezaketala erran deus, Bizkaizko hizkuntza ez dutalakotz izpirik aditzen. Barkatua izan bekit, ez bakarrik ene urrikiaren eretzean, bainan oraino mihi gaixtoek salatu baitadate jujeen beren artean ez dela bat baizik dakienik, eta harek ere guti ! "

Dolu dugu Etchepare-k ez baitauku Zamarripa gaztearen neurtitz-aldea bertzeak bezala jujatu ahal izan ; erranen zaukun polliki nun zer atxeman zioken ederrik edo ahulik.

Orduko apez-gai eskualzale gazteak egin behar zuen bide, ondoko egunetan.

Zorigaitzez deus ez dakigu haren biziaz, salbu Salamankan eta Gatiken iraganik, Bermeoko erhotegian urteak eta urteak omonier egon dela.

Hor astia bazuen, bere eskuara maiteaz arta hartzeko eta liburu berri ontzeko.

Ez ditugu menturaz haren liburu guziak ezagutzen. Haatik laburzki izenda ditzagun zonbaitño.

Erdaraz bi "gramatica" ager-arazi zituen eskuararen erakusteko, hiztegi ttipi bat (Vocabulorio vasco-castellano), Manual del vascôfilo, hainitz hizkuntza, erran-zahar, hitz bitxi eta bertze dakarzkenak, Cojugaciones guipuzcoanas ere bai.

Eskuaraz aldiz ager-arazi zituen bi katixima xume : Anayak gara eta Kristauaren dotriñea ; hiru liburu irri egin-arazteko : Zaparradak, Kili-kili eta Firi-firi ; bertzalde olerki bilduma ederra : Gora begira.

Liburutan argitaratu baino lehen, lau azken bilduma hoien gaiak egunkari edo astekari batzuetan ateratu ziren, hala nola Ibaizabal, La Euskaria, Gaceta del Norte, Eskualdun ona deituetan.

Erran ditake gizon alegera zela Zamarripa gaizoa ; hemen gaindi Zerbitzari dugu bakarrik hortan zorrik ez liokena ; bainan gure Zerbitzari goxokiago ari da, elasturia gutiagorekin, eta sistak ez ditu, ez hain samin, ez hain usu. Bertzenaz biek berdin omore ona.

Olerki edo pertsuak ez dira segur nola nahikoak. Zonbat prima ez du irabazi heien egileak, gazte zelarik ? Gure jakinean garaile izan zen Donapaleon (1903), Ordizia edo Villafranca-n (1904), Uztaritzen (1904), Bergaran (1905), Baigorrin (1905), Donostian (1906)..

Halere aitortuko dugu nahiago ditugula Zamarriparen irri-solasak : aise, ez ote aisegi, heldu zitzaizkon pertsuak, elea zariola ; Oxobi edo Orixe-n tinkirik ez dute, are gutiago Iratzeder edo Jauregui-ren hegalik... Bainan erakusten dute zonbatetaraino zen herri-zale, eliza-zale eta eskual-zale suhar.

Ez da harritzeko hoinbertze lanen egilea Euskalzaindiak bildu baitzuen bere baitara.

Orai itzali da, arrabotsik gabe gure Zamarripa goxoa : haren irririk ez dugu berriz ikusiko zeruan baizik.

Orroit gaiten haren indar eta entseguez, eta guk ere egin dezagun ahal duguna eskuararen alde.

P. ITHURRALDE

GURE HERRIA
1950
Nº 6. Nov.-Déc.
pp. 291-292.

Arroltzeak

Magnagna bere zare eta saskien artetik oihuka. — Arroltzeak fresko-freskoak !... Zatozte hunat, jaun-andereak ! Huna arroltze finak ! Arroltze pare-gabeak !

Jaun bat hurbiltzen da. — Oilo-arroltzeak ditutzu aments !

M. — Preseski, gizon maitea ! Oilar-arroltze guziak atzo salduak ditut. (Irri egiten du).

J. — Plazer dut, hain alegera baitzira.

M. — Bai eta nik ere, jauna, arrailleria hain ontsa hartzen duzulakotz... Horiek hola, zonbat arroltze behar ditutzu ?

J. — Bi dotzena, ez badira segurik sobera kario !

M. — Frango merke dira... Peyrehorade-ko merkatutik ari gira gu hemen : dotzena ehun eta hirur-hogoi liberetan omen zen Peyrehorade-ko joan den merkatuan...

J. — Bai, han omen eta hemen segur... Ez dautzut hoinbertze emanen, debrua ez baduzu !

M. — Zer zinituzke, ala kitorik nahi ?

J. — Gogotik, emaiten bazinauzkit !

M. — Beha-zozu horren kopetari !

J. — Joko parte, ehun eta hirur-hogoi libera, handixko zait... Ez dut gero loterian moltsarik gizendu, nik, prezio hoien onhartzeko...

M. — Nik ere ez, urrurik artzeko... (gizonak urruntzerat egiten dueneko) Halere iduri baituzu gizon serios behar bezalako norbait, alo... dotzena utziko dautzut ehun eta berrogoietan...

J — Hau emazteki judua !

M — Zer ! hogoi libera kentzen dauzkitzut eta oraino zureak handiago ?

J — Aise ttipituko ditutzu prezioak, behin aski emendatuz geroz !

M — Zeruko ama ona ! Zer behar dugun aditu, gure borontate onaren sari ! Ez zinituzke araiz arroltze eder hauk ehun eta hogoi liberetan nahi ?

J — Ja ! Ja !... Hazparneko merkatuan ez dute arroltzek hoinbertze egin, hurbiltzekorik ere...

M — Bego Hazparne den tokian... Hemen Baionan gira... Ehun eta hogoi libera erran dut : ez dut sos bat barkatuko !

J — Ez eta Jainko maiteak ere zuri, jujatuko zaituenean...

M — Ontsa dakizu, zuk, Jainkoaren jujamenduen berri !!
Ez duzu aditu artoa zoin kario den ; ez duzu aditu, treina-sariak nola goititu dituzten ; ez aditu, nolako zergak eta tatsak ezarri dauzkuten ?... Arroltzeak kario zaizkitzula ! Gaineratikoak hain merke ote dira ?... Otoi ez eni erran zozokeriarik... Ehun eta hogoi libera erran dut : ez dautzut sos bat aterako...

J — Ez eta nik ere arroltze bat... Bertze aldi bat arte... Egizu merkatu, Magnagna ! (urruntzerat doa...)

M — Hep ! jauna ! Norat zoazkit hola ?

J — Bertze nunbait ba ahal da prezio hoberik !

M — Hau gizon sentikorra ! Zaude ba ittant bat... Ori, ez baitut egun oraino deus ere saldu, estrena-sari, ehun eta hamarretan uzten dautzut dotzena... Bazaitzu ?

J — Oraiko huntan kanore zerbait badu zure prezioak !

M — (erhia ezpainetan) Jainkoaz, otoi, ez nehorri erran eros-prezioan saldu dautzutala !

J — Zaude deskantsu, ez dut gezur erraiteko usaiarik !

M — He ?

J — Zer nahi den, ehun eta hamar liberetan hartuko dauzkitzut bai zonbait arroltze !

M — Preseski fresko-freskoak ditut, oixtion errunak...

J — Oixtion errunak ?

M — Ba, eta beharri fina bazinu, segur niz oraino adi zinitzazkela, arroltze hoik errun dituzten oiloen kantuak !

J — Hanbat gaixto !

M — Zertako "hanbat gaixto" ?

J — Hain xuxen, ez bainuen arroltze freskorik nahi !

J — Ez !

M — Zer nahi zinuen bada ?

J — Arroltze ustelak.

J — Bai, ustelak ! Aditzea baduzu baditugula Baionan urgesal mainuak ?

M — Ba, izigarri usain tzarreko mainu batzu...

J — Justu ! Pentsu duzun bezala, ur hoien ontzeko sufrea biziki kario da ; eta mainu hoien jabea eta buruzagia bainiz ni, sufre horren orde, arroltze ustelak botatzen ditut urean : usain ber-bera emaiten diote urari...

M — Eta erieri on bera egiten ?

J — Zer ba ! (ahapeka bezala) Ez diotegu, gero, erieri salatzen, zerk usaintzen duen heien mainua... Balakite, xahu gintazke !

M — Gure aita zenak erraiten zuena : ez da nehun gertatzen mundu huntan bezanbat ixtorio !

J — Zuk errazu !... (erdi-ahapeka) Ez zinituzte fortunaz zonbait arroltze pasatu ?

M — Egia erraiteko, jaun buruzagia... Bakar zonbait atxemanen ditugu beharbada, ontsa beharrez ! Hoinbertzeren artean, mirakulu litake ez aurkitzea zuk nahi bezalako hetarik ! Zonbat behar zinuzke?

J — Oixtion errana : bi dotzena !

M — Ba, kausi-errexak dira : marka ttipi bat egin diotet usteleri. Alabainan ez ditzazket denak erosle berari eman... Hamabietarik bi ustel bakarrik, alegia deus ez ! Hiru... zonbait aldiz, bereziki gizonak heldu zaizkitalarik erosterat : ezen, merkatu egiteko, frango tontoak zirezte bana-bertze gizon hoik ; ez dut, gero,zuretzat erraiten !

J — Beharrik !

M — (belauniko, bilatzen ditu) Bat, biga, hiru... hemezortzi ! (miatzen du aintzina). Ez dut uste baden bertzerik... To, hemeretzi ! Ez da probetxurik ; hau azkena dut, maluruski !

J — Bo !!! Gehixago beharko nituen ba !

M — Ez zira satifa-errexa ! Ukan banitu, gogotik salduko nauzkitzun : ez ahal duzu dudarik ? Sinesten ahal nuzu : ez niz, gero, ni dena ele zuri eta zimarku diren emazteki hetarik...

J — Sinesten zaitut segurki, Magnagna... Bainan orai, erranak erran, bi dotzena hartzen dauzkitzut, hasteko, ustelik ez den zare huntarik... Bat... biga... hamabi... Bat, biga... hiru... hamabi. (Bere zarean emaiten ditu...) Ene kondua badut...

M — Eta ustelak ?

J — Ah ! ustelak ? Begira-zkitzu gizon tonto hoientzat, edo bertzenaz igor mainuetarat...

M — Ez zira ba, zu, mainuen nausia ?

J — Ni ? Ez nahi ere... Nik arroltze freskoak nahi ditut, eta dotzena bakotxean ez baitzait laket bizpahiru ustelen kausitzea, kasu poxi bat egiten dut erostea n... Horra... (Dirua emaiten du

eta badoa huxtu eginez).

M — Bainan, gizona, nun duzu konzientzia ? Zer uste duzu ? Hala utziko zaitudala ?

J — (Urrundik) Jujetarat jaukitzen ahalko nuzu, nahi duzunean : zure zerbitzuko izanen naiz ! (Itzaltzen da).

M — Faltsua ez bertzea ! Ez da gehiago ohointzarik eta gezurrik baizik mundu trixte huntan !

P. ITHURRALDE.

GURE HERRIA
1951
Nº 1. Janv.-Fév.
pp. 18-21.

Toki eta tegi

> Pariseko eskualdun suhar batek galde egiten dauku :
> " Aspaldion gogoeta nago toki eta tegi bi eskual hitzak elgarren ahaide diren ala bat ez den bertzetik sortu. Entzuna niz latinez tegere estaltzea dela eta ez litake harritzeko, tegi-k aterbe erran nahi baitu, gure tegi hori latinari maileatu balute ere gure arbasoek. Geroxago tegi toki bilakatu ditake . Zer zaitzu ene asmu hortaz ?"

IHARDESPENA.

Adixkidea, zure galdeak ez du ihardespen errexik ukaiten ahal. Huna bakarrik bizpahirur gogoeta.

Hasteko, tegi-k ez du erran nahi edozoin toki, edozoin leku, bainan bai aterbe bat. Askok tei erraiten dute hitza laburtuz ; eta barrukiari zonbaitek hei emaiten baitiote izena, nago ez ote den hitz ber-beraren bertze itxura bat, eta menturaz itxura xaharrena. Orroit nola arte-k eman duen tarte edo alde-k talde. Zergatik ez hei-ek ere tei ? Hala balitz, zure latinaren beharrik ez ginuke tegi horren argitzeko.

Erran gabe doa tei edo tegi horiek dei edo degi bilaka ditazkela : aintzindei, barrandegi. Baxenabarre toki batek Behorlegi ere ukan du izena, legi emanez degi-ren orde.

Zer nahi den, Uztaritzen -dei baderabilagu ikur berezi batekin : " Gizon-dei bat gaitza bazen besta hortan " ; -dei horrek erran nahi du keta edo andana. Hala-hala erran ginezake " zer paper-deia ! zer udare-deia ! " Beharbada hariztegi hitzak erran nahi duke haritzaga, haritzeta, haritz-andana.

Bizkitartean badugu eskuaraz bertze hegi bat, erran nahi baitu

bazter, izkin edo tini. Zertako ez luke horrek ere tegi-ekilako zerbait ?

Bainan, kasu ! Hegi hunek ez du leku-ren mugarik ; ez da haren betekoa ; bazter hautan edo hegi hautan diogularik, ez dugu leku hautan erran nahi, bainan ingurune hautan. Ez dut uste hariztegi delakoa hegi hortarik sortu zaikun. Eskuaraz ez ginezake nehundik ezar " haritz-ingurune " hariztoi-en plazan.

Toki-k orotan leku erran nahi du, eta ez dut batere arrotz kausitzen haritz-lekuari hariztoki edo hariztoi erraiten baitiote.

Aitor dut bada toki eta tegi ez zaizkidala baitezpada ikurbide, ez eta ahaide. Heien askazietan berexgoa arras ezagun da. " Hokian izaitea " da " fleitean izaitea "; " deian izaiteak " ez du kanorerik ere. Hemen ere ohargarri da hoki badela toki-ren aldean.

Dei hitzak erran nahi du askotan " beharkundea " edo "hel egitea " ; doi hitzak ez du holakorik.

Segur ama-toki, etxe-toki eta traka bereko hitzek ekarri bat edo zaletasun bat baderaukate ; heien bete dira ama-zilo eta etxe-zilo. Bainan ez da nehun aditzen nehor biziki ama-dei edo etxe-dei dela.

Halere ez nezake lepoa joka gure eskuarazko dei guziak zuhaitz bereko aldaxkak direla. Keltotarrek edo bertze norbaitek tegi bat eman balukute ere, ez litake mirakulu ; eta ez mirakuluago ondoko denboretan egi eta tegi bertze batzuekin guti edo aski nahasi badugu ere. Eskuarak badu holako bat bere antifona zaharretan !

Ohartu zira nola gizon-keta-k bi gauza berex erran nahi dituen eskuaraz : " banoa gizon-keta " edo " banoa gizon bila " batera doatzi. " Zer gizon-keta ! " edo " zer gizon-andana ! " elgarren bete dira. Iduri du gure gogoa gizon bilatzetik gizon bildumarat lerratu dela. Zergatik ez lerra halaber dei-tzetik bildumarat, gizon-dei bi aldetarat hartuz ? Ez da ezinezkoa hori ere. Halarikan,

keta bigak iturburu berekoak direla ez da batere segur. " Gizon-keta nabila " erdaraz itzul ditake " en quête d'hommes ". Nork jakin quête hori ez zaikunez eskuaralat iragan ?

Nahiz inkesta gelditu zaikun bezala, kesta igurikatu behar ginuen, eta ez keta, non arras berriki hartua duen eskuarak. Bertze keta eta-ren ahaidea ditake : ikus harrieta, ezpeleta, haritzeta, eta bertze asko hizkuntza zahar. Beraz koropiloa ez da trenka-errexenetarik.

Orai gogoratzen baitzait, beharbada nahi zinuke jakin ea eskuarazko doi guziak etorki berekoak diren ; ezpeldoi eta doi-doia? Ez du iduri. Ezpeldoi da ezpel-toki. Bertze doia kaskoinetik heldu zaiku, erran nahi baitu doiu bat, miseria bat...

Oro har, adixkidea, ez dut batere uste toki eta tegi bata bertzetik sortu direla, eta biziki neke da jakitea latinarekin badutenetz deus ere ikustekorik.

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1951
Nº 5. Sept.-Oct.
pp. 314-316.

Azcue

Ordu dugu guk ere "Gure Herrian" Resurreccion-Maria Ascue-ren aipatzea. (1). Eskuararen alde nehork egin duela nehoiz harek bezalako lan ketarik eta lan onik ?

Iragan azaroan itzali zaikun jaun hori gutik dute naski ontsa ezagutu. Ez zen jenden arterat barreatu hetarik. Nahi dut ez zela gizon iheskaria, bainan lanek zioten, bakarrik manatzen etxetik ateratzea, ez behin ere berri jakin nahiak, are gutiago elekatzeko janizak.

Gu haren liburu eta gaineratiko idazkieri esker, heldu izan gitzaizko poxi bat ezagutzerat, eta irakurlek barkatuko daukute gizona baino xehekiago aipaturen baititugu haren obrak.

º º

1864-eko agorrilaren 5-ean sortu zen Lequeitio-n mutiko bat Eusebio Ascue-ren etxean. Eusebio hori irakaslea zen eta eskualzale suhar bat : harena da Parnasorako bidea deitu olerki edo poesia bilduma, 1896-an agertu beharra zena.

Etxeko lore berriari Resurreccion-Maria eman zioten izena, eta artatu zuten gain-gainetik.

Erran daukutenaz, " Nautica"-ko erakaspeneri jarraiki zitzaioten sort-herrian berean (1877-1880) ; 1881-ean kausitu zuen Bilbon baxelergoa ; laur urte higatu Gazteitz-eko apez-gai-tegian ; handik lekora bertze hiru Salamankan Liburu sainduen eta Elizaren legen ikertzen. Grado guziak bildu zituen. Gero bai Belgikan, bai Cologne hirian, ikasi zuen musika biziki barna. Alemanian egonez alemanari ere behar zitzaion ontsa ohartu, eta hortik gertatu zen

---

(1) Gehienek "Azkue" emana gatik, guk "Ascue" emaiten diogu, hala ezarria baita haren sort-agerietan.

frantses zonbaitek uste baitzuten Ascue Frantziaren etsai zela. Ez zen gero frantseseri den gutienik aiher ! Gerla denboran "Eskualduna" deitu astekarian aski garbiki eman zuen bere aburua.

Zer nahi den, gazte-gazterik aitaren urratseri jarraiki zen, eta eskuara odolean sartu zitzaion, hil-arte iraun behar zion sukar baten pare.

" Instituto de Biscaia " delakoan eskuararen irakasteko kargua ezarri bautzuten lan batzuen balioz nork irabaz, Unamuno idazlari famatua Ascue-k garraitu zuen.

Entzun dut erraiten Unamuno-k ere bazuela ekai onik lan horri buruz, eta beharbada hobe izanen zela eskuarari eman balio bere bizi guzia : hobe izanen, bai berarentzat, bai eta eskuararentzat ! Nik ez dakit balitz-eko eiherak nolako irina dukeen. Bainan badakit Ascue jaun apezak izaitez ez duela bere mendea galdu.

Akademia xutik eman zutelarik, hura hautatu zuten buru, eta hil-arte, erran nahi baita hogoi-ta-hirur urtez, haren eskuetan gelditu da eskualzaingoaren giderra.

ººº

Ascue jaun apeza, apez zela oroz gainetik nehork ez du behin ere ukatu. Otoitz-gizon kartsua, predikari suharra, arima argitzale eta sustatzale bizia.

Medikueri nahi ukan zioten ezagut-arazi Therese Neumann La estimatizada de Konnersreuth liburuaren bidez. Ager-arazi zuen bertzalde Jesusen biotzaren illa, eta Lapurdiko katixima baten itzulpena. Kantika zer nahi ere jalgi dira haren gogo-bihotzetarik, hitz edo musika : Recordare, Jesusen biotzari, Andra Mariari, Done Joseperi, El Rosario, Letanias, Apez ostegunerako otoitza.

ººº

Bainan elizatik landa, bazakien arraiki ibiltzen eta alegeraki idazten : haren teatroa nasaia da.

Komedia pollit bat bada harena : Colonia inglesa, berak eskuaraz emana ; lau "zarzuela" : Vizcay-tik Bizkaira, Pasa de Chimbos, Sasi eskola, Eguzkia nora... Ba eta bi "opera" : Ortzuri eta Urlo.

Bizkitartean ez du iduri Ascue jaunaren musikak eta teatroak erakarri diotela jakintsunen artean omen handirik ! Ongi egin du halere entseatzea. Bertze eskualdun dohatsuago bati, nork daki ez dionetz bidea zabaldu, erakutsiz nun diren intak eta murtzi harriak bide horten.

ººº

Biziki errexagoak eta atseginagoak zaizku haren Txirristadak eta ipuiak ere, behinik behin Ardi galdua eta Bein da betiko.

Hor dira ageri Ascue jaunaren eskuara malgu eta zirto pollitak.

Halaber irakurgarrienetarik ez ote Lamiak Euskalerrian ?

ººº

Haatik jakitatezko lanek egin dute jaun horren fama handia, ez bakarrik herritarren artean, bainan urrungo erresumetaraino.

Hasteko nola ez aipa haren hiztegi harrigarria : Diccionario vasco-espagnol-francès. Hitzak bildu ditu metaka, liburu eta paper zaharretan, bai-eta (herriz-herri ibiliz) Eskual-herri bazter guzietan.

Diote hiztegi horrek badituela itzalak : zonbait hitz gaizki hartuak edo gaizki itzuliak (bereziki frantseserat) ; huts edo eskasak andanaka ; hortako behar izan zuen Aita Lhande-k Ascue-ren lana osatu bere hiztegian, Baxenabarreko eta guziz Xubero-ko hainitz eta hainitz hizkuntza eratxikiz.

Halere hiztegi hori izan da, eta izanen ere luzaz naski, eskualzale jakintsunen iturburu joriena. Gizon bakar batek egiteko, erran ditake mixteriozko lan bat dela egiazki !

Ascue-k moldatu zuen sakel-hiztegi ttipiago bat, arras baliosa,

nahi dut, ez bizkitartean Ixaka Mendizabal-ena bezain aberatsa.

º º º

Eskuarari datxikola, izenda ditzagun bederen ager-arazi dituen gaineratiko lanak.

Eskuararen irakasteko : Euskal izkindea (erdaraz eta eskuaraz) ; Methodo practico ; Clave de temas ; Prontuario.

Eskuararen ikertzeko : Morfologia vasca ; Particularidades del dialecto roncales ; Aezkera ; La epentesis en la conjugacion vasca ; Verbo guipuzcoano ; Del acento tonico vasco ; Evolucion de la lengua vasca ; Neologismos ; Acerca del santoral vasco ; Gipuzkera osatua ; Mendiburu-ren idazkiak eta idaztankera ; Observaciones acerca de la "Langue basque et langues finnoises".

Denetan Ascue jaunak erakusten du zuhurtzia bat gaitza. Eta zentzu horrek begiratzen du gehienetan enganatzetik.

Zonbaiten arabera, on zukeen bilatzea bertze jakintsunek ere zer zioten, ala eskuararen legez ala erdaren legez : uste dute hertsitu duela bere behakoa beti bera bere hartarik ariz, eskuara barnetik miatuz, hesiaren gainetik auzoetarat ez asko emanez begi eta beharri.

Gure iduriko, Ascue ez zen ez hain hertsi, ez hain lauso. Irakurtzen zituen arrotzen lanak, bainan ez aipatzen, edo doi-doia, nahiago ziotelarik egin ez ikusiarena. Orotan berak bildu hitz eta hizkuntza nasaietarik bazaukan bazela aski argi gure mintzaire xaharrari buruz : eta argi hoik berme seguragoak zitzaizkon izen ospetsuenak baino.

Behin edo bertze, bixtan da haatik ez zuela kalte izanen hain berekor edo berekoi ez izaitea. Bainan infrentzu gabeko aurkirik ez da.

º º º

Ascue jaunak musika ikasi zuela erran dugu, eta bere baitarik

eginikako lanek ez ziotela eman uste zuen fama.

Bainan eskual kanta bila, ez du hanbat parerik ukan, salbu naski Aita Donostia.

Eta nola ez ditu ezagut-arazi ? Irakur La musica popular vascongada. Irakur guziz Cancionero popular vasco, bere hameka liburutan, eta bertze Cancionero hura, bederatzi liburutan, bai eta Euskalerriaren jakintzan eratxiki dituen kantu hek guziak. Zer bilduma !

Eskual kantuen amodioa bihotzean sartua duenak eskerrak izanen diozka Ascue jaunari, bizi deno...

Haren ondotik kantu bila ibiltzen denak behar du aitortu deus guti duela biltzen : buruxka arin batzu, izaitekotz.

Erran ditake salbatu dituela ordu onean, itzaltzerat zoazin hainitz aire eder, eta ez balu ere bertzerik egin, lan gaitza bazukeen eginik sort-herriaren alde !

Bainan kasik harrigarriagoko lan bati lotu zen gazte-gaztetik, nahiz izkiribuz ezarri, ohidura, erran-zahar, ipui, ikusi-mikusi, basa-sendagailu, basa-sineste, aspaldiko bertsu, eskual hizkuntza, eta holako !

1.882 plama handi bete ditu xehetasun hoitaz, eta eskualdunen gogoa urbildik ezagutu nahi duenak badu hor zer ikas.

Ez dugu gezurrik erranen. Bada oraino hainitz ekei bazterretan Euskalerriaren jakintza-ko lau liburuek bildu ez dutenik. Bederen erakusten daukute zer den egiteko eta nola egin, eta jadanik zama bat gaitza ezartzen daukute begien aintzinean.

º º º

Hots, nahiz zehar-mehar baizik ez ditugun aipatu Ascue jaun zenaren lanak, badugu aski erranik erakusteko Eskual-Herriak galdu duela seme on, jakintsu eta langile ospagarri bat.

Egunkari-astekariek erran dute nola itzali den. Ibai ondoan iraganez urerat lerratu. Handik salbatu ahal izan dute, bainan inharros-aldiari ezin ihardoki laur-hogoi-ta-zazpi urtetan... eta zonbait egunen buruan Jainkoa baitan pausatu.

"Gure Herria"-k esker mila ongi egile kartsu zenari ! Agian gaztek nahiko dituzte Ascue handiaren liburu baliosak irakurri eta gogoan erabili.

P. ITHURRALDE

GURE HERRIA
1952
Nº 3. Mai-Juin
pp. 129-133

Auzi bati datxikola

Mugaz bertze aldeko eskualzale batzuek auzi bat baderamate, handia, elgarren artean. Nola ezar eskuara bertze mintzaire jakintsuen ozkan ?

Gehieneri orai artinoko eskuara labur, motz eta eskas bezala zaiote : mende hunek sortu tresna, ohidura eta asmu berrieri ezin jarria. Eta oharturik, han-hemenka galtzen ari dela herritar hainitzen aho-mihitan, badaude ez ote duen bada joritzearen eta averastearen beharra. Orok baietz diote, hameka gogoeten buruan. Bainan... bedera bidez nahi dute beren eria artatu eta sendotu.

Batzuek nahi dute baitezpada eskuara berex begiratu bertze hizkuntza zahar ala berri guzien kutsutik. Aitor dute, gure arbasoek hainitz mailegatu eta jesan dutela arrotzen ganik, eta badakite orai berantegi laitekela hitz erdal-usaindu hoien baztertzeko. Bainan arbasoek egin hutsa ez dute berritu gogo, berek. Eskuaratik beretik jal-arazi nahi dituzte oraiko mende hunek behar dituen hitz guziak, eta lan horri lotu baitzaizkon Sabin zenaren aldetiar asko, heieri jarraikitzea eginbide zaiote : frantsesez "télégraphe" erraiten diogunari bota : urrutizkina ; "substance" delakoari ezar : segai ; "seminariste"-en orde, erran : jaupalgai, eta holako.

Bainan, gisa hortan, eskuara gero eta adi-gaitzago zaiokete, ez bakarrik arrotz eskualdun-du berrieri, bainan berdin eskualdun zaharreri. Ezen, egun guziez eskuara derabilatenek, nehori baimenik ez argitasunik galdetu gabe, behar arau hartuak dituzte erdaratikako hitzak guti edo aski aldaturik, edo berek gogoak eman bezala eskuaralat itzulikaturik. Zoazi gero etxetan eta karriketan ibilki diren hitzen ondotik, nola ditutzun zuk bide berrietarat bilduko !

Horra zergatik bertze eskualzale batzuek ez duten Sabinen

sendagailua onesten. Ez zaiote zuhurtzia, ur pikarrari goiti igerika artzea. Eskualdun xehek beren baitarik hautatu xendrak zaizkote hoberenak : hauiek ez dute arrotz hitzen beldurrik, are gutiago herrarik. Eskuararen aberasteko, zertako ez joka jende xehearen arabera ? Bertzenaz ere ez direa mintzaire handiak, Europakoak behinik behin, grekoaren eta latinaren ontasunez jabetu, beren eremuen zabaltzeko eta edertzeko ? Eskuarak egin beza bertze hainbertze : har den lekutik, den mendren ahalgerik gabe, eta gisa hortan ez duke sekulan hizkuntza eskasik, eta zer nahi ekai aipa ahal dezake. Krutwig jaun eskualzainak eta Aita Villasantek bide hori dute biek hautatua, eta gu, eskualzale xaharrak, bazterretik beha gaude, ezinago harrituak.

Lapurdi huntan ez gira baitezpada eskuara garbi-garbi zaleak. Heraberik gabe aipatzen ditugu treina, telefona eta telegrafa, hitz berrien ondotik bururik hautsi gabe. Bainan izari bat badela denetan orok badakigu ; eta, nahiz ez giren beti hitz bereko gertatzen Orixe-rekin, harek bezala, uste dugu gehienek hemen gaindi, izaria gainditzen dutela, oxtion aipatu bi idazlariek.

Aita Mokoroa-k eta bertze batzuek erran deete garbiki, latin eta grekaz emokatuz beren mintzairea, arrotz begitarte bat emaiten diotela, eta kentzen bere usain gozoa. Ez dakit nork aipatu deeten "esperanto vasco" bat egiten ari daukutela.

Aita Villasante-k aitor du jakitatezko mintzaire horrek ez dukeela herritar xeheenaren ez gozorik, ez usainik. Bertze hizkuntzetan ere jakintsunek zer dute bilatzen ? Beren asmu eta gogoetak xuxen baino xuxenago salatzen dituzten ber, gaineratikoen axolarik ez dute : argi hotzaren adixkide dira. Hotza bada hotza, mintzaireak erroetaraino argitzen baditu erran-gaiak, erdi ilunberik gabe, aldian aldiko hitz egokia emanez eta ez eltze handi ala ttipi guzien tapagailu bera orotan, — zertako behar gintzaizkioke aihertu mintzaire horri ?

Aita Mokoroa-ren ustez, garbizale ala latin-greko-zale, bi

alderdietakoak gaizki dabiltza. Eskuara den baino xuhurrago eta motzago egiten dute, ez jakinez aski ontsa haren itzul inguruen berri ; segur, hitzez-hitz ez ditazke denak erdaratik eskuaralat ixur diren bezala, bainan ez dugu hargatik eskualdunek mutu egoiterik. "C'est un opportuniste" diotenean erdaraz, guk erranen dugu : "noiz nolako hetarik da". "Le temps est en connexite avec la lunaison" guk bihur ginezake : "aroak ilargi-aldiarekilakoa badu". Zertako mailega beharrik gabe "oportunista" edo "connexitatea" ? Edo zertako asma, Aita Bera-k bezala, "mugontiar" edo "ondoretasun" ?

Aita Villasante-k ihardesten du eskuararen hobeki jakiteak hutz edo zilo zonbait betea-gatik, ez dugula zeren gure burua itsu ; gure hiztegiak ez duke frantsesenaren erdiaren estaltzekorik, bere itzul-inguru eta ordain guziekin ere. Emendatzearen behar gorria baduela, nola uka ? Nahi baditugu segurik jakitate guzien berriak eman gure sort-herriko mintzairean...

Huntan da, huntan, naski auziaren koropilo nagusia : nori zertaz behar dugun mintzatu, eta zer heinetan. Badakit bihotz nasai batzuen ganik zer behar dutan aditu : " Ez ahal duzu jende xehea ilunbean atxiki nahi ! Hori ere egia-gose ditake. Egia osoaren beharretan da : ez zaizko aski zonbait papur edo axal mahain azpirat !"

— Ez gira nehori egiaren ukatzekotan ! Bainan gogo emozu huni, adixkidea, behar laitezkela mundu huntan "buru bezanbat liburu" ! Erran nahi dut jakitate bereri buruz ez dutela gizon guziek gogo bera : batek ez diote eskerrik, bertze batek behar-beharrezkoak dauzka : hortan dira alha ez bakarrik nor bederaren adimendu-dohain bereziak, bainan berdin nork bere alde orduraino ikusi-ikasiak, edo bizimodu bakotxari doazkon deiak oro. Hortik beretik ezagun da kultura mota hainitz izan ditazkeela, eta izigarriko hutsa laitekela, ez bagintzaizkiote deneri konpaitzen.

Derabilagun eskuara laborariek dute asmatua behar arau, eta atxiki dute, ez sort-herriaren maitez, ez burukeriaz, bainan den bezala beren heinekoa dutelakotz. Heieri mintzatzen gireno,

ez da dudarik heien heineko eskuara begiratu behar dugula ; eta nahi baditugu ere gero-eta-gehiago argitu, ez ditugula eginen hitz arrotz ukaldika, bainan heien meneratuz, eta heien menetik heiekin batean goiti hegaldatuz.

Hitz berri ala hitz arrotz, bide nabar, orotarat joko dugu aldiak behartzen bagitu, bainan izariz, ez ditzaten berrikeriek edo arrozkeriek gure liburu eta predikuetarik bazter.

Orai, eskualzaleen arteko agerkari berezietan nor edo nork nahi badu erakutsi bere baitarikako eskuara jakintsu berri bat, bego haren gain. Ez badio eskuarari onik egiten, ez dut uste kalterik ere egin dezoken hanbat !

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1952
Nº 5. Sept.-Oct.
pp. 303-308

O R R A T Z A

Hiru zatitako jostagailua
Lehenagoko ixtorioetarik ateraia

NOR AGERTUKO DEN :

MARIUN, Pegarbaita-ko etxekanderea.
GREGORIA, Xauxunene-ko etxekanderea.
XEXILI, Mariunen sehia.
SANTSIN, Mariunen langilea.
KOXE, Mariunen mutil ttipia.
Jaun MERA,

LEHEN AGERKIA

Mariunen sukaldean

I

MARIUN, XEXILI eta KOXE

MARIUN (kexu-kexua) — Asa, xerka-zan, haurra ! Xerka orotan ! Xerka ontsa !

XEXILI — Xerkatzen dut, etxekanderea, ontsa xerkatzen oraino ; bainan ez da probetxurik, ez dut kausitzen...

MARIUN — Eta hi, zer ari hiz hor, bi besoak dilindan ? Mutiko piketa, ez hiz ukurtzen ahal ere ?

KOXE — Bainan... bainan... xerkatzen dut !

MARIUN — Bai uste nikek. (Mazelako bat emaiten dio). To ! ikasak obeditzen.

KOXE — Ai !

MARIUN — Asa ! Belauniko, eta lixto ! Mia armorio azpia, manka-azpia, baxeratei-azpia !

Xexili — Ez dut fitsik ikusten, etxekanderea !

Koxe — Debru fitsik ez da azpi huntan !

Mariun — Zozoak ! Inutilak ! Inuxentak ! Beharko duta nihauk lau-azka mublen azpian ibili, ene adinean ?

Xexili — Bainan nik...

Koxe — Bainan guk...

Mariun — Jatsa ezin har piltzar batez inguraturik ! Miatu duzueia ondarki-untzia ?

Xexili — Ez !

Koxe — Ez !

Mariun — Zeren beha hago hor, Xexili madarikatua !

Xexili — Johan niz. (Untzia hartzen du, lurrean itzultzen, eta husten, ondarkinen ikertzeko.)

Mariun — (Koxeri) Eta hi, Koxe, huni so, amiratua ! (ximikatzen du)

Koxe — Atx ! ximikatzen nuzu ! besoa funditzen dautazu !

Mariun — Alferra, hi ! nagi hutsa ! (beharria tiratzen dio).

Koxe — Ou ! beharria ! Ou beharria !

Mariun — Are ! erna norapait ! Mia hautsak !

Koxe — Bon ! Bon ! (bilatzean, hautsak ihaurtzen ditu).

Xexili — Deus ez !

Koxe — Deus ez !

Mariun — Nik behar nuen oraino malur hori ! Jainko maitea !... Bila zazue, ba !

Xexili — Orotan xerkatu dugu !

Koxe — Beti bezain gibel izaiteko ! Ez uzte izan bihar artio xerkatzen ariko girela !

Mariun — Hunen bekokia !... Zer tuk arrazoin tetele hoik ! Mukuzua ez bertzea ! (makil ukaldia). To ! To ! makila hautsiko dauiat sorbalden gainean !

Koxe — Ai ! Ou ! Hi ! Ooi ! Hau emazteki gaixtoa !

Mariun — Joitearen bortxaz, beharbada atxemanen duk.

II

Berak eta Santsin

Santsin — Hau harramantza ! Ala fe, Garruzeko ferian etxu holako arrabotsik ! Karrikatik ezagun txu hemengo oihu garrasiak !

Mariun — Ah ! hor zirea, Santsin !

Santsin — Ba, ba, hemen nuxu, eder eta fresko, saltsa bezain apaindua, ikusten duxun bezala ! Dena parta eta ixtila duxu xure landa. Nihaur ere lohi puxka bat bilakatia nuxu. Ilea lohi, bizarra lohi, eta galtzak buztin-gorri !

Mariun — Gaixo Santsin, ez da deusik hori !

Santsin — Ez dela deusik ! Aise ari xira, xu ! Landan baxine !...

Mariun — Bazinaki zer pasatu den sukalde huntan !

Santsin — (Bazterreri beha) Egia erran, desbitxa ederra duxu barne huntan ! Oro airean ! Hautsak eta ondarkinak zangoen azpian !

Mariun — Ah ! bazinaki, Santsin gaixoa !

Santsin — (Aire grifiatsu batekin) Zer gertatu zauxu ba !

Xexili eta Koxe — (Elgarrekin) Etxekandereak galdu du...

Mariun — Zauzte ixilik, zuek, inbixilak ! Eta horiek oro zeren gatik ? Eltzearen gatik, beltzebuten gatik eta zure galtzen gatik, heien sarestatzen ari bainintzen, gizagaizoa !

Santsin — Ez tixut porrorik konprenitzen.

Mariun — Gaixoa ! Hobe duzu ez konprenitzea !

Xexili — Zu bakean zinen Belegorriko landan. Bazinaki zer bizia ereman dugun hemen ?

Santsin — Errazie ba, azkenian, nik ere jakin dezadan !

Mariun — Ai, ei, ama !

Xexili — Etxekanderea kadiran jartzen da eta zure galtzak galdegiten dauzkit behar dautzula pedaxu bat ezarri ipurdian...Bizpahiru pondu ez zituen egin...

Koxe — Horra non gatuak jauzi egiten duen mahain horren gainerat, sudurra eltzeari, eta pusako batez estalgia aurdikitzen du...

Xexili — Mariun xutitzen da, oihuka : " Hoa hortik, Belzebut ! Ohoina ! Mandila ! "

Koxe — Zure galtzak erortzen dira, makila airez-aire igortzen dio, gatuak jauzi.

Xexili — Eta eltzea uzkailtzen da, porruak alde guzietarat darizkola !

Mariun — Ba, eta geroztik ez dugu gehiago ikusi !

Santsin — Zer ez ikusi ? gatua ?

Xexili — Ez !

Santsin — Eltzea ?

Koxe — Ez !

Santsin — Ene galtzak ?

Xexili eta Koxe — Ez, orratza !

Santsin — Nungo orratza ?

Mariun — Ene orratz ederra, Santsin gaixoa ! Ene orratz luze, orratz fina. Ene altzeiruzko orratz maitea !

Santsin — Orratza ! Hoinbertze kalapita orratz batentzat ? Oihu, nigar, marraska ! Eta patata xurikin hoik sukaldearen erdian.. orratz batentzat ?

Mariun (asarre) — Zer ! orratz batentzat ? Miserablea ! ez dakizu ba zonbat gosta diren ?

Santsin — Bo ! Paketak zonbat egiten tixi ?

Xexili — Bortz libera.

Santsin — Bortz libera ! Beha zaxu ba !

Mariun — Paketean ez dira hamar baizik.

Santsin — Halere ! Duxun fortunarekin...

Mariun — Fortuna ? Zer derasazu ? Pollita litake ene fortuna, orratzak urean barna igortzen banitu !

Santsin — Alo ! Alo ! Mariun ! Orratz baten makurrak ez ahal txitu tturinduko ?

Mariun — Horra zer behar den aditu, hazten ditugun jenden ganik ! Segur niz orotan konda eta konda zabiltzala Mariun aberatsa dela ; dirua metaka biltzen duela ; murru-ziloetan ere gordetzen duela zer-nahi urre, zilar eta paper urdin. Zu zirela kausa, ohoinak jinen zaizkit eta hilen nute.

Santsin — Xaude ixilik, emaztekia. Etxit nik deus holakorik

erraiten... Bainan orratz batentzat, zinez !

Mariun — Horra zer den alargun izaitea ! Ah ! ene Pattin zenak ikusten banu !

Santsin — Har-zaxu bertze orratz bat paketian eta emaxu bakia.

Mariun — Bertze bat !... bertze bat... Badakizu zer mintzo ziren ? Fite fini litake paketa, hats hortan enplegatzen baginitu !

Santsin — Kasu gehiago eginen duxu berriari.

Mariun — Xaharra arras eskukoa nuen.

Santsin — Bainan galdua denaz geroz !

Mariun — Xerka-zazu, kausituko duzu.

Santsin — Hori ez txu ene lana ! Zertako ditutxu mutila eta neskatoa ?

Mariun — Zozo hauk deusetako ez dira. Xerka-zazu, Santsin gaixoa ! Zu gizon seriosa zira, hainitz ikusia eta hainitz ikasia. Ene intresak atxiki nahi dituzu araiz ?

Santsin — Hogoi-ta-hamar urte huntan xuretzat lanean ari bainiz, ez ahal duxu dudarik... Bainan behin behar nikexi afaldu.

Mariun — Afaldu ?

Xexili — Afaldu ?

Koxe — Afaldu ?

Santsin — Zer ba ! Bete zadaxu azita, Xexili !

Xexili — Bainan...

Koxe — Ez da...

Santsin — Zer ?

Koxe — Ez dela afaitekorik !

Xexili — Eltzea uzkaili da.

Santsin — Ez afaitekorik ?

Koxe — Errana dautzugu.

Xexili — Gatua dela kausa.

Mariun — Ba preseski, orduan galdu baitut ene orratza !

Santsin — (asarre) Orratz eta marratz ! Orratz madarikatu horren gatik afaldu gabe egon behar txit ba ?

Xexili — Gu ere bai.

Koxe — Gu ere bai.

Mariun — Ni ere bai.

Santsin — Ja, ja, ja, ja ! Soberakina duxu azkenian ! Goizetik arrats idia bezala lanian ar, lehertia eta gero...

Mariun — Ogi puska handi bat izanen duzu, gizona ! Xexili, emon ogi puska handiño bat.

Santsin — Ogia ! Ogia ! Hauxe dixigu afari ederra !

Koxe — Ez gira ba garizuman !

Mariun — Kasu min har, haurra, ganibet horrekin. Emadan ogia ; nihaurk pikatuko dinat. Orizu, ogi kantail eder hau zuretzat, Santsin !

Santsin — (zinkurinaz) Hum !

Mariun — Hiretzat, Xexili ! Hiretzat, Koxe !

Koxe — Xerra meheño hau bakarrik ?

Mariun — Beha zozue horri ! Kukusoa bezanbat ez izaki-eta, otsoak bezanbat jan nahi !

Koxe — Preseski, handitzeko !

Mariun — Ba, hi beti arrazoinka ! Nik hasteko, ez dut batere janen ! Estomaka arrunt bildua dut, ez bainezake ahamen bat ere ireta

Koxe — Estakuru ederra, bertzen gose atxikitzeko.

Mariun — (samurtuz) Ene intresak begiratu nahi bazinituzte, ni bezain penatuak eta trixtatuak behar zintezkete.

Koxe — Alabainan, ogiak, dolu egiten !

Mariun — Hi, ago ixilik, hire onetan. Aditu duk ?

Koxe — Gerrena bezain mehea niz etxe huntan ! Sobera xuhurra eta zikina zira, azkenekotz !

Mariun — (hats-bahitua) Zer ?... Zer ?... Kakazu horren ahotik zer aditu behar nuen !... (paloak emaiten diozka) To ! To ! irakatsiko dauiat etxekanderearen errespetua !

Koxe — Oh ! ez hazi nahi eta oraino joiten ! Nun da juztizia ?

Mariun — Are ! Habil hemendik. Ez hut gehiago ikusi nahi, alferra ez bertzea !

Koxe — Hori duzuia ! Jainkoak ez zitu benedikatuko.

Mariun — (makila hartuz) Errabiarazi nahi nuka ?

Koxe — (nigarrez ihes eginez) Hi, hi, hi... hil nahi nu (eta ateratzeko kinkan, apalago) Atso tzarra, ordaina izanen dun.

III

Mariun — Egundaino !... Urdia !

Santsin — Hauxe dixigu egun ederra ! Bai, egun ederra ! Zer asea egin dutan haatik xure ogi puskarekin ! Brien bisaia !

Mariun — Xerka-zazu ba poxi bat, Santsin gaizoa. Segur niz zuk atxemanen dautazula !

Santsin — Ja, ja, ja... asexea nuxu orratz demonio hortaz... Estomaka korropilatzen dautaxu !

Mariun — Ea, Santsin, utz-azu mutur salda hori !

Santsin — Zer nahi duxu bila dezadan ! Iluntze huntan ez txu deus ere ikusten.

Mariun — Utz dezagun bada orratza bere ohantzean. Bihar goizean, xerkatuko dun, Xexili ?

Xexili — Bai, etxekanderia.

Mariun — (otoitz egiten du) San Antonio Padukoa, entzun-azu ene otoitza ! Ene orratza atxemaiten badut... ene orratz ederra.. hitz emaiten dautzut tortxo handi bat, eta erretzerat utziko dutala bururaino !

BIGARREN AGERKIA

Karrikan

Alde batetik Pegarbaita.

Bertzetik Xauxunenea.

I

Koxe eta Gregoria

Koxe (bakarrik) — (bere ogi-xerra jaten duelarik) Ah ! sorgin zaharra, jo nun, zimikatu nun, beharriak tiratu dauzkidan. Hitz eta promes daunat ez hutala huts eginen, parada dukatenean. Aditu nahi ez duenak ezkilarik ez dezala tira kordarik... Afariteko tenoreak segurik aspaldi jo du ene tripan. Debrintxoa gose niz... Ea, behako bat Gregoriaren sukaldeari !

(Leihotik so egiten du) Mahainean jarria da gaixoa afari ontto baten aintzinean ! Hou ! zopa horren usainari ! Alta xingarrak ere itxura ona du ! Ez nauke !

(Leihoari joka) Gregoria ! Gregoria ! Jainkoak dagizula gau on !

Gregoria — (barnetik) Hi hiza, Koxe ! Gau on !

Koxe — Egizu afari, Gregoria !

Gregoria — Gauza bera, puttil !

Koxe — Ba, nik laburra dut laburra, gaurko afaria !

Gregoria — (leihorat heldu da, ahoa beterik) Hire afaria ? Zer ? Ez ahal duk ogi-xerra hori ?

Koxe — Ba, maluruski, idorrik eta hutsik, deus jakirik gabe !

Gregoria — Giza-gaizoa ! xingar xaflafio bat emanen dauiat gainean ezartzeko.

Koxe — Hori haatik !... Bai plazer egin zinezaket !

Gregoria — Bainan, harritzen nuk ! Mariunek ez hobeki hazten ?

Koxe — Zer nahuzu ! Hain pobre da !

Gregoria — Pobre ? Mariun ? Behauk hortik ! Irriz ustel-arazi nahi nuk !

Koxe — Ba, berri-berrikitan oilo xuria ebatsi diote, egun guziez erruten zuen bakarra !

Gregoria — Oilo xuria ebatsi ?

Koxe — Badakizu nortaz jelostua den ?

Gregoria — Nortaz ?

Koxe — Ez duzu nehori salatuko, erraiten badautzut ?

Gregoria — Zertako nahi duk salatzea ?... Nork ebatsi dioke ?

Koxe — Haren arabera... bainan, otoi, ez duzu saltsarik nahasiko ?

Gregoria — Zer apentzia ! Zer joan zait eni ?

Koxe — Horra... erraiten du zuk egin diozula !

Gregoria — Zer ?

Koxe — Zuk... edo zure neskatoak !

Gregoria — (ez jakinez ea irri egin behar duen ala asarretu) Espres ari hiz, araiz ?

Koxe — Ez, ez, zin-zinez ! Xexilik segurtatu dio bazkariteko erre-arazi duzula.

Gregoria — Jesus ! Zer dute ixtorio hori berriz ere !

Koxe — Ba eta hexurrak ere ezagutu omen ditu zuen ongarriaren gainean !

Gregoria — (furian jartzen da) Hoi haatik !! Nik hari oiloak ebatsi ! Soberakina da ! Pozoin tzarra ! Ez diat kitorik utziko !

Koxe — (Kontent) Etzitela samur, Gregoria ! Etzazula erran deus ere badakizula.

Gregoria — Jin bedi jeusen aipatzerat. Hitz dauiat irri eginen dugula.

Koxe — Bainan etzozula zuk lehenik aipa ! Ez nezazula eman barne, Gregoria !

Gregoria — Zer kopeta !... Ikusiko du...

Koxe — Ez dut nik deus hobenik !

Gregoria — Tantiruri, oro elgar iduri. Habil haren ganat, ergel alaena !

Koxe — Hoi haatik !... Abisatzen zitut, eta gero.

Gregoria — Errok xehetasunak nahi baditu, haren zerbitzuko nizela hemen ! Gau on ! (Leihoa hesten dio sudurrerat).

Koxe — Hau ixtorioa ! Ene falta dea ? Eta xingarra ?... Eta zopa ?.. huni ere mendekatu behar nitzaio ! (Mariunen etxerat buruz doa ; etxekanderea ateratzen da hainbertzenarekin.)

II

Koxe, Mariun, Xexili eta Santsin

Mariun — Norat joana hintzen ? Zer duk ala gaua kanpoan pasatu nahi?

Koxe — Etxekanderea...

Mariun — Ea, hemendik oherat fitexko, ez baduk nahi nik beharritik laguntzea...

Koxe — Ez ! Adi nezazu, Mariun ! Badakit nun den zure orratza.

Mariun — Zer ! Badakikala nun den orratza ?

Koxe — Bai, zerbait gogoratu zait, arrunt ahantzia nuena...

Mariun — Zerbait ? Errak bada fite !

Koxe — Oxtian, xerka ari ginelarik...

Mariun — Eta ?...

Koxe — Sukalde zolan zinen... Xexiliekin... Atera buruz itzuli naiz... Bet-betan begiak alxatzen ditut eta ikusten dut Gregoria pasatzen...

Mariun — Gregoria ?

Koxe — Mementoan ez dut kasu egin, bainan orai ontsa pentsatu-eta... Bai, ukurtu zen hola eta frixt xutitu... zerbait bildu balu bezala ate aintzinean.

Mariun — Zerbait bildu ?

Koxe — Ba, eta hola egin du... nik ez ikusteko.

Mariun — Hik ez ikusteko ?

Koxe — Eta badakizu zerk eman dautan gogoari ?

Mariun — Zerk ?

Koxe — Oraintxet, haren aintzinean pasatzean, josten ari baitzen argi-pean... Haren erhien artean ikusi dut altzeiruzko orratz luze, mehe, dirdiratsu bat...

Mariun — Ene orratza, alaintsot !

Xexili — Zure orratza !

Santsin — (hurbildu eta) Etxu beraz galdua !

Mariun — Ez galdua ? Ez galdua, bainan ebatsia !

Santsin — Bederen badakixu nun den !

Mariun — Harek eni orratza ebatsi !!!

Xexili — Oh !!!

Mariun — Ez niz estonatzen... Aspaldian errana nuen emazte horrek ez duela fitsik balio !

Santsin — Ba, halere xure iturriko laguna zuxun : zonbait oren eman ditutxu harekin kalakan.

Mariun — Kalakan, kalakan ! Ez du horrek erran nahi jendea estimatzen dela... Ikusten duzu orai zertaz den kapable.

Santsin — Erreposki, otoi ! Funtsean zer dakixu ? Orratza harena balitz ?

Mariun — Harena ? Ba aise !... Ez du ez harek holako orratzik. Tipi horrek berehala ezagutu du. Jujetarat ereman behar dut, debrua ez badu...

Koxe — Jujetarat, etxekanderea ?... Bainan, jujekin badakizuia zer despendioak izänen ditutzun ?... Ez ote ginuke hobe hari berari galdatzea ?

Mariun — Arrazoin duk, Koxe. Aldi huntan arrazoin duk. Goazen ! Segi, zuek. Bereak behar ditu aditu !

Santsin — Kasu haatik tronpa !

Mariun — Ez naiz airerat ari ! Goazen aintzina !

Koxe — (Bere buruarekin) Hum ! Uste dut orai ez dutela ene beharrik ! Urrundik ikusiko dut ! (Gordetzen da).

III

Mariun, Santsin, Xexili (gibelxka), Koxe (gorderik) eta Gregoria.

Mariun — Gregoria ! Gregoria !

Gregoria — (leihorat) Nor da hor ?

Mariun — Gregoria, turna zadazu, otoi, berehala, plazer baduzu, ene ontasuna ! Hogoi urte huntan auzo baigira, ez dautzut nik uli-ttita bat ebatsi. Turna zadazu enea dena bakean bizitzeko !

Gregoria — Zer dun, debru nahasia, hunat jiteko hire ixtoriorekin ! Mutila ere zertako ekarri dun hunat, ala ni etxean eho nahiz ?...

Mariun — Zer ditun oihu hoik ! Ez nun hoin aise izituko ez ! Ene ontasuna nahidinat, eta izanen dinat ! Uste dun zer nahitako libro hizala ? Ikusiko dun !

Gregoria — Hail antzara ferratzerat, hire ontasunarekin ! Hi eta hire jende piltzarrak ! Kopeta badun erraiteko ohoin bat nizela ? Ohoina ni ? Ebatsi daunat nik ?

Mariun — Jakizue ez naizela airerat mintzo. Frogak baditut, froga onak oraino ! Ene atean, ebatsi dautan, bai, ate aintzinean !

Gregoria — Erakuskin hire grogak, erakuts !

Mariun — Baditinat eta aski dun, aditu dun !

Gregoria — Aise mintzo hiz ! Are, are, ahalge behar hintake, sorgin zaharra !

Mariun — Nor ahalge ? Ez hiz hi segurik kontzientzian trebukaturik behaztopatuko !

Gregoria — Beha zozue zalamandrana horri !

Mariun — Ematzarra, neska tzarra !

Gregoria — Sar hadi hire zorritegian ! Bertzenaz !...

Mariun — Hi, emaztea bahiz, atera hadi hire zimitz-kaiolatik. Beldurtia !

Gregoria — Beldur ni ? Beldur ni ?

Mariun — Haugi ba hunako bat, santsana ez bertzea !

Gregoria — (ateratuz) Huna nun nizan, suge bipera !

Mariun — Urdesa, ez zain oren laurden hau behin ere ahantziko !

Gregoria — Zer uste dun, parasol hautsia ! Bi ukumiloz hogoi-ta-bortz puska egiten hut !

Mariun — Ikusiko dun, arno-kuia !

Xexili — Emozu, Mariun ! Jo, ausik, aztaparka-zazu ! Matelak marka ! Begiak errotik egin !

Gregoria — Hori duna ? No, atxeman, kaheka tzarra ! Ikasan hire mihi zikinaren atxikitzen. No ! kaska hau ikasteko zer den lehen auzoen errespetua !

Santsin — Hep ! Zer da hau ? Ez dut deusik ikusten nik ! Bon maitea ! gure Mariun lurrean !

Mariun — (deika) Santsin !

Santsin — Xuti hortik, Mariun ! Hop la ! Norat joan da basa-astaña hori ? Nik matatuko dut.

Gregoria — Hik ? Debruen zizari-pikatzale, ipurdi airatua !

Santsin — (Mariuni) Atxematxu gibeletik !

Mariun — No, frikuna, atxeman !

Gregoria — Ah ! bipia, hi ! Ene bizkarrean jostatu nahi hiz ? No, hire penarentzat ! Zangarretan !

Mariun — (erortzen da) Hu !

Gregoria — Kontent hiza ? Ez badun aski, ez pasa gabe ; hire zerbitzuko nun ! Gau on, xori-mamua ! (Etxean sartzen da).

Xexili — Hep, Mariun !

Santsin — Nun xira ?

Mariun — (zinkurinaz) Hemen lurrean ! Lagun nezazu, xuti nadin !

Xexili — Jainko maitea !

Santsin — Ea, xuti !

Mariun — Zure gainean kondatzen nuen, Santsin !

Santsin — Hoin fite pasatu duxu ! Iluntzen ere hasia... Bainan ikusiko duxu... Bon maitea ! Bere etxeko borta zerraturik ihes egin dixu, den bezalakoak !

Mariun — Emadazue besoa, eta goazen etxerat. Hu !

Xexili — Orduan zure orratza galdua da !

Mariun — Galdua ? Hitz daunat ezetz. Mera gizon puska on bat badugu, ene senar zenaren anai-erdia. Haren bila igorriko dut. (Oihuka) Koxe !

Xexili — Nun da ? Koxe !

Santsin — Itzali da ? Koxe ?

Koxe — (herabe bezala heldu) Deitzen nuzu ?

Mariun — Bai, nun hintzen ?

Koxe — Eta... eta... lapinen hesterat...

Mariun — Hail meraren ganat, berehala jiteko.

Koxe — Meraren ganat ? Tenore huntan ?

Mariun — Errok ikusi behar dutala, egiteko biziki serios batentzat.

Koxe — Bere etxean izanen dea, solament ?

Mariun — Segurki baietz, tenore huntan finitzen ohi du bere afaria !

Koxe — Eta... nahiko duia desarranjatu ?

Mariun — Oh ! habil harekin, Xexili ! Tonto horrek ez dauku bakarrik deus onik eginen !

Koxe — Ez, ez ! Bakarrik johan niz !

Mariun — Zoazte, biak... eta zagozte ixilik ! Badut aski erranik !

Xexili — Haugi, Koxe ! (badoa)

Koxe — Ai, ai ! Saltsa hau ez ote den mintzen hasia ! (badoa)

Mariun — Sar giten, Santsin ! (Santsin eta biak etxean sartzen dira)

HIRUGARREN AGERKIA

Mariunen etxean

I

Mariun eta Santsin

Santsin — Holaxe ! Sar xite pollikiño, etxekanderia.

Mariun — Ai ! Doi-doia banabila ! Uste dut sahets-ezur guziak hautsi dauzkidan !

Santsin — Jar xite, alki hortan !

Mariun — Bai... (jarri nahi da) Hu ! Oh ! Ai, ai, errainak ! Zangoak ! Deus ezin plega !

Santsin — Ez, ez naiz jarriko ! Jar banindadi ez ninditake geihago xuti !

Santsin — Ohea behar duxu, xuk ! Xauri. Ganbaralat lagunduko xitut.

Mariun — Bai, ohea !... Ez da bertze erremediorik. Haatik behar dut jaun mera mintzatu lehenik !

Santsin — Ba, bainan... nola egonen xira haren beha ?

Mariun — (alkiaren bizkarrari bermatuz) Xutik goaitatuko dut, Santsin, bai xutik !

Santsin — Izanen duxia aski indar ?

Mariun — (handi-handia) Mendekioak sustengatzen nu ! Herrak haziko nu !

II

Mariun, Santsin, Koxe, Xexili eta jaun mera

Koxe — (lasterka) Horra jaun mera !

Xexili — Gurekin heldu da.

Mariun — Ontsa da. Zaudezte hor, biak.

Koxe — (joaiterat eginik) Bainan... eta... oherateko tenorea dut !

Mariun — Erran dautzuet egoiteko. Aski hola !

Koxe — (ahapeka bezala) Bon ! Bon ! (Xoko batean emaiten da, ahantziko ahal dutelakoan).

Mera — Eia, eia, Mariun, zer da, zer gertatzen da ? Afera handi zerbait, dudarik gabe, ni hola gauez gau desarranjatzeko ?

Mariun — Ah ! bazinaki, jaun mera ! Estatu batean niz...

Mera — Zer ! Eri zirea, Mariun ?

Mariun — Ez eri, ez ! nahiz eritzekoa baden ! Bainan deboilatua, desolatua, infrentzuz emana...

Mera — Eia, eia, ezti zaite...

Mariun — Ene altzeiruzko orratz ederra galdu dut. Ebatsi daute, jaun mera ! Eta haren ordain, ileak errotik egiten dauztate, xirtxikatzen nute, laidostatzen nute...

Mera — Eia, mintza zaite klarki.

Mariun — Klarki ? Bainan...

Santsin — Nik erranen dautxut, jaun mera.

Mariun — Bai, zuk errozu, Santsin, errozu !

Santsin — Horra ba, zer gertatu den : aise konprenituko duxu. Gure etxekanderea hemen jartzen duxu ene galtzen arranjatzeko, ez dea hala ? Gatia ikusten dixu eltzian ; xutitzen duxu gatiaren kasatzeko. Ene galtzak erortzen tixu, ez dea hala ? Eta gatia eskapatzen duxu eltzia uzkaili-eta. Nehor ez duxu orratzaz orroitzen ere. Bainan xaude, jaun mera ; memento hortan, horra non Gregoria kankaila hori borta aintzinetik pasatzen den, "gau on" erraiteko bezala, ez dea hala ? Orratza ikusten dixu eta biltzen. Bainan denak jakiten baitira. Orduan gure etxekanderia joan ziakoxu pollikiño bere ontasunaren galdatzerat. Ez txu hortan erraitekorik, ez dea hala ? Bainan bertzeak fitsik ez entzun nahi. Zer nahi erranka hasten ziakoxu, eta jo zak eta emak, ukumilokal--dika, ostikoka... Eta izen batzu, jaun mera, izen batzu... nik erran nahi ez nuzkeenak ! ez dea hala ? Ba, jauna, eta azkenian, ez banintz bien artian plantatu, horien baketzeko, hil-herrietarat lagundu behar xintuzke, ez dea hala ? Orai gauza klarki badakikexu, jaun mera !

Mariun — Bai, denak hala dira, jaun mera ! Ez denetz haatik soberaxko, jendea ebats eta gero berriz hilka jo !

Mera — Ba, biziki sobera segur eta halere ! Bainan afera hunek itzalño zonbait baditu...

Mariun — Itzalak ? Iguzkia bezain argia da.

Mera — Ez dut erraiten... bainan... halere... Gregoria behar dugu mintzatu. (Xexili-ri) Zoazi haren bila, haur maitea !

Xexili — Berehala, jaun mera ! (ateratzen da).

III

Berak, Xexili salbu.

Mera — Mariun, segur zireia erraiten duzunaz ? Ez da gauza ttipia, norbaiten akusatzea, eta...

Mariun — Oh ! jaun mera ! Harritzen nuzu ! Zer zaitzu bada, ala buru arin hetarik naizela, ni ? fitsik jakin gabe, burua

beroturik, mintzatzen diren hetarik ? Adina badut, esperientzia badut. Ez ahal duzu ene fede onaz dudatzen ?

Mera — Ez ! Ez ! Mariun... Bakarrik...

Mariun — Ezagutzen nuzu, jaun mera, ene senar zena ezagutzen zinuen. Ez gira jende zuzen eta xuxenak gure familian ?

Mera — Baietz, bai... Ez dut erraiten...

Mariun — Ah ! Jaun mera, penatzen nuzu ! Ez nuen holakorik uste zure partetik !

Mera — Eia, eia, ez zitela samur ! Orizu, horra gure Gregoria !

Mariun — Zainak biltzen zaizkit hura ikustean ! Ez kasurik egin haren ixtorioeri, jaun mera ! Emazte mota horiek oro, titulikatzaileak dira !

IV

Berak, Xexili eta Gregoria

Gregoria — Jainkoak dagizula gau on, jaun mera !

Mera — Bai eta zuri ere parte on, Gregoria !

Mariun — (ahapeka bezala) Lausengaria !

Mera — Gregoria, afera ttipi bat nahi nuke argitu !

Gregoria — Bai, badakit ! Akusatu nu ! Suge-bipera horrek, ziminosa horrek ohoina nizela erran daut !

Mera — Baraxe, baraxe ! Ez zitela hola asalda !

Mariun — Aditu duzu ? Zer mihi garbia ?

Mera — Asarreak ez du onik. Mintza giten eztiki !

Gregoria — Gainditua niz... jaun mera !

Mera — Eia, eia, froga ditazken gauzak erran ditzagun...

Gregoria — Froga ditazken gauzak ? Huna bat : eguerditan aratxekia jan dut.

Mera — Zure dretxoa zen, bainan ez du horrek deus ikustekorik gure egiteko huntan.

Gregoria — Ez duela ikustekorik ?

Mariun — (ahapeka) Burutik badu !

Gregoria — Ene ondarkin guziak miatzen ahal ditutzue : oilasko hexur bakar bat atzemaiten baduzue...

Mera — Ez dugu jakitearen beharrik zer duzun jaten edo edaten...

Gregoria — Barkatu, barkatu ! (Xexili erakutsiz) Xexili xirtxil horrek behar du hemen aitortu denen aintzinean, ene kontra erran duen gezurra !

Xexili — Oh !

Mera — Hori bertzalde duzu... Zeren josten ari izan zira arratsalde huntan ?

Gregoria — Josten ? Zer ? Josten ?

Mera — Bai, emadazu arrapostua.

Gregoria — Aitor dautzut galde horrek estonatzen nuela.

Mariun — Ikusten duzu, jaun mera, ez du ihardetsi nahi.

Mera — Estona ala mestona, emazu otoi arrapostua.

Gregoria — Egun ez dut deus ere josi. Ez dut sekulan josten. Ez dut sofritzen ahal josturan artzea. Ene linja kanporat igortzen dut sareztatzerat.

Mariun — (ahapeka) Abilki mintzo da !

Mera — Norbeitek erran du bada ikusi zaituela.

Gregoria — Nor ere baita, errozu ene partez goraintzi eta amets egin duela. Utz ditzagun pegesa horiek. Huna jina niz frogatu nahiz ez dutala ebatsi.

Mera — Preseski.

Gregoria — Har-azu argi bat, zoazi Mariunen oilotegirat. Haren oilo xuria han da.

Mariun — Ene oilo xuria ? Behar ere !

Gregoria — Bai, nihaurk ikusia dut. Horrek erran nahi du gezurra pentsatu dutela ene fama zikindu nahiz.

Mera — Eia, eia, utz dezagun ixtorio hori.

Mariun — Zer derasazu ? ene oilo xuriak ez du frogatzen ez dautazula ene orratza hartu !

Gregoria — Har-azu argi bat, zoazi Mariunen oilotegirat ?

Mera — Haatik akort behar zertaz duzuen auzia ! Orratz batez deitu nute hunat.

Mariun — Ebatsi dautatena.

Gregoria — Nork ?

Mariun — Zuk.

Gregoria — Nik ? Orratza ebatsi ? Oiloa ez zena aski ?

Mariun — Zer oilo ?

Gregoria — Nik ebatsi dautzulakoa !

Mariun — Nork akusatu zaitu ?

Gregoria — Zuk !

Mariun — Nik ? Ez dut sekulan oilorik aipatu ere.

Mera — Eia, eia ! Nunbait izan behar da nahaspildura zerbait. Nundik sortu da oilo ixtorio hori ?

Gregoria — Koxe, haren mutil ttipiak parte egin daut medisentzia hortaz.

Koxe — (bere xokoan) Ai !

Mariun — Koxek ?

Mera — Eta nork eman zautzun zuri segurtamena Gregoriak orratza hartu zautzula ?

Mariun — Eta... Koxek !

Mera — Oh ! oh !

Koxe — (bere burua gordez) Ai, ai !

Mera — Nun da Koxe hori ?

Mariun — Koxe, haugi hunat !

Koxe — Eta... barkatu... Deitzen nuzu ? Lo nindagon !

Mariun — Lo ! Iratzartuko hugu, apo tzarra !

Mera — Hurbil zaite, Koxe ! Aitor-aitzu zure gezurrak.

Mariun — Eta hitz dauiat pekatuko ditukala !

Mera — Eia, eia, errak egia, hizan bezalako frikuna !

Koxe — Horra, jaun mera... Hala da... Baditake gauza batzu erran ditudan... Noiz nahi erreberiak baditut.

Mariun — He ? Zer ?

Mera — (irriz) Erreberiak !

Koxe — Ba, jaun mera ! Ahuleziak egiten daut ez bainiz ontsa hazia...

Mariun — Hunen kopeta !

Mera — Ez ontsa hazia ? Bainan... hire sehi lagunak ez dira ba pleinitzen...

Santsin — Ez pleinitzen... ez pleinitzen... baditake, gu ez ; gure estomaka da pleinitzen...

Mera — Hum !

Mariun — Bon ! bon ! Aldi huntako barkatzen diot : onegia naizelakotz, funtsean !

Gregoria — Aitortzen duzue bada ez dutala hobenik ?

Mera — Ba segurki, Gregoria ! Eta otoizten zituztet bi auzoak berriz ere adixkide zitezten ; eia, emazue elgarri eskua !

Mariun — (oihu bat eginez) Ah ! Bainan...

Mera — Zer da ?

Gregoria — Zer duzu oraino ?

Santsin — Zer duxu ?

Mariun — Bainan... bainan... ez badaut ebatsi, ene orratza galdua da !

Mera — Zer eginen da ?

Santsin — Hala da ordian !

Gregoria — Zer nahi duzu nik egitea !

Mariun — (nigar-hipaka) Ez, ez... Ez dut holakorik jasanen. (Alkian erortzen da alditxar bezala, bainan berehala xutitzen da kolpez oihu izigarri bat eginez). Ai, ai, ai !

Denek — Zer duzu ? Zer da ? Zer gertatzen zaitzu ?

Mariun — Ene... ene... (zaia miatzen du eta azkenean orratza ateratzen du) ene orratza da !

Denek — Jesus ! Hau ixtorioa ! Orratza ! Orratza atxemana !

Mariun — Kadiran eroria zen nik uste, puntaz goiti ! Gibel-aldean min egin daut, bainan zer goxoa bihotzean, orratza atxemanik !

Mera — (predikari bat bezala) Orroit bada nehor ez dugula sekulan arinki akusatu behar, andere Mariun !

Mariun — Ah ! Hobeki naiz ; ez ditut gehiago ene doloreak senditzen. Milesker, San Antonio handia !

Santsin — Nik ere atsegin handia nukexu, orai afari on bat baginu,
besta hunen bururatzeko.

Mariun — Gaizo Santsin, badakizu gaur ez dutala deus ere etxean !

Gregoria — Alo ! Zatozte ene etxerat ; elgarrekin afalduko gira :
zu ere gomit zira, jaun mera !

Denek — Hola du bururatzen orratzaren komedia.

P. ITHURRALDE

GURE HERRIA
1955
Bº 2. Mars-Avr.
pp. 97-115.

" Milla euskal olerki eder "

Aita Onaindiak orai berriki Karmeldar idaztietan ager-arazi dauku izen ospetsu horrekilako liburu handi bat : 1.200 orrialde badauzka eta mila olerkiz goiti, ezin pollikiago argitaratuak, paper mehe garbi batean, hitz irakur-errex eta begikoetan.

Aintzin solas bat ezarri dio Nicolas Ormaechea (Orixe) olerkariak. Harek poesia edo olerkiari bi hagal emaiten diozka : "egia" eta "zentzua", "veritas et judicium", liburu sainduek Jainkoaren egintzeri ezagutzen diozkaten dohainen arabera.

Aita Onaindiak atari edo sar-hitzaldi luze batean badu zer erran euskal olerkiaz eta olerkariez ere. Fraile hunentzat eder-minak sor-arazten du olerkia, eta edertasuna ez da egiaren dirdira baizik : haatik ez da aise erraiten ahal, zerk duen egia dirdira-razten, ala asmuaren argiak, ala sendimenduaren suak, ala hitzaren ferekak, ala hiruek betan ; eta nun den bertsu edo neurtitzaren ezagutgarri lehena ere, ez da ontsa ageri : batzuek esker hainitz badiote bertsuaren buruan emaiten duten ots berdinari : bertze batzuek jasan-gaitz omen dute, eta hitzen neurkadari kasu gehiago egiten diote, nahiz neurkada mota asko asma ditazken, elgarretarik arras bertzelakoak.

Aita Onaindiak ez du iduri deusen ez nehoren etsai dela, eta bere liburuan berdin onhartzen ditu gisa guzi-guzietako bertsuak : hala egin behar zuen ere, gure gostuko.

Bere sar-solasean gure adixkideak aipatzen dauzku hamabi plametan Eskual-herrian lau mendez izan diren olerkari edo neurtitzlari gehientsuak : 350 izen badire segurik.

Gero erraiten dauku nun ibili den arraintzan hoinbertze kobla biltzeko : badu zonbait liburu eta paper ikerturik, eta xoko-moko

miaturik !

Azkenean aitortzen du kobla guziak ezarri dituela ortagrafa berean, onhartuz Euskalzaindiak 1920-eko urtarrilaren 8-an erabaki zuen idazkera.

º º º

Liburua bera hiru zati egina da : herri-olerkiak, lau mende, gure mendea. Gainerat bertsulariek badute beren xokoa.

Herri-olerkiak kantu zaharrez eginak dira : badire gerta-kantuak, amodiozkoak, irri egitekoak, arno-kantuak, kantikak eta pastorala zati batzu : orotarat 139 olerki.

Literaturari doazkon olerkiak gisa guzietakoak dira : 10 poema Decheparenak 16-garren mendeko ; 42 koblaldi 14 egilenak 17-garrenekø ; 35 hemezortzi egilenak 18-garreneko ; 254 laurogoi-eta-hameka egilenak eta 27 izengabe 19-garreneko ; azkenean 383 poema 154 koblarienak hogoigarren mende huntako.

Bertsularien sailean 13 bertsu-aldi.

Bilduma hori lan gaitza da, eta behar zen kalipu hari lotzeko. Askok ez zakiten hainbertze kobla bazitakela eskuaraz. Orai bazterretan froga badukete, Onaindiari esker, eta ez dira guti harrituko ikusiz zonbat edertasun baden gure bertsu zahar eta berrietan.

Goresmenik bizienak zor zaizko eskuararen eta Eskual-herriaren izenean. Bada bilduma hortan zer irakur eta zertan gogo-bihotzak pulunpa, arbasoen jeinuaz orroituz.

Horra lehen irabazia, ez baita txarrenà.

º º º

Gure ustez lan horrek bidea idekiko diote bertze hainitz laneri. Eskualariek izanen dute nun zer bila, nun zer xuxent, nun zer zila.

Onaindia jaunak ezarri dauzku poema batzu izengabekoetan, heien aita ezagut ditakelarik. Hala nola Monho-ren "Oilar kolpekaria",

Zaldubi-ren "Amaxo bere ilobarekin", Camoussary-ren "Ene xaramelaren auhen minak", Daranatz-en "Eskuara", nahiz Arbelbiden "Igande"-ko aintzin-solasetik sortua den, Larralde-n "Mutil zaharra", eta bertze.

Bertzalde koblarien izen-deiturak zertako ez utz beren ortografa jatorrian ? "Robin" jaunarena ezin ezagut ditake "Errobin" bilakatuz geroz.

Behar da ere kasu haundia egin deitura edo izen-orde bereko jendeak baditezkela, nori berearen emaiteko. Bada Nabarro bat Sarakoa, bertze bat Bidarraikoa ; izan dira bi Pette Chibero, nahiz Onaindiak ez dituen aipatu ez bata ez bertzea ; J.B. Elissamboure "Emazte edale"-aren egilea guarda zen, ez zuen deus ikustekorik J.B. Elissamburu kapitain ohiarekin. Aldiz Eguiatéguy Duvoisin-en izen-orde bat zen ; bainan ez dut uste Darrupe-Harluchi Elissamburu handiaren izen-ordea zitaken. Bi Katcho baziren, bat Hazparnen, bertzea Uztaritzen. "Ttipi" ez zen apeza. Eta jakin behar litake Ziburutar eta Ziberotar ez direla elgarren betekoak. S. E. eta Simun Erramouspe ez dira gizon bakar bat baizik.

º º º

Lan horrek bide emanen diote ikertzaleri bilatzeko zoin izan diren gure olerkari zonbaiten iturburuak.

Aita Onaindiak bide-nabar erran dauku Suescun-en "Ni zertako" Lope de Vega-ren poematxo batetik itzulia dela ; gisa berean, Jose Joakin Ormaechea-ren "Zu-gatik" Sappho-ren bertze batetik ; Oihenart-en iturburuak ere salatzen dauzku Francisque Michel-en erranetik.

Bainan balitazke bertze iturburu hainitz aipatzeko, bai latin, greko, bai aleman, angles, español, frantses eta kaskoin mintzairetan Ahaidegoak aurki ginitzazke Virgile, Juvenal, Marot, Nodier, Victor Hugo, Lamartine, Delille, Richepin, Botrel, Oelty eta bertze batzuekin. "Andre lokartua"-k gogorat ekartzen dauku "Dessous le rosier blanc" ; "Ahetzeko anderia"-ren kantuak eite hainitz badu

Santa Elisabeth-en ipuiarekin. "Mutil zaharra" Larralde jaun mirikuak frantsesetik itzulia zuen, nahiz frantses kantua biziki ahulagoa den : David mirikuak ihardespen gaitza eman zion, liburuan ikus ditaken bezala. On da jakitea "Adora dezagun" Zaldubik berritu zuela Monho zenaren kantika batetarik.

Oharpen hoiek ez dute axal-axaletik baizik hunkitzen sail hori, erakusteko badela jakintsun ikertzalentzat zer egin.

"Milla Olerki" horiek bertze lan bati ere eman dezokete bide. Nola egin diren olerkiak menderen mende Eskualdunen artean, behar litake xehe-xehea erakusterat eman.

Badakit herri-bertsuez Lecuona-k eta Ithurriague-k eman daukutela asko argi : J.M. de Leizaola-k ere badu zerbait eginik "Estudios sobre la poesia vasca" liburu ederrean ; Zaldubi eta Orixe ere ari izan zaizku jakintsuki gai hortaz ; bainan bada oraino hainitz erraiteko. Bustintza, Arin, Loidi, Domingo Aguirre, Mirande, Etienne Salaberry eta bertzen olerkiez behar ginuke zerbait erakaspen berri.

º º º

Aita Onaindiaren lan ederrak eskuetara emaiten dauku beraz eskualdun olerkiaren ezagutzeko liburu balioza eta haren sailari jarraikitzeko parada ona.

Bi karia hoietarat eskualzale guziek eskerrak diozkate beren esku-zarta beroenekin.

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1955
Nº 3. Mai-Juin
pp. 148-151

Eskual-hitzak

nola errexkiago eta hobeki

ikas

Eskuara, bertze edozoin mintzaire bazala, hitzez orratua denaz geroz, hitzak ikasi ez dituguno, ez dakikegu eskuararik.

Hitz hainitz behar ote da, mintzaire baten jakiteko ? Ez dut uste. Frantzian Bossuet-ek ez zituen bi mila erabiltzen, Racine batek milaño bat, Pascal batek zonbait ehun doi-doia. Alta fama handiko idazlariak dira, hitz bakar horiek errotik ezagutzen zituztelakotz eta hetaz ezin hobeki baliatzen zakitelakotz. Hitzen arteko joskerak premia gehiago badu, hitzen andanak baino.

Ikasleak Eskualdun gehienek erabiltzen dituzten sei-zazpi ehun hek ikas bitza lehen-lehenik, hek gogoan har, hek ongi ezagut, hek aldez eta moldez uztart batzu bertzekin eskuararen molde berezietan.

Eskual-hitzen ikasteko eta erakasteko, erdal-hitzentzat erabiltzen ohi diren bide ber-berak hartuko ditugu. Ez zait iduri mintzaldiño (1) hunek deus berriagorik ekarriko dautzuen. Jadanik zuetarik gehienek atzo erranak zahar-berrituko ditugu bakarrik eta pondu batzuetan osatuko, bertze asko pondu hunkitu gabe utziko ditugularik, nahi-t-ez.

Aditzalek agian gaizki erranak xuxenduko dauzkute eta hutsak beteko ondoko salasetan.

Haur ttipia ikastegirat etortzen den lehénbiziko urtean segurik, ez zaio eman behar liburutik, eta taula beltzean erientak ez dio hitzik idazten : itxura batzu marreztatzen diozka, eta bada aski.

Adin hortan beharritik sartu behar zaizko hitzak haurrari, eta

---

(1) Lafitte jaun kalonjeak mintzaldi hau egin du Ikas batasuneko eskola-emailer.

ahotik ateratu. Hots ! adi bitza, ongi har, errepika berak bakarrik edo lagunekin baltsan, begiek gauzak ikusten dituztelarik, sudurrak senditzen, eskuek hunkitzen edo jestuz itxuratzen. Erakaslearen lana da hitz hoien hautatzea eta kasu-egitea ea haurrak xuxen entzuten dituenetz eta xuxen ahoskatzen.

Hitza huts-hutsik ikas dezala haurrak, artikulu eta gaineratikorik gabe : etxe, leiho, ate, lur, iguzki ; haste-hastetik etxea, leihoa, atea erranez nahasten da haurraren gogoa ; ez daki nola itzul, ea erran behar duenetz etxea bat ala etxe bat, eliz bat ala eliza bat.

Hitzak hutsik eta buluzik ikasi-arren, ez ditu bakarka erabiliko ; eleka eta solasean has dadila lehen-bai-lehen. Eskol-emailea ar dadila harekin galde-ihardeska, behar orduan makurrak xuxenduz, bainan ez garrazki eta pazientzia hainitzekin. Eskuarazko kantu errex pollit batzu eman ditela artetan, eta josteta batzu ere asma, papaitaka edo bertzela. Haurrean ari ginen, denak birundan edo errundan jar-eta, batek pilota bertze bati igor hitz baten hastapena erranez : be. Pilota hartzen zuenak behar zuen hitza berehala bururatu, erranez edo ti (beti) edo so (beso) edo bertze holako. Gero hunek pilota bertze lagun bati bidaliko zion, berriz be oihukatuz, eta norbait gelditzen zelarik hitza ezin bururatuz galdua zuen. Hots ! alegeraki iragan dadila eskual-ordua.

Ω
Ω Ω

Haurra handitzearekin, erran gabe doa beharko zaiola erakutsi bai irakurtzen bai izkiriatzen.

Ohart-araz dezagun eskuararen idazkera edo ortografa frantsesarena baino miletan errexagoa dela.

Liburu eta kaierek ez dituzte hargatik aho-beharriak tapatuko, lagunduko baizik.

Irakur-aldiek eman behar dute hitzen ikasteko eta heien erabiltzeko parada, ez bakarrik kondaira labur pollit batzu izkiriatu, bainan ahoz kondatuz eta solasean ari izanez, lehenago bezala bainan gizonkiago.

Bizkitartean hitzak ez dira buruetan ongi kokatzen, ez badute lokiarik edo giderrik. Lokia horiek ez dira berdinak ez hitz guzientzat, ez ikasle guzientzat, eta hortako bereko erakasleak behar ditu hitzak asko aldetarik erakutsi, batean aintzinetik, bertzean gibeletik, bertze batzuetan sahetsetik edo barnetik ;

aintzinetik : ikusteko nola hasten diren,
gibeletik : ikusteko nola bururatzen,
erditik : ikusteko zer erro edo hexur duten,
barnetik : ikusteko zer duten golkuan, hots ! zer erran nahi duten,
sahetsetik : ikusteko nola dabiltzan auzo eta ahaidekin.

Eta ohargarri da hitzek badutela gisa hortan elgarrekilako hainitz lokia, maizenik batek bertze asko baderamazkila ondotik. Mahatsa bezala molkoka elgarretaratzen dira.

Erakasleak bil ditzazke gai batzuen itzulian : har behin etxea bere zati guziekin, bertze behin oihana, geroxago ura edo laborantza edo herria...

Orroit naiz ttipi-ttipian gure amatxi zenak supazterrean hunelaxe eman-arazten zauzkula aiten izenak.

Semearen aita buraso, burasoren aita aitaso, aitasoren aita arbaso, arbasoren aita tokilaso, tokilasoren aita tokilabilaso.

Aise hauteman ditake azkeneko so eder hori, bertze izen batzuek ere ekartzen dutena : ilobaso, alabaso...

Ahaide izen hainitzetan nola ez mirets ba berezi batez bururatzen direla : osaba, izaba, arreba, alaba, iloba, ahizpa, neba...

"Rima" horiek bigarren ahaidetasun bat bezala emaiten diote.

Gisa berean elgarri hurbil ditazke ofiziale edo langile askoren izenak :

alde batetik : hargin, zurgin, zilargin, okin, emagin eta bertze mila sorgin...

bertzalde : artzain, behizain, hirizain, otozain, giltzain,

baratzezain, etxezain, diruzain, eta bertze zonbat holako...
edo oraino : ostaler, menuzer, koziner, eta abar !

Etsenplu horiek bezalako elemenia atxeman ginitzazke hiztegia miatuz : eskuarak hitz-ondo edo "suffixe" hoitarik baditu gutienetik ehun eta hiruetan hogoi. Bada beraz nun josta !

Hitz-aintzineko biziki gutiago hargatik, bainan bitxikeria batzu nola ez altxa ?

Gorputzeko zatietan zonbatek ez dute b bat hartzen ? Hala nola buru, begi, beharri, beso, belaun,... bihotza ahantzi gabe.

Eta ez zireztea ohartu zerbait gaixto dakarketen hitz andana batek m badaukatela aintzinean ? Aipa ditzagun : markets, malkor, makur, makel, mamu, mokor, muspel, eta zonbat hitz bikun erdáinuz edo mesprezioz erabiltzen direnak m hortaz beztiturik : ondar-mondar, handi-mandi, ele-mele, zoko-moko, itzuli-mitzuli.

Arruntagoak dira : arra, des, edo basa- hitz-aintzinekoekin egiten ditugunak.

Ikasleri bada segur zer egiteko eman, gauza hoien ikertzen.

Gisa berean gogoa alharaz dezakegu hemen segidan emaiten ditugun lan-gaiekin :

"Emazkidatzu lau zuhaitz-izen, lau arrain-izen, lau lore-izen, lau xori-izen, lau jauntzi-izen... eta holako" ; bertze ikasle bati berehala : "Zuk bertze lau..."

Bigarren gai bat :

Fruitu baten izena eman-eta, aurki fruitu hori ekartzen duen arbolarena : sagar, pagatxa, udare, mertxika, ezkur...

Hirugarren gai bat :

Jauts osotik zatietarat. Izenda eskuko lau zati, oheko bertze hiru, etxeko bertze hiru...

Laugarren gai bat :

"Gizonkiari erraiten baitiote : jaun, aita, seme, osaba, senar,

mutiko, anaia, agure, errege, suhi, — nola erran ziniote emaztekiari." Ihardets : "andere, ama,..." eta abar.

Edo berdin kabalentzat. Huna ar batzuen izenak : zaldi, zezen, ergi, mando, asto, aker,... Nola dute izena hoien emek ? behorra, eta abar.

Bortzgarren gai bat :

Eskuarak gauza batzu ez ditu bakuntzat hartzen : orgak, bezperak, trukesak, feriak, mutxikoak, eskalerak, gartak,... Bila bertze zonbait.

Gauza batzu pareka kondatzen ditu : galtza-pare, arrosario-pare, luneta-pare, aixtur-pare, karta-pare,... Ea bertzerik badenetz ?

Seigarren gai bat :

Igan zatietarik osorat. Zerk dauzka buhurdia eta estaliak ? Zerk hortzak eta mihia ? Zerk aldarea eta mahain-saindua ? Zerk sudurra eta ahoa ? Zerk plazak eta karrikak ?...

Zazpigarren gai bat :

Argi zazu nola hitza iragan den ikur jatorretik ikur itxuraturat (du sens propre au sens figuré) :

gizonaren ahoa	ganibetaren ahoa
zakurraren burua	oihan-burua
usoaren hegala	eihara-hegala
haurraren begia	salda begi-duna
etxeko neskatoa	laratzeko neskatoa
oihaneko azeria	zu, zer azeria !
usoa, ihizi pollita	zu, zer ihizia !

Zortzigarren gaia :

Elgarretarik berex hitz auzo batzu :

— makila, matoa, zaharoa
— gazte, berri, goiztiar
— eder, pollit, apain, muntto
— zahar, adineko, apaldiko
— atzeman, aurkitu, kausitu, bildu
— behokia, ausartzia, ozarreria
— erasi, erran, aipatu.

Bederatzigarren gaia :

Zer bezain zer ? Errankune batzu ikas :

mendia bezain zaharra
kako bezain ohoina
itzea bezain xuxen
bidea bezain luze
saltsa bezain apaindua
laratza bezain beltza.

Hamargarren gaia :

Nolakoa ditake pentzea ? — handi edo ttipi, patar edo ordoki, ferde edo horail, gizen edo mehe, eta abar.

Nolakoa sudurra ? — ttipi edo handi, luze edo labur, kako edo zapal, xorrotx edo zimur.

Nolakoa biperra ? — luzaran edo biribil, ferde edo gorri, min edo ezti, eta abar.

Jakitate gehiago dutenentzat, hala nola bigarren maileko ikastegietan, latinetik abia ditake eskuaralat heltzeko.

Eskuaraz zer bilakatu dira ?

honorem	fricatum	regem
coelum	colorem	legem
anatem	canorem	florem
anserem	eremum	vimen
causam	altare	putillum.

Urrunago joan ditake eta bila zoin ditazken erro bereko hitz gehienak.:

kar erro-eko sustraietik, atera ginezake :

karga, karro, karreo, kargu, kargatu, karreatu, garraio, garreatu, ekarri, ekarle, ekartzale, ekargaitz,

egari,

erakarri, erakarpen, erakarle,...

Iduri zait hitzak horrela ikertuz, elgarri urbilduz, gure gogoan

elgar sustengatzen eta atxikitzen dutela, eta biziki nekezago ahanzten ditugula.

Ez dautzuet jasta baizik eman ene iduriko hitzen ires-arazteko apailatu behar litaken saltsatik. Agian ez duzue minegi edo kiretsegi kausitu !

P. LAFITTE

GURE HERRIA
1962
Nº 5. Sept;-Oct.
pp. 279-284.

Lafitte-n ihardespena

Aditzale maiteak, entzun ditugun ele airos eta azkarren ondotik, ez zait iduri ene semetxiak hanbat kontsolatzearen beharrik baduen. Bertzenaz ere, bere burrunba-xalapartekin holako putiko bat besotan atxikitzeko, ni ez bezalako aitatxi bat behar luke : Agerre harri-altxatzalea bederen.

Zure alkian uzten zaitut bada, Larzabal adixkidea, jaun presidentaren gomendio, eta berehala lotzen naiz ihardespenari.

Ω Ω

Hemeretzi ehun eta hogoi-ta-hamarreko hazilaren 27-an Azkaine huntan ginen zonbait lagun Elissalde jaun apez zena eskualzain sartzeko egunean. Ez zen izan besta handirik. Aratseko seiak irian bildu ginen eskola giristinoan.

Azkue famatua buru, eskualzainak hor ziren, orduan usatu xingolekin. Zerbitzarik goretsi zuen bi hitzez Landerretche bere aintzinekoa, eta erran zaukun nola eginak diren eskuaraz landare eta lili batzuen izenak. Lacombe zenak ihardetsi zion. Bertzeak bertze, aipatu zituen Azkaindar izkiriant famatuak, ez bakarrik Chourio, bainan Hiribarren eta Lapeyre bi anaiak. Elissalde denbora-kari bortzgarren heldu zen, eta Lacombe-k bere goresmenik kartsuenekin eskualzain-medaila eman zion lepotik.

Azkaingo lurra ez da agortu. Larzabal jaun apez adixkidea, huna orai zu seigarren : seigarren denborakari, balioz uste baitut Xhourio aspaldian aintzindu duzuela gehienek. Eta segur naiz zure ildoan loretuko dela gero ere herri huntako hainitz landare lorios, eskual-literaturaren alorrean.

NOR ZITUGUN

Zutaz banuke frango erraiteko. Bainan zuk eta nik bertze batzuekin

Eskual-herriaren alde hasi dugun mus-partida ez baita oraino bururatua, gure aditzalek konprenituko dute ez detzazkegula hemen agert gure karta guziak. Halere xintxoki ariko gira, parerik ukatu gabe ; eta ene erran guziak egiak izanen dira, nun ez naizen nahigabetarik enganatzen.

Azkainen sortu zinen beraz hemeretzi ehun eta hamabortzean, laborari etxetiar ttipi seme, aita gerlan zinuelarik. "Gure Herria" deitu agerkari ederrean kondatu ditutzu ezin amultsukiago haurreko zure orroitzapenak : Larrungo lan eta josteten berri, aldaire ixtorio, xerri hiltze eta nik dakita. Bada nun alegera, bainan denbora berean zonbat xehetasun hunkigarri. Zer olerkaria, zu, bihotza uzten duzularik mintzatzera !

Bederatzi lagun baitzinezten familian, geroztik aita eta bortz haurride zendu zaizkitzu, bi anaia gerlaz. Egun, amarekin ez da batto baizik gelditzen denik zure egungo besta huntan parte hartzeko — nahiz segur naizen, bertze mundutik ere, loriatuak dauden beren Piarres maiteari beha.

Sort-herrian eskolak hasirik, Hazparnen, Uztaritzen eta Baionan segitu eta bururatu zinituen. Oixtion jorraldi bat garratza eman diozute zure errient-erakasleri. Ez dut uste suminduraz karatoxatu ditutzula, bainan omore on hutsez.

Nik Uztaritzen zaitut ezagutu. Orduan zinen mutiko torropilo gorrail bat, begi alimale batzuekin, buru-sorbaldak doi bat makurtuak. Zuk ere ez zinuen, denbora hetan, "Miss Ascain" baten egiteko gai handirik. Bainan bazinuen bertzerik. Hogoi-ta-hamazazpi urte huntan eman ditudan nota guziak atxiki ditut. Behar dut erran, alemana erakasten nautzularik, behin 12 eman nautzula, bietan 13, bertze aldi guziez 14. Ez da erraiteko baizik eskolier hauta zinela ; zure plazak araberakoak ziren, beti lehenetan, eta urtearen buruan lehen, Pascassio doniandarra garraiturik. Berdin eskuarazko lanetan. Orroit naiz sumatu nuela zu baitan jeinu-azi zerbait. Hamahiru urte

zinituelarik, ager-arazi nituen astekari batean zure zonbait pertsu : Belea eta axeria ; 15 urtetan "Betizoak" aipatu zinituen lantto batean eta "Gure Herria" errebixtak hartu zuen ; zure lehen komedia ere, Bazkari hauta, "Aintzina" ene ilabetekarian jalgi beharra zen geroxago.

Unamuno zenak erraiten zuen gaztek erakaslearen erranak beti infrentzuz hartzen dituztela, eta ontsalaz eskolemaile batek ez lukela sekula santan sinesten duenik erakutsi behar. Ez naiz aburu hortakoa. Jakina : eskolemaileak ez du bere pentsatzeko manera saka-saka bortxaz onhartaraziko. Hobeki helduko da, zonbait pindar erainez, eta sua han-hemenka lotu dela ikusi duen ber, emekiño buhatuz eta akulatuz... ahalaz urrundik. Bai urrundik : alabainan gaztea beregaintiarra da : bertzek erranak baino nahiago ditu berak asmatu dituelako egiak, nahiz laket duen bertzek hitz-erdika erranen bere burutarik osatzea, erakaslen segeretua xilatuz.

Eskolemailearen lana ez da beraz errexa, bereziki biligarro buruzkin batzu dituelarik partida. Eta adin gaixtoan astotzen direlarik, ez da mirakulu nolazpait zentzatu behar baditu ere. Bainan, arimaz egia, ez naiz orroitzen ez zure astokeriez ez eta dauzketzudan gaztiguez.

Eskoletarik kanpo ere izan duzu zerbaiten ikasteko parada.

Hamasei, hamazazpi, hemezortzi urte zinituelarik, hiru "sasoin" egin zinituen Donibane Lohizunen "garçon de café" bezala : bizitzen ikasteko eta gauza askori ohartzeko ofizio hauta.

Soldadogoa Paris-en, han bildu baitzinuen "diplôme d'infirmier" delakoa : dena ere on !

Gerla, Baionako "berrogoi-ta-bederatzigarrenean" ; bainan, Frantziak lehen mantxa galdurik, erabili zintuzten presoner Alemanian, Txekozlobakian eta Polonian, nehun ez baitzinen laketzen seguraz ere ! Jan-eskasak eta arta-eskasak eriturik, behar ukan zintuzten Suisarat igorri... Ibiliz-ibiliz gaztea eskolatzen omen da hainitz.

Suisatik itzuli zinen Eskual-herrirat eta Hazparnen hartu zinuen zure bikario kargua.

"Résistance clandestine" delakoan sartu zinen Alemaneri ixilka ihardokitzeko, eta gerlatik lekora, "membre cantonal du Comité de résistance" egin zintuzten. Hiru urtez eman zautzuten "Préparation militaire" apailatzeko lana Hazparneko, Bastidako eta Ahurtiko eskualdetan "fonction de Commandant" graduarekin.

Bikario gisa, hamabi urtez, elizako eginbidez bertzalde, hastapena eman izan diozute asko batasun berriri (J.O.C., C.F.T.C., Laborarien zindikata, Laborantzako eskola eta bertze). Hazparne uztean zure laborantzako eskola segitzen zuten 45 gaztek, lan guzia eskuaraz egiten zinutelarik.

Eta huna berriz hamabi urte Zokoan zirela, berri-berritik parropia bat sor-arazteko kargu haztunarekin. Eraiki duzu eliza bat ohargarria, gero erretor-etxea, asko urtez ahal bezala ezerian biziz, aterbe txar batean, bainan beti lantsu, beti alegera, diru-kezka eta buru-hauste guziak otoitzean gesalduz. Murru eta hargintzen egitea bat da ; arimen biltzea, argitzea, girixtinotzea, salbatzea ez da errexago, ez bada ere dirutan estimatzen ahal. Denbora berean segitzen ditutzu "nagusi-injeniurren bilkura" batzu ; esku-emaiten zindikat-buruzagieri eta arrantzarieri.

Hots, ez duzu alfertzeko astirik.

ESKUARAK ZER ZOR DAUTZUN

Bainan Uztaritzen hauteman ginuen eskualzale lili gazte hura, zafratu eta galdu ote daukute hainbertze ekaitz-zirimolek ? Gerta zitaken. Bainan ez. Landarea azkartu da, azkartu ! Eta ekarri du ekar-ahala fruitu.

Apez eskualdun gehienek bezala, eman ditutzu predikuak eskuaraz, bainan ez aditzalen lokar-araztekoak, Aita sainduen erakaspen berrien beldurrik gabe.

Kazetetan zonbat lan ez duzu atera, ala nagusien, ala langilen dretxo-eginbidez, jornalez, induztriaren gora-beherez, Eskual-herriaren beharrez, federalixten xedez ; edo bertzenaz ixtorio kondan, zuhauk asmatu ipuiak emanez, edo berdin egiazki gertatuak.

Hiru sasoinez radioan eman dituzte, zuk eginik, asko antzerki edo komedia, irri-solas, edo bertze emankizun-gai, hala nola Kaskarot-ixtorio, Matalas, Gernika, Orreaga... arrakesta ederra ukan dutenak.

Bainan zure fama fehiena teatrotik heldu da.

Ehun bat antzerki ttipi jalgi dira zure lumatik gazte eta haurrentzat. Sail hortakoak dira : Okilomendi jaun mera, Xirrixti-mirrixti, Amerikanoaren ilobak, Merkatutik etxera, eta abar.

Hogoi bat antzerki luze egin ditutzu, barnean emaitekoak. Ezagutuenak dira : Etxahun, Bordaxuri, Portu xoko, Basabeltz, Urriki latza, Hiru ziren, Berterretxe, Mugari tiro, Paper-mende, Hila espos, Herriko bozak, Nork hil du Oyhenalde ?

Bertze bortz-pa-sei kanpoan emaitekoak : Tuta jotze, Bihotz bero, Kontrabandixtaren alaba. Eta behar duta salatu ? Heldu den Pazkotako Azkaindarrekin apailatu gogo duzu pastorala handi bat : Orreaga.

IRITZI ETA KITZIKA

Lan-keta buru-joangarri horrek salatzen dauku nolakoa ditaken zure gogoa : atzarria, idekia, argi-gosea, beti kaldan, munduari barrandan, ikusi-ikasi guziez asmuka, eta irakimendu hortarik ideiek gaindi egiten, fedeak, bihotzarekin batean, bide askotarat laguntzen dituela. Zure bizi gordearen, zure sofrikario eta otoitz ixilen, zure gudu mutuen zapak gisa hortan jauz-arazten dauzkitzu iguzkitarat barneko ontasun aberatsenak. Ezen urrats guziak apeztasunak manatzen dauzkitzu, zonbaitek ez badute ere onhartu nahi, giristino eginbide lehena dela, Ebanjelioa erakusle, zuzenaren bilatzea ala nor-bederarentzat, ala nork bere herriarentzat, ala herri guzi-guzientzat.

Zure teatroa ere iturburu beretik heldu da turrustan.

Segur nahi duzu jendea josta dadin, eta orok badakite nehor

ez dela zure antzerkieri beha ez aspertzen, ez enoatzen. Ikasi duzu nola usu jauz-araz irria, eta noiztenka nigarra. Bainan zure komediek badute beti zerbait azpildura, zerbait erakaspen. Etxahun-ek eman dautzu mihi gaixtoen kondenatzeko parada ; Hiru ziren delakoan argitan ezarri ditutzu Ameriketarat joaiteak dituzken on-gaitzak ; Herriko bozetan politikeroak dira jorratuak ; Mugari tiro-k mugen auzia egiten du ; Paper mende-k oraiko paperia-rena. Bertzetan erakusten duzu hameka irri-karkailen artetik, zer kalte dakarketen herrak, handi-nahiak, bekaiztiak, diru-goseak, zirtzilkeriak. Axular guzia ekarri daukuzu teatrorat.

Nago, bizkitartean, ez direnetz ageriegi han-hemenka zure xede onak, bereziki predikuaren eite duten zonbait ateralditan : "Mugari tiro" delakoak bazuen itzalxka hori. Eta ez ote daukuzu Etxahun puska bat edertu zure "moralari" indar gehixago eman beharrez ? Badakit antzerki-egilek gaien aldatzeko dretxo edo eskubidea badutela, bainan ez da erraiteko baizik.

Halere bizia badariote ausarki zure komediek. Gertakariek haste-hastetik hartzen dute beren oldarra eta bururaino dabiltza, harri biribila herresta-bidean mendi kaskotik punpaka zolaraino amiltzen den bezala : zati guziak bat daude, batek bertzea osatzen eta ernatzen duela, iduri gorputzeko zain, ginarri, muin, odol eta gaineratikoak. Nola ez aipa bertzalde zure teatroko gizon edo emazten nortasun harrigarria ? Ez dute zahi, lasto eta trapuzko kuka edo panpinen eiterik. Haragiz eta arimaz orratuak, jaidura on eta tzarrez josiak, gaixtoenek zerbait onik izaki, eta hoberenek zerbait itaxura, ez da batto ere bertze nehoren berdina denik.

Begi ona izanez, hainitz tokitan iragan baitzira, ez zaitzu gauza handirik eskapatu nehun ere, jendeen egon-molde, gobernu, ibilgune eta jestuetarik. Beharri ona izanez, zonbat hitz eta hizkuntza, erran zahar, ditxo eta zirto ez ditutzu bildu, marinelen "litania beltzak" barne ? Zonbaitek miresten dute zure teatroaren hatsa, bainan gordinskoa daukate, ohartu gabe batz-biperrek emaiten diotela gostua hain laket zaioten saltsari.

Bertze batzuek pena dute, sobera mozkor eta xoro asmatu duzula eta hetaz trufatzen zirela, behar zinukelarik orroitu jendeari zor zaion errespetuaz edo urrikalmenduaz. Eni iduri zait arrazoin horrekin nehortaz ez ginukela mintzatu behar komedietan : mozkorrak eta xoroak bezain urrikalgarri daukat edozoin gizon edo emazte, saindutasun osorat heldua ez deno ! Eta gero, xoro edo mozkorren medioz, zonbat egia biribil ez dira adi-arazten ahal, zentzudun batek odol hotzean nehundik ere erran ez lezazkenak : hori ere bada zerbait.

Entzun izan dut behin, hain urrun deramazula fantesia komedia batzuetan, nun ez baitzaiote gelditzen gehiago kanore izpirik. Aipatzen zauztaten Mugari tiro-n ezarri duzun saskipeko guarda eta Paper-mende-ko paper-jatea. Nik ez dautzut hortako ere erasia soberarik eginen. Egiaren muga hertsietan egonez, irria laster agor litake. Gauza batzuez irri egiteko hobe dugu ohartzea alegiazkoak direla. Racine antzerkilari frantsesak, Les Plaideurs komedia famatuan, bere denborako tribunalez burlatzeko, zakur bat jauki-arazten zuen jujearen aintzinerat. Gisa hortan aditzalek irri egin zezaketen, tristatuko eta hasarretuko ere zirelarik, eta beretan ikusi balute gizon bat jujatzen. Berdin Mugari tiro eta Paper-mende ez bazinitu ezin sinetsizko xehetasunez hanpatu, uste dut bazterretan ez zituztela aise jasanen, eta beharbada egun, Azkainen izaiteko plazan, nunbait preso zintezkela, ez bailuke guretzat berdin balio, ez eta zuretzat ere...

Izaitekotz, ene gostuko, zonbait aldiz hala denari hurbilegi danik jarraikitzen zaizkio. Ohart, otoi, ez dautzutala ausartzia erreportxatzen. Maite dut ausartzia. Nehork bezenbat miretsi ditut Bordaxuriko hil ganbarako eskatime eta Etxahun elizan, kofesatzeko bere aldiaren haiduru. Zure bekokia behar zen, holako ikusgarri ustegabekoeri lotzeko... Bainan teatroa ez da bizia, ez eta egia hutsa. Askotan gauzak adiarazten dira, tiletez-tilet erakutsi gabe. Behar ere ! Orduan zertako iraun-araz mende bat Berterretxen heriotze latza, iduri-eta ez zinuela nahi gal zadin, agonia izigarri hortako ez auhen bat, ez sofrikario oihu bat, ez zain-ikara bat, ez nigar-

xotin bat ?... Aitor dautzut holakoetan nahiago nukeela gertakaria labur dadin, "Ezpeldoi-altian" luzea izan bazen ere.

Bainan ez litake xuxen pentsatzerat uztea, itzal hori zure lan guzietarat hedatzen dela. Badakizu segur, gauza hainitz adi-arazten ala hitz-erdika, ala itxuren medioz. Gogoan dut, Etxahunek Hegiapalen basoan edaten duen memento peningarria. Gogoan ere, Muga tiro-ko loretegia eta nola bere lorez mintzatzean Aita xuriak hain samurki kantatzen duen ezkongaien arteko amodio garbia.

Behar banu erran, zoin zaitan zure dohain nagusia, aipa nezake indarra. Indar hori manatzen duzuno, denak ongi doazkitzu ; eskuetarik eskapatzen bazaitzu, ai orduan hanbat gaixto, mugak eta neurriak kraskatzeko lanjerrean dira. Beharrik azken kasu hau, biziki bakan gertatzen zaitzu, eta maizenik zure goresteko atsegina baizik ez zaiku gelditzen, zure komedia ospatsuetarik lekora.

°°°

Hitz batez, eta huntan bururatzen dut : teatro-idazle handia zira, bertze asko dohainekin. Eskualzaindiak ene ahotik erraiten dautzu bihotz-bihotzetik "ongi-etorri".

Ez dut ukatuko halere zure hitzaldiko azken mehatxuek halako bat egin dautatela. Lehenago Alphonse Daudet-ek L'Immortel izkiriatu zuen Frantziako Akademiaz jostatu beharrez. Nork jakin zuk ez gaituzunetz komeida berri batean Eskualzain zaharrak galanki jorratuko ? Hobe, funtsean, hala balitz, zuri esker nolazpait bederen menderen mendetan Eskualdunek jakin dezaten, bitxi bagira bitxi, lanean ari izan girela eskuararen salbatzeko esperantza bitxiarekin.

Anartean, ene semetxi maitea, huna zu ere eskualzain, agian hainitz urtetako, eta Jainkoa lagun, eskuararen onetan.

(Azkainen, 1963-an, azaroaren 10-ean, igandez)

GURE HERRIA
1963
Nº 6. Déc.
pp. 332-339

Manuel Lecuona

eskualzale

Aditzale maite hoieri, agur ! (1)

Hastera noan lanari lotzeko, bazitazken zuen artean hameka eta hogoi-ta bortz baino gehiago ere, mintzatzaile hau baino egokiagorik. Bainan nahi-izan duzue Bidasoz haraindiko norbait ager zadin apez-bilkura huntan, Eskual-herri guziak gorets zezan Manuel Lecuona, Eskual-herriko apez guzien ohorea delakotz.

Atsegin zait karia hortarat zuen artean aurkitzea.

Duela hogoi-ta-hamabi urte, Lapurdiko bortz lagunek erabaki ginuen, hunaindiko lau eskual-herrietan gaindi ibiltzeko aste bat osoa, Irungo Kandido Arruabarrena gidari, bazter ikuska. Gazteitzen ez ginuen apezgaitegia ahanzten ahal, eta han egin genituen eskualzale bipil baten ezagutzak : ongi-etorririk goxoena egin zaukun eta eni eman, orduan agertu berria zen La poesia popular vasca.

Denek asmatua duzue nor zen.

Egia erran, haren izena ez zitzaitan batere arrotza. Ordukotz irakurtzen nituen hemengo eskual-aldizkari gehienak, eta bertzalde Martin Lecuona zenaren adixkide mina nintzen, aintzineko bi urtetan Markiegi zenarekin, Uztaritzen, zonbait egun iragan baitzituen, udakari, eta ene auzo hurbil. Nola salastatuko ginen, don Manuel maiz eta ardura aipatu gabe ?

Geroztik gertatu dira beltzak eta gorriak : ez dut nik hemen gaur, egun deitoragarri hoitaz bertzerik erranen : bainan urrundik bada urrundik, euri edo ateri, Manuel Lecuona jaun apezaren lanari jarraiki gitzaizko, miresten ginuelarik haren adimenduaren eta jakitatearen hedadura, haren luma aberatsa bezala.

---

(1) Oiarzunen Lecuona jaun apezari egin zioten gorets-egunean irakurria.

Jadanik bi aho ederrek argitarat eman dute zer zor dioten Lecuona jaunari liturgiak, edestiak eta edertiak.

Behar omen dautzuet gogoratu zer zor dion eskual elertiak ere.

Ordu-laurden barne, ez dut ondikoz axaletik eta gain-giroki baizik aipatzen ahalko, nola don Manuel izan den hizkuntzalari bipil, liburu-epaile jakintsu, idazlari oparo, antzerki-egile artex, olerkari xukun eta herri-elerti ikertzale sakon.

º º

Izkuntzalariz, gure Lecuonak eskuararen berezitasun batzu aztertu ditu, hitz zonbaiten erran-nahia zeaztu, bertze askoren iturburua bilatu. Adibidez, eskual deikia edo vocativo-a nola egiten den, bi lanetan erakutsi dauku : izenekin berexten ditu deiki hutsa (seme, atçr etxerat), deiki artikuluduna (Agur, jauna), deiki ori-duna (seme maite ori, atoz gugana), deiki jokatu edo deklinatua (seme maite horrek, laster egizu) ; eta ohartarazten gaitu, eskual aditzak ere baduela bere deikia, bereziki ika mintzatzen girelarik : hor duk, hor dun, eta abar.

Hitz zonbaiten ikurra argitu duela erran dugu : adibidez, Azkuek bere iztegian bazaukan noski hitzak "sin duda" erran nahi zuela. Lecuona-ren arabera, Oiarzunen beintzat, hitz horrek subjective, nor bere baitan, "segurki" erran nahi du, bainan objective, gauzaren aldetik, "beharbada" ; hots, oro har, Lapurdiko "nik uste" bezalako zerbait. — Berdin salatu dauku izanki, egoki, eramanki eta holako aditz-erak ez direla Oiarzunen gerundioak, infinitivoak baizik.

Hitzen iturburuak bilatuz, aztertu ditu Zipitria abizenaren gorabeherak, eta aurkitu Zufiri deituratik sortua dela. Bainan huna garrantzia handiagoko zerbait : askok uste baitzuten krixtautasuna gutarterat hego aldetik edo ekaldetik etorria zela, Lecuonak duda batzu piztu dauzku : ezen goroxe, eleiza eta gisa hortako hitzak iparretik baizik ez dira etorri ahal izan, fonetika-legez beintzat.

º º

Bainan bego izkuntzalaritza, eta dugun aipa kritika edo epaikaritza. Hortan ere norbait da Lecuona : badu hortako begi eta luma ukaldi. Zonbat libururen berri ez du aldizkarietan eman, argi eta garbi ? Erasia handirik gabe adi-arazten du aldi bakotx, lanak zer duen balio, ala mamiz, ala axalez : goresmenen artetik, hitz-erdika badaki behar-orduan esondatzen, biligarroen artean bazitazkela, ahantzirik, zonbait xoxo : bainan ez du ausiki ez aztaparkada gaixtorik : irri-mirri jostagarri bat doi-doia, egiari bere bidea emaiteko heinean, nehori minik egin gabe.

Adibidez, irakur-zkitzue Egan aldizkarian agertu dituen iritziak ; irakur Santa Klara-ren kantu xaharraz ontu duen hitzaldi ohargarria ; irakur hemezortzigarren mendeko "Gabon-kantak" haren argibidekin ; irakur oroz gainetik Axular-en Gero-ari Eratxiki dion itzaurre joria : ezagut-arazten dauku nor zen Sarako erretor famatua, nolakoa haren liburu baliosa, zer hartu behar dugun, eta zer utzi orduko idazkeratik.

Lecuona ez da haatik bertzeen eskuara epaiten ari, bera eskual lanetan murgildu gabe : hitz laxo ala hitz neurtu, eskuara herrikoia baderabil, doi-doia garbiturik, beti errex, beti labur, beti argi : hala beharrez, ulergarriago izan uste duenean, berdin erainen dauzkitzue han-hemenka latin edo erdal pikor batzu. Montaigne zaharrak erraiten baitzuen : "Si le français n'y peut aller, que le gascon y aille" : frantsesa ez bada aski, bota kaskoina, uste dut don Manuel aburu berekoa dela, nahiz ez den ez garbizale, ez mordoil, izaitekotz herrizale apain.

Mintzaire miresgarri hortaz baliatu da itzulpen hainitzen egiteko, oxtion Ofiatibia jaunak erran duen bezala : liturgia, dotrina, apezpiku-gutun edo karta, eta ez du hain aspaldi orok dakigun Bidea. Bainan bere burutarik ere egin du zerbait baino gehixago. Adibidez, aldizkarietako hainbertze artikulu desberdinez bertzalde, nola ez aipa bi antzerki : Ehun dukat eta Amerikatako osaba, berrogoi-ta-hamarna orri-alde dauzkatenak, eta biak ezinago jostagarriak ? Nola ahantz haren olerki bakun, pollit, ongi neurkatuak, izan dadin Jesu aurraren

bizitza, izan diten bertze bertsu... bere bihotzetik jaioak, herriko kopla zaharren modurat.

Nahi dautzuet entzun-arazi haren olerki lafio hunkigarrienetarik bat :

SORTZEA

Orain esango degu
Jesutxoren bizitza,
abesti politik entzun
nai duanik balitza...
— abesti politik entzun
nai duanik balitza,
orain esango degu
Jesutxoren bizitza...

Yosepe gizon ona
bizi da Natzareten :
— Nun dezun zure usoa ?
nun dezun zure Mirem ?
— Lanean gaxotxoa,
lan ta otoitz egiten,
Mesias salbatzallea
etor dedin lenbaitlen.

— Yo-a-kin eta Ana,
alaba nun dezuten ?
— Ez dagola, ez, etxean,
ez dagola, ez, emen.
Yerosolimen dago
gure Yabe yauresten..,
Ez dagola, ez, etxean,
ez dagola, ez, emen !

Mesias Salbatzallea
badator ba oraintxen :
Yaunaren mandataria
orain dator zeruren :
— Agur, agur, Miremtxu !
agur, bai, agur, Mirem !
Zu izango zera Ama
Aitaren Semearen...

Simeon aiton zarra
dago Yerosolimen :
— Miremtxu nexka polita
ikusi dezun emen ?
— Uso txuri batek zizun
emen izena Mirem...
Orain ezkonberri dago
gaxoa Natzareten.

— Nola diteken ori,
ori nola diteken ?
— Goikoak emango dizu
ber'itzal ta arnas goien.
Birjin izango zera
beti Ama izan arren.
— Birjin ta Ama nadilla
diozun bezela. Amen.

Bizkitartean ez diote Manuel Leduonari bertsuek bildu bere omen gehiena, bai ordean herri-olerkiari eman dion artak eta hari buruz

erakutsi duen jakitate handiak.

Gazte danik bilatu izan ditu kopla zahar hainitz, eta asko ager-arazi, bai Anuario de Eusko Folklore delakoan, bai bertze aldizkarietan, bai eta, erakusbide gisa, bere liburuetan ere.

Bortz obra bereziri esker ezagut-arazten dauku eskualdunen herri-olerkia. Hek dira :

— Metrica vasca (1918)
— Las toberas (1920)
— La poesia popular vasca (1934)
— Literatura oral euskerica (1936)
— Literatura oral vasca (1965)

Lan horiek elgarren ahaide urbil dira, bainan asko gaietan elgar osatzen dute.

Don Manuelek argitu gai nausiak huna zoin diren :

— herri-elertiaren ohiko legeak,
— bertsolaritza,
— kopla zaharrak,
— apaindurazko olerkiak,
— herri-antzerkiak,
— ipuin-kantak.

Sail bakotxari datxizkon azalpen eta xehetasunak eman behar baginitu, aratsalde guziaren betetzekoa baginuke, bazkariaren kaltetan. Ez dautzuet holakorik eginen : ez izan beldurrik.

Bizpahiru lerro bakarrik sei gai handi hoietaz.

Herri-poesiaz, Lecuonak dio nola bertsuetan itxurapenak laster mugitzen diren, zoin guti aski duten elgar-deitzeko ala soinuz, ala iduripenez, ala auzotasun hutsez, logika formalik gabe, barneko lokarri zerbait duten ber.

Bertsolaritza biziki zaharra dauka, berexten ditu sasi-bertsolariak egiazkoetarik, argitarat emaiten nola konpontzen

dituzten pontu, bertsu, neurkada eta aire-soinuak.

Kopla zaharren teknika berdin sakonki aztertzen du, beren elerantza labur, motz, betearekin.

Apaindurazko olerkiak arta berezi batekin bipildu ditu : hogoi bat etxenplu badakarzka, trikiti-trikitiak barne.

Antzerki zaharretan aipu ditu pastoralak, galarrots-toberak, gabon-kantak, zoin beren legekin.

Ipuin-kantueri, eskual erromantzeri ere ohartu da, nahiz ez duen harrobia ideki baizik : bainan oihan-sasietan gaindi ez dea zerbait, bide berri baten erakustea ere ?

Horra bururaturik, eman zinautaten lana.

Don Manuel, zutaz mintzatu-eta, zuhauri bi hitzen erraitea haizu bekit.

Goresmen eta esker mila hainbertze urtez egin duzun lan ederraz. Ixil-ixila, hainitz egin duzu Jaungoikoaren aintzaren gatik eta eskualdun arimen onetan.

Bidasoz haindiko apez eskualdunen izenean agur kartsu bat bai zuri, bai zure inguruan diren guzieri.

P. LAFITTE

24- IV- 1967.
Oiarzun-en

GURE HERRIA
1967
Nº 3. Sept.
pp. 188-192.

FSC
TT-COC-2573